




Emakumeen presentzia

ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan

Aurkibidea - 4

I atala. Testuinguruaren azterketa - 6

1. Testuinguru legala - 7
2. EAEko testuinguruari buruzko datuak - 8
3. Emakumeen enplegua kultura-sektorean - 10
4. Kultura-ohiturak: gizonen eta emakumeen arteko aldea - 13
5. Genero-berdintasunari buruzko iritziak, sektorean bilduak - 16

II. atala. Ikusizko arteak - 18

II.I. Azterketa kuantitatiboa - 19

1. Unibertsitate-mailako prestakuntza - 20
2. Testuinguru sortzen laguntzeko programak - 20
3. Gure Artea saria - 32
4. Trukeko eta kanpo-mugikortasuneko programak - 37
5. Museoak eta arte-zentroak - 39
6. Laburpen gisa - 44

II.I. Iritzi artikulua. Kristalezko sabaiaren argazki gardena: emakume artisten egoera EAEn. Haizea Barcenilla - 46

II.III. Lantaldean eztabaidatutako proposamenak - 56



III. Atala Ikus-entzunezkoa - 58

III.I. Azterketa kuantitatiboa - 59

1. Prestakuntza espezializatua ikus-entzunezkoen eremuan - 60
2. EAEko ikus-entzunezkoen sektorearen egitura - 62
3. Istoriak nork idazten dituen: Eusko Jaurlaritzak gidoiak egiteko ematen dituen laguntzak - 63
4. Emakumeek ekoizpenak duten presentziaren azterketa - 65
5. Zinemagileen ikusgaitasuna eta aintzatespena - 68
6. Laburpen gisa - 72

III.II. Azterketa kualitatiboa. Miren Manias - 73

III.III. Iritzi artikulua. Emakumeen presentzia ikus-entzunezkoetan. Egoeraren inguruko gogoeta eta hobetzeko proposamenak, iritzi artikulua batean. Ane Muñoz - 86

III. IV. Lantaldean eztabaidatutako proposamenak - 104

Aurkezpena

Azken hamarkadetan aurrerapausoak egin badira ere, jarduera-eremu guztietan diskriminaturik jarraitzen dute emakumeek. Estatistikak dira sexismo horren lekuko. Eta kultura, ideiak sortzen eta komunikatzen hain garrantzi handia izanik, giltzarria da ikurren imajinarioa elikatzen duelako eta gizarteak eraikitzen dituelako.

Beti izan du buruan genero-ikuspegia Kulturaren Euskal Behatokiak berak bultzatzen dituen estatistikak diseinatzeko, elikatzeko, ustiatzeko eta aztertzeko orduan. Horrez gain, ordea, 2016an, ikusirik zer-nolako interesa erakutsi duten administrazioek eta sektoreek emakumeak kulturean zer egoeratan diren jakiteko, gai jakin honen inguruko berariazko azterketa bati ekitea erabaki du Behatokiak bere programanurteko jardueran.

Kultura Auzolanean plana euskal kultura osoaren ikuspegi estrategikoa, jarduteko irizpideak eta lehentasunak eragile publikoen eta pribatuen artean adosteko tresna da, eta haren baitako 2016ko proiektu egituratzaileetako bat da ikerketa hau. Azterlanaren helburua da emakumeek kulturean zer presentzia eta zer parte-hartze duten jakitea, ikus-entzunezkoen eremuan eta ikusizko arteetan zehazki, hartara hobetzeko moduko bezala zehazten diren esparruetan zer esku-hartze planteak litezkeen ikusteko.

Emakunderekin koordinatua, emakumeak balio-katearen hainbat kate-begitan (formazioa; sorkuntza; ekoizpena; zabalkundea, programazioa eta erakustea) zer egoeratan diren aztertu asmo du. Bestetik, diagnostik harago, emakumeen presentzia eta parte-hartzea areagotzeko eta berdintasun handiagoko testuingurua sortzen laguntzeko zer neurri har litezkeen zehazten du.

Diagnosia egiteko lehen urratsa EAEn eskura dagoen informazio estatistikoa aztertzea izan da. Badugu testuinguruari, enpleguari, denboraren erabilera eta kultura-ohiturei, eta kultura-eragileek sektoreko genero-berdintasunaren inguruan duten ikuspegiari buruzko informazioa.

Lehen erretratu objektibo hori osatu beharra dago, emakumeek diru-laguntza eta beka-deialdietan duten posizioari buruzko informazioarekin osatu ere: epaimahai eta batzordeen osaerari dagokionez zein jasotako eskaeretan eta emandako laguntzetan, halako laguntzak lortzean paritatea nola betetzen den aztertzearen.



Azterketa kuantitatiboaren barruan oraindik, halaber planteatzen da zer posizio duten emakumeek erakusketen, filmen lantaldeetan, sarietan.... Zenbat emakume agertzen diren eta gizonekiko zer pisu duten jakitea ez ezik, azterlanaren bi arlo nagusietan zer egoeran dauden hautematea eta tipifikatzea ere bada azterlanaren helburua.

Datuei esker zer gertatzen ari den egiaztatuko dugu eta, hala, efektua, arazoa islatu. Ez da gutxi. Baina errealitate horretatik harago, badira oinarrizko gako batzuk, erantzun kualitatiboa eman behar zaienak. Honelako azterlan batek berekin dakar parte hartzeko eta gogoeta egiteko espazioak zabaldu beharra, errealitatea bertatik bertara bizi eta ezagutzen dutenen iritzia biltzeko. Ildo horretan, ikus entzunezko arloan, euskal zinemaren ikertzaile aditu Miren Manias en jakintza izan dugu gurekin, eta profil orotako emakumeei, teknikari zein artista elkarrizketa sakonak egin dizkie.

Halaber azterlanak bi iritzi-artikulu ditu, independenteak eta baloratzailleak, Haizea Barcenillak eta Ane Muñozek eginak Behatokiaren datuetan oinarrituta eta, ikus-entzunezkoaren kasuan, azterketa kualitatiboaren emaitzak ere aintzat hartuz.

Lan-prozesuari dagokionez, azpimarratu behar da lantalde bi koordinatu direla, eta bertan azterlanaren metodologia eta edukiak adostu eta etorkizunerako proposamenak eztabaidatu dira.

Hala, ikuspegi plurala ezinbestekoa suertatu da azterketa egiteko eta, batez ere, emakumeek ikusizko arteen eta ikus-entzunezkoen arloan duten egoera aldarazten laguntzen duten neurriak proposatzeko, gaur egun oso urrun baitago, izan ere, orekatua izatetik.

I. Atala

Testuinguruaren azterketa

1. Testuinguru legala - 7

2. EAEko testuinguruari buruzko datuak - 8

3. Emakumeen enplegua kultura-sektorean - 10

4. Kultura-ohiturak: gizonen eta emakumeen arteko aldea - 13

5. Genero-berdintasunari buruzko iritziak, sektorean bilduak - 16



1. Testuinguru legala

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioa ez ezik, sexuaren ondorioz diskriminatzeko debekua ere, biak ala biak, hainbat arau juridikotan daude jasota. NBERen Asanblea Orokorrak 1979an onetsi zuen *Emakumeen aurkako diskriminazio-forma guztiak ezabatzeari buruzko Ituna*, zeinen kideek engaiatu baitziren “legez zein beste modu egokiez, printzipio hori praktikan aplikatuko zutela” (2. artikulua). Europako esparruan, 1999an Amsterdamgo Ituna indarrean hasi zenetik, formalki sagaratu zen gizon-emakumeen berdintasuna Europar Batasunaren oinarritzko printzipio gisa. Hala, 3.2 artikulua dioenez, Batasunaren eta haren estatu kideen politika eta ekintza guztietan txertatu behar da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburua.

EAEri dagokionez, Autonomia Estatutuaren 9.1 artikulua berdintasuna eta sexua dela-eta ez diskriminatua izatea eskubidetzat jotzen ditu, eta pertsonen eta pertsonak biltzen diren taldeen arteko berdintasuna benetan eta eraginkor gauzatzeko behar diren kondizioak sustatzeko eta diren oztopoak kentzeko betebeharra ezartzen die botere publikoei 9.2.d artikulua). Eusko Legebiltzarrak, bestetik, Emakumearen Euskal Institutua sortzeko otsailaren 5eko 2/1988 legea onetsita, emakumeen kontrako diskriminazio-mota oro efektiboki desagerraraztea eta emakumeek gure erkidegoko arlo guztietan parte hartzea sustatzeko behar adina neurri abiaraztea lehenetsi zuen, eta bere gain hartu zuen gai honen inguruko ekintzak koordinatzeko eta sustatzeko ardura. Lege hori hamarkada batez garatua delarik, Eusko Jaurlaritzak EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko hiru Plan onartu zituen, eta euskal administrazio publikoek gizon-emakumeen arteko berdintasuna bizitzaren arlo guztietan sustatzearen inguruan jarraitu beharreko oinarritzko esku-hartze lerroak jasotzen dira bertan.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak gerora; honen atariko tituluak ere definitzen ditu bi printzipio edo estrategia elkarren osagarri horiek, gaur egun nazioartean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna erdiesteko egokienak joak: genero-ikuspegia txertatzea eta ekintza positiboa, hain zuzen. Legegintzaldi bakoitzean plan orokor bat onets dezala iradokitzen dio legeak Gobernuari, non euskal botere publikoen jardura gizon eta emakumeen arteko berdintasunari dagokionez bideratu behar duten gidalerro eta jardute-arauak koordinatuta eta globalki jasoko baitira. Beraz, orain EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana dago indarrean, X. legegintzaldiari dagokiona, hain zuzen.

Alabaina, araugintzako tresnarik izanez gero, bidezkoa da galdetzea zergatik egiten den hain mantso aurrera, ahalegina handia izanagatik ere, zergatik ez diren desorekak berdintzen, zer faktorek eragin duten gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak beti berean irautea. Izan ere, emakumeen elkarteek (MAVek eta CIMAK estatu-esparruan; *A Plataforma* eta *(H)emen* elkarte sortu berriak EAEn) salatua dute kultura esparruan legea sistematikoki urratzen dela.

Nolanahi dela ere, gogoeta zabala egin behar da, zeren, Lourdes Mendezek dioen bezala¹, berdintasun-politika ohikoen menpean bada eragile instituzional, akademiko eta artistikoen arteko halako harreman-sare bat, zeinen helburuak inoiz elkarrengandik urrundu ere egin balitezke, eragileak “reflexibitate instituzionaleko” prozesu baten barruan baitaude murgilduta.

¹ Méndez, L. (2014) “En el campo del arte contemporáneo de Euskadi: irrupciones feministas, reflexividad institucional e igualdad de género”. Ankulegi 18 aldizkarian



2. EAEko testuinguruari buruzko datuak

Atal honetan aurkezten ditugun datuak Emakunde eginiko **Zifrak 2015: Emakumeak eta gizonak Euskadin** → txostenetik erauziak dira. Demografia, hezkuntza, lan-merkatua eta denboraren erabilerari buruzko oinarriko datuen hautapen bat aurkezten da, EAEko emakumeen egoeraren testuinguruaren ideia eskaintzearren.


Demografia. EAEko biztanle guztien % 51,3 emakumeak dira, gizonezkoak baina zertxobait gehiago (% 48,7). Azken hamar urteetan gizonen eta emakumeen pisu demografikoak ez du aldaketarik izan.

Heziketa. Emakumeek gizonek baino pisu handiago dute helduen hezkuntzan (% 56,8), unibertsitate-hezkuntzan (% 52,7) eta batxilergoan (% 52,6). Gizonak berriz ugariagoak dira hasierako kualifikazio profesionaleko programetan (% 70 baino zertxobait gehiago) eta erdi- eta goi-mailako lanbide-heziketan, baina ez hain nabarmen (% 60tik goraxeago).

2013/2014 ikasturtean honela banatu zen emakumeen presentzia ikus-entzunezko alorrarekin zerikusia duten ikasketa profesionaletan: komunikazioa, irudia eta soinua familia profesionaleko erdi-mailako graduon matrikulatutako 113 lagunetatik, % 48,5 emakumeak izan ziren; goi-mailakoan matrikulatutako 440 lagunetatik, berriz, % 30,2 izan ziren.

Ikasturte hartan bertan, unibertsitatean, arteetako graduon matrikulatutako % 66 ziren emakumeak, eta ikus-entzunezko komunikaziokoa, berriz, % 54,5. Onartutako doktore-tesiei dagokienez, % 53,6 ziren emakumeenak. Esan beharra dago adinak eragin nabarmena duela. Zenbat eta gazteagoa taldea, orduan eta emakume gehiago.

1. irudia. Irakaskuntza arautuan matrikulatutako emakumeen proportzioa, 2013-2014 ikasturtean




Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eskola-jarduerako estatistika eta Unibertsitateko estatistika

Errejimen bereziko modalitateetan, kirol-irakaskuntzan izan ezik, are handiagoa da emakumeen proportzioa, batez ere dantzan —non matrikulen % 87,8 emakumei baitagokie—, arte plastiko eta diseinuan (% 68,6) eta goi-mailako ikasketa artistikoetan (% 72,8).

Lan-merkatua. Lan egiteko adinean dauden bizilagunek (okupatu zein langabe) osatzen dute lan-merkatuaren oinarria. 2015. Urtean, EAEko jarduera-tasa 57,4 izan zen (emakumeen % 52,0; gizonena % 63,2). 1991etik aurrera goranzko bilakaera izan da, batez ere emakumeak lan-merkatuari gehituz joan zaizkiolako, eta, hala, 1991ean jarduera-tasa % 38,5 bazen ere, 2015ean berriz % 52 izan da.

2. irudia.. EAEko jarduera-tasaren bilakaera, sexuaren arabera. Portzentajea



Iturria: Eustat. Populazioa eta jardueraren gaineko inkesta

25 eta 44 urte bitarteko lagunak dira biztanleria aktiboa osatzen duten gehienak (% 90,8), eta alde nabarmena hautematen da belaunaldien artean, zeren adinean gora egin ahala sexuen arteko etena handiagoa baita. Hain zuzen ere, 16 eta 24 urte bitarteko segmentuan, antzeko proportzioan ageri dira gizonak eta emakumeak lan-merkatuan

(% 29,7 eta % 29,5 hurrenez hurren). 25 eta 44 urte bitarteko segmentuan, berriz, gizonak baino zertxobait gutxiago ageri dira emakumeak (% 88,5 vs. % 93,0). Aldiz, 45 urtetik gorako segmentuan sexuen arteko etena askoz ere deigarriagoa egiten da, 13,6 puntuko, hain zuzen ere.

Langileen ondorengoen kopurua zenbat eta handiagoa ere handitzen da sexuen arteko etena: ondorengorik gabeko gizonen eta emakumeen arteko aldea 11,2 puntukoa bada ere, bi ondorengo edo gehiago dituztenen kasuan 13,6 puntukoa da alde hori.

2014. urtean % 49,1ekoa izan zen okupazio-tasa (16 urtetik gorako populazio aktibotik zer proportziok duen lana, norbere kontura dela zein besteren kontura dela), gizonak eta emakumeak batera hartuta. Horri dagokionez ere murriztu da azken urteetan sexuen arteko etena: 2014an aldea 8,9 puntukoa zen (% 44,2 emakumeen kasuan eta % 53,6 gizonen kasuan), duela ia 25 urte, berriz, 30 puntutik gorakoa zen aldea.


Instrukzio-maila ere lagungarria da lan-merkatura sartzeko: zenbat eta handiagoa izan prestakuntza-maila, orduan eta handiagoa da okupazio-tasa ere. Horrez gain, ikasketak izateak berdindu egiten ditu sexu bien okupazio-mailak; are gehiago, goi-mailako ikasketak dituztenen artean, emakumeek gizonazkoek baino okupazio-tasa handixeagoa dute (% 2,7 puntu ginetik).

Aipagarria da krisialdi ekonomikoa hasi zenetik hona handitu egin dela bi sexuen soldaten arteko etena: 2008ko % 23a % 25,2 bilakatu zen 2013an, INEk egiten duen Soldata Egituraren gaineko Inkestak dioenez. Desberdintasun horren arrazoiak dira, besteak beste, lanaldi partzialeko enplegua (gizonen artean halako sei da emakumeen artean), lanean ordain hobeko lanpostuetarako progresioa murriztagoa izatea, zaintza dela eta, eta oso feminizatuta dauden enpleguetan (merkataritza, garbikuntza...) ordainak txikiagoak izatea.

Denboraren erabilera. Argi geratu dira Denbora-aurrekontuei buruzko Inkestaren azken adierazleetan (2013) gizonen eta emakumeen denbora erabiltzeko ohituretan dituzten aldeak, gizarte-ohiturei eta eguneroko jardueri dagokienez.

Gizonen baino denbora gutxiago ematen dute emakumeek laneko eta prestakuntzako jardueretan, aisialdi pasiboan (irakurketa, telebista ikustea, ikuskizunak, jokoak eta arte alorreko zaletasunetan), halaber aisialdi aktiboan eta kiroletan (internet, ordenagailua, txangoak, kirola egiten).

3. irudia. EAEko gizon-emakumeen batez besteko denbora sozialaren banaketa (oo:mm) jarduera-multzo nagusien artean. 1993-2013 aldiko bilakaera.



Iturria: Eustat. Denbora-aurrekontuei buruzko Inkesta http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_77/opt_1/tipo_1/ti_Denbora-aurrekontuen_inkesta/temas.html


Oraindik ere gizonen baino denbora gehiago ematen dute emakumeek etxeko lanak egiten. Gizonen baino denbora sozialeko bi ordu gehiago ematen dute emakumeek, batez beste, etxeko eginkizunetan.

3. Emakumeen enplegua kultura-sektorean

Lan Merkatuko Zentsuaren (LMZ) datuek erakusten dutenez, 2011n, kultura-arloari lotutako EAEko biztanleria aktiboa 26.288 lagunera iritsi zen, eta horietatik % 15,6 lanik gabe zegoen. Multzo horretakotzat jo dira kultura alorreko jarduera ekonomikoren baten diharduten edo jardun duten 16 eta 64 urte bitarteko lagunak; ez dira halakotzat jo beren lehen enpleguaren bila dihardutenak, nahiz eta kultura-arloan bilatu lana. Beraz, 22.182 lagun zeuden jarduera kulturaletan okupatuta.

Gizonak dira nagusi sektorean, eta aldea are nabarmenagoa biztanleria okupatuari bakarrik erreparatzen badiogu, horretan emakumeak % 38,5 baitira. Esan beharra dago, halaber, kultura-alorrean okupatutako biztanleriaren soldata-etena % 19,4koa izan zela: emakumeek hileko 1.157 euro irabazi zituzten batez beste, eta gizonen, berriz, 1.434,9 euro.

4. irudia. Kultura sektorearekin lotutako jardura ekonomikoetan diharduen biztanleria aktiboaren eta biztanleria okupatuaren banaketa, sexuaren arabera. 2011. Portzentajea.




Iturria: Lan Merkatuko Zentsua 2011, Eusko Jaurlaritzako Enplegua eta Gizarte Politika Saila. <http://www.euskadi.eus/informazioa/lan-merkatuaren-errola-lme/web01-s2enple/eu/>

Kontratu erregistratuak eta lan-eskaera. Kultura-arloko jarduera ekonomikoetako kontratu kopuruak % 39,9 egin zuen gora 2011 eta 2015 bitartean, eta 2015ean 51.853 kontratu metatu ziren urte-amaieran. Nolanahi ere, errotazio handia izatea du ezaugarri sektoreak, aldi-baterako kontratu berriak % 98 baitira, gehienak —hamarretik sei, izan ere— egun batekoak edo laburragoak.

2011 eta 2013 bitartean emakumeei eginiko kontratuek eten gabe gora egin ondoren (% 48,4tik % 55,2ra), azken bi urtean behera egin zuen atzera eta % 46,8 izatera jaitsi ziren.


5. irudia. Kultura arloko jardueretan erregistratutako kontratu kopuruaren bilakaera sexuaren arabera. 2011-2015.



Iturria: Lanbide – Euskal enplegu zerbitzua. Eusko Jaurlaritza


Lanbiden kultura-alorreko moduan erregistratutako kontratuetan, emakumeak ugariagoak dira aisialdi, kultura eta kirol jardueretan eta idazle, kazetari eta hizkuntzalariei eginikoen artean.

6. irudia. Lanbiden kultura jardueretan egindako kontratuak.. Emakumeen ehunekoak. 2011-2015.



2011 eta 2013 bitartean, Lanbiden kultura-alorreko enplegu bila izena emandakoen kopuruak % 29,3 egin zuen gora, eta maximoa 2013ko abenduan izan zuen: 7.142 lagun. Harrezkero, azken bi urteetan, behera etorri da pixkanaka. Gizonezkoak baino ugariagoak dira emakumezkoak eskatzaileen artean.

7. irudia. Kultura arloko jardueretan erregistratutako eskatzaile kopuruaren bilakaera 2011-2015




Emakumeen enplegua arteetan eta kultura-industrietan

Kulturaren Euskal Behatokiaren Arteen eta Kultura Industrien gaineko Estatistikaren emaitzek ere utzi dute agerian langileen artean den desoreka, emakumeak gizonak baino gutxiago baitira (% 43,8).

Liburuaren eta ikus-entzunezkoen segmentuek dituzte emakume langile gehien, hamar langiletik sei.


Aldiz, musikan dira urrienak emakumeak (% 35,8), eta ikus-entzunezkoan hurrena (% 40,5). Gizonen eta emakumeen arteko oreka handiena, arte eszenikoen sektorean da, nahiz eta hemen ere ugariagoak izan gizonezkoak (% 53).

8. irudia. Urteko eta egun osoko lana duten langileak sexuaren eta sektorearen arabera. Emakumeak ehunekotan.2009-2013.



Eragileen titular nor den aztertuz gero, ikusten da emakumeak elkarte eta fundazioetan (% 57,6) eta jabetza pribatuko erakundeetan, non batezbestekoa % 48,2 baita, gailentzen direla.

9. irudia. Urteko eta egun osoko lana duten langileak sexuaren eta aeragileen titulartasunaren arabera. Emakumeak ehunekotan. 2009-2013.



4. Kultura-ohiturak: gizonen eta emakumeen arteko aldea

Kultura-ohituren gaineko inkestek egiaztatu dute kultura gehien kontsumitzen duten pertsonen batez besteko profila emakume gazte eta ikasiei dagokiela. Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioak egindako 2014-2015ko Kultura Ohitura eta Jardueri buruzko inkestak dioenaren

arabera, irakurzaletasuna zabalduago dago emakumeen artean gizonen artean baino: emakumeen % 66,5ek dio liburuak urtean behin irakurtzen dituztela gutxienez. Gizonetatik, berriz, % 57,6k bakarrik dio hori (irakurketa profesionala eta prentsa ez dira aintzat hartu). Halaber bisitatzeko emakumeek gizonen baino maizago liburutegiak (% 25,2 vs. % 20,2), eta berdin internet bidez (% 8,3 vs. % 7,5). Antzerkia edo dantza praktikatzeko dutenen artean ere, eta beste hainbeste halako ikuskizunetara joan ohi direnen artean, emakumeek parte-hartze handiagoa dute gizonen baino.

Zinemaren kasuan, emakumeek gizonen baino interes handiagoa izanagatik aretoetara joateko (Otik 10era bitarteko eskalan, emakumeak 6,8, gizonak 6,6), joan, maiztxoago joaten dira gizonak emakumeak baino (% 54,4 vs. % 53,6). Dena dela, aldea murriztu egin da edizio honetan aurreko edizioekiko. Ikusizko arteen kasuan, gizonen baino interes handiagoa erakusten dute emakumeek erakusketak, arte-galeriak eta museoak bisitatzeko. Erakusketak bisitatzeko ohituraren aldean ere badu isla interesa handiago horrek, gizonen eta emakumeen arteko aldea murriztagoia izanagatik ere.

EAEko kultura-ohiturei buruzko panela. Kulturaren Euskal Behatokiak oraintsu (2015eko abenduan) abiarazi zuen kultura-ohiturei buruzko panelaren lehen jasoaldia emaitzei erreparatuta, badira aldeak gizonen eta emakumeen artean. Kultura kontsumitu ohi duten 18 eta 37 urte bitarteko 204 lagunek osatua da Panela. Kultura-ohiturei buruzko inkestek diotenaren ildo beretik, emakumeek irakurzaleago eta arte eszenikoen zaleagoak dira, eta gizonen, berriz, musikazaleagoak.


Gehiago sakonduta, musika-kontzertuen eta bideojokoen kasuan izan ezik, emakumeek gizonen baino zaletasun handiagorekin praktikatzeko dituzte beren kultura-jarduerak. Alderik handiena urtean irakurritako liburu kopuruan (emakumeek gizonen halako bi irakurtzen dute ia) eta bideojoko kontsumoan (gizonen emakumeen halako bi kontsumitzen dituzte) hautematen da.



10. irudia. Azken urtean zenbat aldiz egin dituzten kultura praktika zenbait, sexuaren arabera. Bataz bestekoak.

Aldagaien batez besteko balioak

Kategoria: 1=Behin ere ez azken urtean, 2=Behin, 3=Bitan, 4=Hiru-bost aldiz, 5=Bostetan baino sarriago




Zinemari dagokionez, azpimarragarria da azken urtean 5 aldiz baino sarriagotan joan direla dioten emakumeen proportzio altua (% 39,2, hain zuzen ere).


11. irudia. Azken hilabetean zenbat aldiz egin dituzten kultura praktika zenbait, sexuaren arabera.. Bataz bestekoak.

Aldagaien batez besteko balioak

7 Kategoria: 1=Inoiz ez, 2=Hilean behin baino bakanago, 3=Hilean behin, 4=DHilean bizpahirutan, 5=Astean behin, 6=Astean behin baino sarriago, 7=Egunero




12. irudia. Azken urtean zinera joandako pertsonak eta ikusitako pelikula kopurua bataz beste, sexuaren arabera.. Ehunekoak eta bataz bestekoak. 2015.




Erakusketak bisitatzea jarduera bakanagoa eta minoritarioagoa da. Deigarri egiten da azken urtean erakusketarik bisitatu ez duten emakumeen portzentajea (% 24,5), are deigarriago kontuan izanda lagina kultura kontsumitu ohi duten pertsonak osatua dela.

13. irudia. Azken urtean erakusketetara joandako pertsonak eta ikusitako erakusketa kopurua bataz beste, sexuaren arabera.. Ehunekoak eta bataz bestekoak. 2015.




la ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean erakusketetan nahiz zineman izandako bizipenek eragindako aseari dagokionez, ez eta horiek errepikatzeke asmoan ere, nahiz eta emakumeek beti gizonek baino gehiago estimatzen dituzten.

14. irudia. Esperientziarekiko asebetetze mailaren bataz bestekoa, sexuaren arabera. (Eskala: 1-10 bitartean). 2015.




15. irudia. Izandako esperientzia berriz izateko prest direnak, sexuaren arabera. Portzentajea. 2015.



Arte plastikoetan, marrantetan nahiz margogintzan, eta dantzan ere gehiago jarduten dute emakumeek gizonek baino. Musikan eta ikus-entzunezkoan, aldiz, gizonak maizago aritzen dira.

16.irudia. Kultura jarduera aktiboetan parte hartzen duten pertsonak, sexuaren arabera. Portzentajea. 2015.



5. Genero-berdintasunari buruzko iritziak, sektorean bilduak


Kulturaren Euskal Behatokiak EHUrekin batera 2014-2015 epean balio-katearen egoera aztertzeko egindako inkestan, kultura sektore guztietako 93 adituk, besteak beste, genero-berdintasunari buruzko hiru itemi erantzun zieten. Inkesta osoan bezalaxe, haiekiko adostasuna edo desadostasuna adierazteko eskatu zitzaizen, 0 eta 10 bitarteko eskala bati jarraituta.

Adierazgarriak izan ziren emaitzak, bi arrazoiengatik, izan ere: batetik, zeren, kasurik onenean, doi-doi onar bailiteke egoera (egiteko asko legokeela, alegia); bestetik, emakumeen balorazioa gizonena baino ezkorragoan delako.


Inkestaren atal gehienetan ikusitakoarekin bat, politika publikoekin lotutako kontuek jaso dute balorazio txikiena atal honetan ere. Hala, galdetuta ea 'Kulturako sailen edo arloen politikek genero-diskriminazio positiboa aplikatzen duten', adostasun maila 4,1ekoa zen emakumeen artean eta 5,0, berriz, gizonen artean. Gizonen eta emakumeen iritziak 'Aintzat hartzen da genero-berdintasuna sorkuntzatik eta ekoizpenetik banaketara eta hedapenera igarotzeko urratsean' baieztapenarekiko adostasunean ageri dira desberdinen, 5,4 vs. 4,6.



17. irudia. Genero berdintasunari buruzko galderen emaitzak, sexuaren arabera. Bataz besteko aritmetikoa (Eskala: 0-10 bitartean).



18. irudia. Genero berdintasunari buruzko galderen emaitzak, emakumeen jaiotze hamarkadaren arabera. Bataz besteko aritmetikoa (Eskala: 0-10 bitartean).



Inkestari erantzun zioten emakumeen iritziak norberaren belaunaldiaren argitara aztertuz gero, ikusiko dugu alde nabarmenak direla, baikorrenak izanik 60ko hamarkadakoak eta etsikoienak, berriz, 70eko hamarkadan jaiotakoak.



II. Atala

Ikusizko arteak

II.I. Azterketa kuantitatiboa - 19

II.II. Iritzi artikulua - 46

II.III. Lantaldean eztabaidatutako proposamenak - 56



II.I. Azterketa kuantitatiboa

1. Unibertsitate-mailako prestakuntza - 20

2. Testuingurua sortzen laguntzeko programak - 20

2.1. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak ikusizko arteetarako eta arte plastikoetarako - 21

2.2. Eremuak - 25

2.3. Bekak eta egonaldiak - 27

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - 27

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - 28

BILBAOARTE - 28

2.4. Artista hasiberriak ikusarazten laguntzeko programak - 29

ERTIBIL-BIZKAIA - 29

ARTISTA HASIBERRIEN PROGRAMA - 31

GETXOARTE - 31

3. Gure Artea saria - 32

4. Trukeko eta kanpo-mugikortasuneko programak - 37

WROCLAW-DONOSTIA EGONALDIA - 37

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN LAGUNTZAK - 38

TABAKALERAKO EGONALDIAK - 39


5. Museoak eta arte-zentroak - 39

6. Laburpen gisa - 44

1. 1. Unibertsitate-mailako prestakuntza


Arte Ederren Fakultateko emakumezko ikasleen kopuruak azken urteotan goranzko joera erakutsi du; lehendik ere gizonazkoena baino handiagoa bazen ere, gaur egun hamar matrikulatik 7koa da.

1. irudia. Arte Ederren Fakultateko emakumezko ikasleen kopuruaren bilakaera. Ehunekoa



Humanitateen kasuan oro har gertatzen den bezala, emakumeak erakartzen dituzte nagusiki bai Arte Ederren fakultatean eskaintzen diren hiru graduek (Arteak, Ondasun Kulturalen Kontserbazioa eta Leheneratzeak zein Sorkuntza eta Diseinuak), bai Artearen Historiak.

2. irudia. Ikusizko arteei lotutako gradu-titulazioen banaketa sexuaren arabera. 2013-2014 ikasturtea.



2. Testuingurua sortzen laguntzeko programak

Administrazio publikoek ikusizko arteei laguntzeko eta horiek sustatzeko bideratzen dituzten diru-laguntza programei, bekei, egonaldiei eta erakusketei buruzko informazioa ekarri da atal honetan. Ezaugarriak eta eskakizunak ugariak izanik, bat bera dute ekimen horiek guztiek helburua: arteen bilbea sendotzea eta ikusizko arteen inguruan testuinguru egokia sortzen laguntzea.

Programa gehienetan jasotako eskaerak zein emandako laguntzak eta balorazio-batzordeen osaera aztertu dira, hartara emakumezko artistek halako programetan duten presentzia kuantifikatzeko. Azterketak azken hiru urteak izan ditu kontuan (2013-2015), eta inoiz, posible izan denean, 2016 bera ere bai.

Aurrena, Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen bi laguntza-programak xehe aztertu dira: ikusizko arteei eta arte plastikoei laguntzekoa eta Eremuak, hain zuzen ere. Hurrena, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien eta BilbaoArteren bekei eta egonaldiei buruzko informazioa eskaini da.

Kapitulua osatzeko, artista hasiberriak ikusarazteko hiru laguntza-programei buruzko datuak ekarri dira (Ertibil-Bizkaia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren artista hasiberrien programa eta Getxoarte).

2.1. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak ikusizko arteetarako eta arte plastikoetarako

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatua da programa hau, sektore pribatuak Arte Plastikoen eta Ikusizko Arteen alorrean sustatzen dituen ekintzei laguntzeko aukera ematen duen bide bat taxutzearren. Asmoa da ikerkuntza, obra artistikoen ekoizpena, eta euskal artisten sormen-lana sustatzea; halaber horien jarduera artistikoari aintzat hartua izateko aukera ematea.

Hiru modalitate aurreikusi ditu Arte Plastikoen eta Ikusizkoen arloan jarduerak sustatzeko eta gauzatzeko laguntza-deialdiak:

■ **SUSTATZEKO ETA ZABALTZEKO** modalitatea. Bi helburutarako laguntzak dira. Alde batetik, EAEko zentro kulturalen egitekoak diren arte garaikideko ekitaldiak edo adierazpenak antolatzeak nahiz horietan parte hartzeko, horietan EAEn bizi diren autoreen proiektu edo lanak edo euskarri dokumentalak erakusten edo zabaltzen direlarik. Bestetik, EAEn gauzaten

diren arte garaikidearen gaineko sentsibilizatzeko-adierazpideei laguntzea, euskarri dokumentalak barne hartuta kasu honetan ere. Modalitate honetara diru-laguntza deialdiaren aurrekontu osoaren % 19 ingurua bideratzen da.

■ **ARGITARATZEKO** modalitatea. Xedea Euskal Autonomia Erkidegoko arte garaikidea zabaltzea eta bertako artistak eta haien lana sustatzea duten argitalpenak hainbat euskarritan egiten laguntzeko. Modalitate honetarako diru-laguntza deialdiaren aurrekontu osoaren % 23 gordetzen da.

■ **SORTZEKO ETA EKOIZTEKO** modalitatea. Arte plastiko eta ikusizkoen sorkuntza-ekoizpenaren eremuan proiektuak egiteko: arte-lanak ekoiztea eta ikertzea. Modalitate honetara bideratzen dira baliabide gehienak, zehazki, deialdiaren aurrekontu osoaren % 58.

Horietan guztietan aztertu da zenbat eskaera egin ziren, zenbat eta zenbateko diru-laguntzak eman ziren eta 2013 eta 2015 bitartean deialdia ebatzi duen balorazio-batzorde teknikoaren osaera.

Nabarmendu behar da sortzeko eta ekoizteko modalitatean bildu dela programa osoaren jarduera gehiena: eskaeren % 68 eta emandako laguntzen % 65,5.

3. irudia. Arte Plastikoen eta Ikusizkoen alorreko diru-laguntza eskaeren banaketa, urtearen eta modalitatearen arabera (kopuru absolutua eta ehunekoa). 2013-2015.


Urtea	Kop. absolutuak			%		
	Argit.	Prod.	Hed.	Argit.	Prod.	Hed.
2013	35	102	14	23,2	67,5	9,3
2014	33	82	7	27,0	67,2	5,7
2015	32	92	9	24,1	69,2	6,8
Guztira	100	276	30	24,6	68,0	7,4

4. irudia. Arte Plastikoen eta Ikusizkoetan emandako diru-laguntzen banaketa, urtearen eta modalitatearen arabera (kopuru absolutua eta ehunekoa). 2013-2015.

Urtea	Kop. absolutuak			%		
	Argit.	Prod.	Hed.	Argit.	Prod.	Hed.
2013	9	22	6	24,3	59,5	16,2
2014	14	37	3	25,9	68,5	5,6
2015	13	36	5	24,1	66,7	9,3
Guztira	36	95	14	24,8	65,5	9,7

Eskaerak. Azterketa eskaeretara mugatuta, aurkitu dugu hamarretik lau inguru emakumeek eginak direla, eta proportzio hori urritu egiten dela urteek aurrera egin ahala (% 14,7 gutxiago 2015ean 2013an baino). Gizonezkoen dagokienez, proportzio-jaitiera hori kasu horretan ere gertatzen bada ere, ez da hain nabarmena (% 9,6 gutxiago 2015ean 2013an baino).

5. irudia. Arte Plastiko eta Ikusizkoetarako diru-laguntzen eskaerak, sexuaren arabera banatuta. 2013-2015.



— Emakumeak — Gizonak


6. irudia. Arte Plastiko eta Ikusizkoetarako diru-laguntzen eskaerak, sexuaren eta urtearen arabera banatuta. 2013-2015.

Urtea	Emakumeak	Gizonak
2013	45,0%	55,0%
2014	49,2%	50,8%
2015	43,6%	56,4%
Guztira	45,8%	54,2%

Emakumeen presentzia modalitatez modalitate erreparatuz gero, ikusten da zabaltzeko laguntzen eskaerak goranzko joera dutela. Kontuan izan behar da, hala ere, emakumeen presentziaren gorakada pertzentual hori ez dela kopuruak gora egin izanaren ondorioa, baizik eta gizonek egindako eskaerak % 70 urritu izanaren ondorioa (kopuru absolututan, 2013an zein 2015ean 7na eskabide egin zituzten emakumeek, eta gizonak, berriz, 2013an 7 aurkeztetik 2015ean 2 aurkeztera pasatu ziren).

Aipatutako joera hori grafikoki ikusteko, hurrengo irudietan ipini da eskaerak nola banatzen diren sexuaren arabera, bilakaera eta diru-laguntzen modalitatea aintzat hartuta.


7. irudia. Arte Plastiko eta Ikusizkoetan eginiko eskaeren banaketa, sexuaren eta modalitatearen arabera, urteka. 2013-2015.






Ekoizteko eta argitaratzeko eskaerak behera egin dute azkenaldian, emakumeen kasuan zein gizonen kasuan. Emakumeen ekoizteko eskaerak %16,7 urritu ziren 2013 eta 2015 bitartean, eta argitartzeak, berriz, %15,4; gizonen dagokienez, %3,7 eta %4,5 urritu ziren, hurrenez hurren. Ondoko irudian adierazi da emakumeek bi modalitate horietan izan duten presentzia-galera.

8. irudia. Emakumeek Arte Plastiko eta Ikusizkoetan eginiko eskaeren bilakaera, modalitatearen arabera. 2013-2015.



Emandakoak. Emandako laguntzen azterketak erakusten du hamarretik lau inguru emakumezko artistei eman zaizkiela, oro har.

9. irudia. Arte Plastiko eta Ikusizkoetarako emandako diru-laguntzak, sexuaren arabera banatuta. 2013-2015.




Emakumeak Gizonak

10. irudia. Arte Plastiko eta Ikusizkoetarako diru-emandako diru-laguntzak, sexuaren eta urtearen arabera banatuta. 2013-2015.

Urtea	Emakumeak (%)	Gizonak (%)
2013	37,8	62,2
2014	53,7	46,3
2015	51,8	48,2
Guztira	45,8	54,2

Emandako laguntzen bilakaeraren azterketak erakusten du badela parekotasunerako joera bat. 2013an, emakumeen presentzia gizonena baino bi puntu azpikoa zen. Haatik, bada orekarako joera urteek aurrera egin ahala. Ikusi beharko ea etorkizunean eusten dien oraingoz parekide ageri diren datuei.

11. irudia. Arte Plastiko eta Ikusizkoetan emandako diru-laguntzak, sexuaren arabera banatuta. 2013-2015.



SORTZEKO eta EKOIZTEKO modalitatea. Bi arrazoi izan ditugu modalitate hau xehetazunez aztertzeko: alde batetik, hiru modalitateen artean aurrekontu-zuzkidurarik handiena jaso duelako; bestetik, diru kopuruak hiru tartetan banatuak izateak aukera ematen duelako, bakoitzean, emakume artistak zenbatekoaren arabera zer leku hartzen duten.

Hala, 2015eko deialdian, 36 diru-laguntza eskaini ziren, honela banatuta:

- a) 5.000 euroko 20 diru-laguntza
- b) 8.000 euroko 13 diru-laguntza
- c) 12.000 euroko 3 diru-laguntza

Jarraian aurkezten diren datuek fenomeno bitxi bat utzi dute agerian: zenbat eta aurrekontu handiagoa izan, orduan eta emakumezko eskatzaile gutxiago. Izan ere, 5.000 euroko hamar diru-laguntzatik bost, 8.000 euroko hamar diru-laguntzatik lau eta 12.000 euroko hamar diru-laguntzatik hiru eskatzen dituzte emakumeek. Kontuan izan behar da, halaber, zenbat eta aurrekontu handiagoa izan, orduan eta laguntza-kopuru txikiagoa eskaintzen dela.

12. irudia. Eskatutako diru-laguntzak, sexuaren eta lagun daitekeen zenbatekoaren arabera banatuta. 2013-2015.

Diru-laguntzaren zenbatekoa	Kop. absolutuak			% (errenkadak)			% (zutabeak)		
	Ema.	Giz.	Guztira	Ema.	Giz.	Guztira	Ema.	Giz.	Guztira
5.000	75	61	136	55,1	44,9	100,0	59,5	40,7	49,3
8.000	43	68	111	38,7	61,3	100,0	34,1	45,3	40,2
12.000	8	21	29	27,6	72,4	100,0	6,3	14,0	10,5
Guztira	126	150	276	45,7	54,3	100,0	100,0	100,0	100,0


Emandako diru-laguntzetan neurri handi batean atxiki dira eskaeretan aurkitutako portzentajeak, emakumeei zertxobait lagunduta gainera.

13. irudia. Emandako diru-laguntza, sexuaren eta emandako kopuruaren arabera

Diru-laguntzaren zenbatekoa	Kop. absolutuak			% (errenkadak)			% (zutabeak)		
	Ema.	Giz.	Guztira	Ema.	Giz.	Guztira	Ema.	Giz.	Guztira
5.000	30	21	51	58,8	41,2	100,0	61,2	45,7	53,7
8.000	17	20	37	45,9	54,1	100,0	34,7	43,5	38,9
12.000	2	5	7	28,6	71,4	100,0	4,1	10,9	7,4
Guztira	49	46	95	51,6	48,4	100,0	100,0	100,0	100,0

Batzorde teknikoa Bekak nola banatu erabakitzen duen epaimahaiaren osakeraren paritatea bermatuta egon da aztertutako hiru urteetan (2013-2015): batzordekideen erdiak gizonak ziren eta beste erdiak emakumeak.

14. irudia. Batzorde teknikoaren osiera sexuaren arabera. 2013-2015.



2.2. Eremuak

Eusko Jaurlaritzak arte plastiko eta ikusizkoen gaineko bere politika kulturalaren jardun-eremua abian jartzeko proposamen bat da Eremuak, gaur egungo testuinguru optimizatzekeo programa ireki eta jarraitu baten bitartez gauzatu beharrekoa. Euskal Herrian arte garaikidearen espazio korapilatsua kohesionatzeko gauza den ikuspegi sistemiko baten alde diharduten kontestualizazio-prozesuei ekitea eta sustatzea du helburu nagusia.

Lehen aztertu diren sorkuntzaren eta zabaltzearen aldeko laguntza-politika osatu nahi da, horretarako laguntzeko egitura bat baliatuta, gizartearen barruko artearen testuinguru orokorraren zein artearen tokiko testuinguru artearen sistema globalaren testuinguruaren ikuspegi estruktural edo sistemiko batekin. Esan nahi baita, aktibo diren programak eta etorkizunean susta litezkeenak berriz aztertzea. Programa irekia da, ez baitote eragiten lurralde-murrizketek, ez sortze-murrizketek, autore-murrizketek edo diziplinak eragindakoek ere, hartara zeharo ikusgaitasun inkluienterako espazioa eskaintzen die praktika guztiei, posizionamendu guztiei eta horiei eusten dieten eta horiek sustatzen dituzten diskurtsoei.

2010 eta 2015 bitartean lagundutako proiektuak eta deialdi haietako balorazio-batzordeak aztertu ditugu hemen.


15. irudia. Eremuak programan analizatutako proiektu-kopurua. 2010-2015.

Urtea	Proiektuak	Urtea	Proiektuak
2010	10	2013	15
2011	4	2014	17
2012	10	2015	15
Guztira			

Hautatutako proiektuak. Eremuak programan hautatutako proiektuak hiru kategoriatan sailkatuak dira: sorkuntza artistikoa, interpretazioa eta artekaritza. 2010 eta 2015 bitarteko kategorია horiek guztiak aztertu dira.

Oro har, hautatutako hamar proiektutik lau, emakumezko artistek eginak dira. Datuak kategoriaka aztertuz gero, ikus daiteke emakumeak interpretazioan ageri direla ugarien (% 63,3), eta sorkuntza artistikoan hurrena (% 43,5), eta askoz ere urriagoak direla artezkaritzan (% 10,0).

16. irudia. Proiektuak, sexuaren arabera banatuta. 2010-2015.



— Emakumeak — Gizonak

17. irudia. Proiektuak, sexuaren eta motaren arabera banatuta. 2010-2015.


Proiektu-mota	Emakumeak	Gizonak
Sormen artistikoa	43,5%	56,5%
Interpretazioa	63,6%	36,4%
Artekaritza	10,0%	90,0%

18. irudia. Proiektuak, sexuaren eta urtearen arabera banatuta. 2010-2015.

Urteak	Proiektuak		%	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
2010-2011	5	6	45,5	54,5
2012-2013	5	6	45,5	54,5
2014-2015	8	14	36,4	63,6
Guztira	18	26	40,9	59,1


Sexuaren banaketari epe osoan erreparatuz gero, ikus daiteke ezen 2013az geroztik badela emakumeen presentziak bere horretan irauteko eta gizonezkoenak gora egiteko joera; alegia, emakumeek egindako proiektuen kopuru bertsua hautatu zen, baina gizonek egindakoen kopuruak gora egin zuen aldi berean. Hurrengo irudian hauteman daiteke joera hori: 2013 baino lehen, emakumeen presentziak gora zetorren, baina azken urteetan behera egin du.

19. irudia. Proiektu hautatuak, sexuaren eta urtearen arabera banatuta. 2010-2015.




Batzorde teknikoa. Eremuak programaren baitan zein proiektu hautatuko diren erabakitzen duen epaimahaian gizonak dira nagusi: hamar kideetik lau besterik ez dira emakumeak.

20. irudia. Batzorde teknikoaren osiera, sexuaren arabera. 2010-2015.



Epaimahaiaren osakeraren bilakaera aztertuta, ikus daiteke gizonak izan direla nagusi 2010 eta 2012 bitartean: hamar kideetik sei. 2013. urtean ordea, joera aldatu egin zen eta hamar mahaikideetik zazpi emakumeak izan ziren. 2014an kopurua berdintze lortu zen eta epaimahaia zeharo parekidea izan zen. Haatik, 2015ean lehengo egoerara itzuli zen, gizonak nagusi hain zuzen, hamar epaimahaikideetik hiru besterik ez baitziren izan emakumeak.

21. irudia. Epaimahaiaren osiera sexuaren eta urtearen arabera. 2010-2015.



2.3. Bekak eta egonaldiak

Bizkaiko Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta BilbaoArteren beka- eta egonaldi-programen emaitzak aurkezten dira atal honetan.


Erakunde horiek beren webguneetan hedatzen duten informazioa miatu da horretarako; beraz, horien informazio publikoaren azterketa da.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA Bizkaiko Foru Aldundiak arte eta kultur arloko sormenaren eta ikerkuntzaren interpretazio-tekniken hedapena sustatzea, eta kultura-arloan prestakuntza, hobekuntza eta espezializazioa ahalbidetzea ditu helburu. Ikusizko arteen kasuan, sormen artistikoko proiektuak egitea izango da beka-deialdiaren helburua, eta proiektu horiek zentro mota guztietan egin ahal izango dira, estudio partikularretan barne, eta nonahi.

2013az geroztik, ia % 20 egin du gora emakumezkoen presentziak beka hauetan, eta hamar eskaeratik bost izatetik hamarretik ia zortzi izatera pasatu da.

22. irudia. Beka-eskaerak, sexuaren arabera banatuta. 2013-2016.

Urtea	Kop. absolutuak		%	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
2013	16	13	55,2	44,8
2014	14	11	56,0	44,0
2015	21	12	63,6	36,4
2016	19	5	79,2	20,8
Guztira	70	41	63,1	36,9



Arreta ezetsitako eskabideei soilik emanez gero, ikusten da emandakoen artean den proportzioa eskabideen artean denaren arabera dela; ez da aparteko alderik hautematen eskabideen eta ezetsitako nahiz onetsitako beken artean.

23. irudia. Emandako eta ukatutako beken banaketa, sexuaren arabera. 2013-2016.

	Kop. absolutuak			%		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Ezetsiak	40	26	66	60,6	39,4	100,0
Onetsiak	30	15	45	66,7	33,3	100,0
Eskatuak, guztira	70	41	111	63,1	36,9	100,0


Beketan eskatutako kopuruei dagokienez, azken urteetan emakumeen artean handiagoa izan bada ere, urteak banaka hartuz gero ez da patroia nagusirik hautematen. Ez dirudi eskatzaileen sexuak zerikusirik duenik eskatzen den zenbatekoarekin. Halaber, ez dago ondorioztatzerik artistaren sexuak zerikusia duenik emandako beken zenbatekoarekin.

24. irudia. Eskatutako eta emandako laguntzen batez besteko balioa, sexuaren arabera banatuta. 2013-2016.

Urtea	Eskatua			Emana		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2013	5.969,0	9.000,0	6.520,1	4.840,7	4.942,0	4.859,1
2014	10.456,3	6.106,0	8.039,4	6.225,0	5.368,5	5.749,2
2015	6.260,8	8.000,0	6.795,9	3.828,3	3.696,3	3.787,7
2016	9.184,3	6.005,5	8.124,7	3.881,3	4.730,6	4.164,4
Guztira	7.512,2	6.970,1	7.331,5	4.465,7	4.695,6	4.542,3

Epaimahaia Balorazio-batzordeen osieran emakumeek zer pisu duten ere esanguratsua da. Ondoren dakargun irudian hauteman daiteke azken urteotan goranzko joera izan dela emakumeen proportzioari dagokionez: 2015ean ia % 50era iritsi zen eta 2016an, berriz, ia % 60ra.

25. irudia. Bizkaiko Foru Aldundiaren beken epaimahaiaren osiera, sexuaren arabera. 2013-2016.




GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA Gipuzkoako Foru Aldundiak ere badu beka-programa bat musikaren, dantzaren, arte dramatikoaren, ikusizko arteen eta erakusketen komisariotzaren arloetan prestakuntza espezializaturako.

2013-2016 aldian, beren beregiz ikusizko arteentzat zuzendutako bost beketatik, lau emakumeei eman zaizkie.

BILBAOARTE BilbaoArte ekoizpen artistikorako zentro bat da eta Bilboko Udalaren Kultur Sailari lotuta dago. Sortzaile gazteen eskura jartzen ditu beharrezko bitarteko eta azpiegitura euren egitasmo artistikoak garatzeko. Halaber banatzen ditu proiektu artistikoak garatzeko bekak.


BilbaoArtek argitaratutako datuek erakusten dute bere laguntzak parekide banatzen dituela ia. Hurrengo irudian ikus daitekeenez, urtetik urterako bariazioa gora-behera, % 40 eta % 60 bitartean dabilza sexu bien proportzioak.

26. irudia. Emandako bekak, sexuaren arabera banatuta. 2012-2016.




Beken banaketa estuago aztertuta, hauteman da emakumeak ugariagoak direla espaziorik gabeko modalitateko beketan (hamarretik sei); aldiz, lankidetzako beketan gizonen arteko artistak dira nagusi (hamarretik zortzi).

27. irudia. Beka-modalitateak, sexuaren arabera banatuta. 2012-2016.



Epaimahaia BilbaoArteko epaimahaia maskulinoak dira gehien bat; hamar kidetik hiru besterik ez dira emakumeak, eta joera beherakorra da. 2016an hamar kidetik 2,5 baizik ez ziren emakumeak izan.

28. irudia. BilbaoArteko beken epaimahaikideak, sexuaren arabera banatuta. 2013-2016.



2.4. Artista hasiberriak ikusarazten laguntzeko programak

Atal honetan artista hasiberriei, haien ikusgaitasunari zehazki, haien lanen erakusketak eta ekitaldiak antolatuz laguntzen dieten programak aztertu dira.

Hala, Ertibil-Bizkaia programa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren artista hasiberrien programa eta Getxo Arte programa aztertu dira.

ERTIBIL-BIZKAIA Ikusizko arteen erakusketa ibiltariak gehienez ere 20 artelan (pintura, eskultura, grabatua, argazkigintza eta DVD-bideoa) biltzen ditu, Bizkaiko Udal Erakusketa Aretoetan erakusten da eta ikusizko arteak Bizkaian zabaltzea eta sustatzea du helburua, Bizkaiko artista hasiberrien sormenezko ekimenei lagunduz.



Erakusketa ibiltarira gehitzeaz gain, artelan bat hautatzeak 2.000 euroko laguntza dakarkie autoreei, eta badira hiru sari berezi ere (3.000, 4.000 eta 5.000 eurokoak).

2013 eta 2016 bitarteko datuak aztertu dira, 374 eskabide² guztira (% 56,9 emakumeek eginak eta % 43,1 gizonak eginak).


29. irudia. Jasotako eskabideak, sexuaren arabera banatuta. 2013-2016.

Urtea	Kop. absolutuak		%	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
2013	59	62	48,8	51,2
2014*	8	8	50,0	50,0
2015	72	43	62,6	37,4
2016	74	48	60,7	39,3
Guztira	213	161	56,9	43,1

* Ez dira aintzat hartu 2014ko eskabide ezetsiak, hautatutakoak bakarrik hartu dira aintzat.

Urteek aurrera egin ahala gora doa emakumeen presentzia. 2013an, eskabideen % 48,8 aurkeztu zituzten emakumeek; 2016an, berriz, hamarretik sei (% 60,7) izan ziren.

30. irudia. Eskabideen bilakaera, sexuaren arabera. 2013-2016.



Hautatutako lanei buruzko datuak aztertuta, ikusi da berean diruela emakumeek egindako obren proportzioaren goranzko joerak. Aipagarria da sari bereziei dagokienez: horien % 75 (3.000, 4.000 eta 5.000 eurokoak) eman zaizkie emakumeei.

31. irudia. Hautatutako obren banaketa sexuaren eta zenbatekoaren arabera. 2013-2016.

Zenbatekoa	Emakumeak	Gizonak
2.000	57,8	42,2
3.000-5.000	75,0	25,0
Eskaera guztietan	56,9	43,1

Ezetsitako eta emandako diru-laguntzen gaineko datuek berretsi egiten dute emakumezko artistek egindako lanen pisua. Emakumeei ukatutako laguntzen kopurua batez besteko balioaren azpitik dago, eta emandakoena, berriz, haren gainetik. Eskabideen % 56,9 emakumeek eginak dira eta emandakoen artean, berriz, % 60,5koa da emakumeen proportzioa.

² Kontuan izan behar da ezin izan direla jaso 2014ko datu guztiak. Urte horri dagokionez, emandako laguntzak baino ez dira hartu aintzat, eskabideak ez.

32. irudia. Ezetsitako eta onetsitako eskabideak, sexuaren arabera banatuta. 2013-2016*.


	Kop. absolutuak		%	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Ezetsiak	167	131	56,0	44,0
Onetsiak	46	30	60,5	39,5
Eskatuak, guztira	213	161	56,9	43,1

* Ez dira aintzat hartu 2014ko eskabide ezetsiak, hautatutakoak bakarrik hartu dira aintzat.

Epaimahaia Ertibil programako epaimahaiaren osaera parekidea izan da 2013an eta 2014an. Harrezkero gutxitu egin da emakumeen presentzia eta hamar mahaikidetik hiru besterik ez dira emakumeak; 2016an, berriz, irauli egin da proportzioa eta gizonak gutxitu dira.

Hori horrela, badira gorabeherak epaimahaiaren osaeran, baina oreka-puntura itzultzeko joera ere bada.

33. irudia Ertibil epaimahaiaren osaeraren bilakaera, sexuaren eta urtearen arabera. 2013-2016.



artista hasiberrien programa Zazpi artista hasiberriren lana hautatu eta sustatu egiten da programa honen bitartez. 2013-2014tik aurrera, finalisten ohiko erakustaldia, non hogeit finalisten obra bana aurkezten baitzuten, erakusketa batez ordeztu da. Lehengo formula utzita, oraingoan beren lana sakon erakutsi nahi duten zazpi artistaren lanak batera aurkezten dira.

2013-2014 aldian bi emakumezko artista hautatu ziren erakusketarako, eta, horrez gain, ekoizteko hautatutako hiru proiektuetatik, bi emakumek osatutako kolektibo batena da bat. 2015-2016 aldian, berriz, hautatutako zortzi parte-hartzaileetatik bost izan ziren emakumeak. Gainera, bi epaimahaikideak dira emakumeak.

GETXOARTE Ekimen horren bitartez artea eta praktika garaikideak edozein adierazpenetan bultzatu, hedatu eta sustatu nahi da. Artelanak erakutsi ez ezik, hautatzen diren artistei beren lehen urratsetan gidatu, lagundu eta aholku eman ere egin nahi zaie. Horrekin guztiarekin, ikaste-prozesu bati bultzada eman asmo dio Getxoartek, hartara sortzaileek beren piezak kondizio profesionaletan erakusteko erronkari hel diezaioten, sortze-prozesuari buruzko gogoeta egin dezaten eta banatze-kanalekin, artekariekin, ikusleekin eta merkatuekin harremana egin dezaten.


Beren ibilbidearen hasieran dauden artistak dira programaren jomuga, ordezkari komertziala dutenak zein halakorik gabeak. Hemezortzi urtetik gorako sortzaileek hartu ahal dute parte, Euskal Herrikoak bertakoak nahiz kanpokoak. Hautatzen diren proposamenen % 80 bertakoenak izango dira, eta gainerako % 20 Espainiakoenak. Erakusteko hautatzen diren obretan, 2.000 euroko saria emango zaio bati, eta Arabako Artium Museoa dagoen Getxoarte bildumara gehituko da.

Hautatzen diren artisten artean emakumeek duten proportzioa urritu egin da 2013tik hona, % 61,3tik % 45,2ra igaro baita. Epaimahaiari dagokionez, alde nabarmena dago aztertu diren bi urteen artean (2015 eta 2016); emakumeak % 66,6 izatetik ordezkari ez izatera pasatu da.

34. irudia. Hautatutako artistak sexuaren arabera banatuta. Ehunekoa 2013-2016.

Urtea	Emakumeak	Gizonak
2013	61,2	38,8
2015	54,8	45,2
2016	45,2	54,8
Guztira	54,9	45,1

35. irudia. Getxoarteko epaimahaikideak sexuaren arabera banatuta. 2013-2016.



3. Gure Artea saria

Gure Artea saria da EAEn ikusizko artistei ematen zaien aintzatespenik behinena. Gure Artea sariari buruzko datuak aztertu ahal izateko, aintzat hartu behar dira haren oinarrietan saria sortu zenetik hona izandako aldaketak. Aldatuak dira bai aldikotasuna, bai ikusizko arteen baitan aintzat hartutako arloak.

1982an sortua, hasiera batean eskultura, pintura eta grabatua aurreikusten zituen diziplinatzat. 1989an argazkigintza gehitu zen eta oinarrietan gerora (1996an) egindako aldaketen ondorioz arte plastikoetan edozein aukeratu ahal dira gaur egun.

1996tik aurrera bi urtetik behin egiten da deialdia. Hala, 1998an berriz egin zenean ikusizko arteak gehitu zitzaizkion Gure Artea sariari. 2000. urtean berriz aldatu ziren oinarriak eta arte plastikoetarako baizik ez zen deitu saria, eta 2004an berriz gehitu zitzaizkion ikusizkoak. Hala egin ziren 2006ko eta 2008ko deialdiak.

Hurrengo deialdian, 2010ean, saria arautzeko oinarriak erabat aldatzea planteatu zen, eta 2011n atera zen deialdia. Harrezkero urtero egiten da deialdia eta arte plastiko eta ikusizkoetako hiru modalitate ageri dira oinarrietan:

- Ibilbide artistikoa aintzatesteko saria. Lan eta ibilbide osoa aintzat hartuta, egindako lan sortaileagatik eta kulturari eta arte garaikideei egindako ekarpenagatik nabarmendu den artista aitortzeko saria.
- Sormenezko jarduera aintzatesteko saria. Beren jarduera artistiko eta sortailean nabarmendu diren eta sorkuntza garaikideari ekarpena egin duten artista eta kolektiboentzat.
- Ikusizko arteen arloan edozein eragilek eginiko jarduera aintzatesteko saria. EAEko arte plastiko eta ikusizkoen arloan egindako ekarpenagatik, dela horiek sustatzeko jarduerak egiten, dela kulturaren balio-katearen

faseetako batean eginiko ekarpenetan, nabarmendu diren pertsona fisiko nahiz juridiko, publiko zein pribatu ororentzat. Aintzat hartu ahal izango da ibilbide osoa edo, bestela, azken urteotan egindako programa edo proiektu konkretuak.

Gure Artea sariari dagokionez, saria jasotzeko 2002 eta 2008 bitartean aurkeztutako eskabideak, 2000 eta 2015 bitartean saria jasotzeko hautatutako hautagaiak, 1982 eta 2015 bitartean emandako sariak eta 2000 eta 2015 bitarteko deialdietako epaimahaien osaera aztertu dira.

36. irudia. Gure Artea sarian aztertutako eskaerak, hautagaiak eta sariak.


	Guztira
Eskaerak (2002-2008)	411
Hautagaiak (2000-2015)	179
Sariak (1982-2015)	249

Eskaerak Aztertutako epean (2002-2008), guztira, eskaeren % 36,7 aurkeztu zituzten emakumezko artistek. Gizonak nabarmen izan dira nagusi epe osoan zehar.

37. irudia. *Gure Artea* sarietako eskaerak, sexuaren eta urtearen arabera banatuta.


Urtea	Eskaerak		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2002	39	77	116
2004	34	67	101
2006	32	48	80
2008	46	68	114
Guztira	151	260	411

38. irudia. *Gure Artea* sarietako eskaerak, sexuaren arabera banatuta. 2002-2008.




Eskaeren kopuru guztiaren bilakaerari erreparatuz gero, hautematen da % 31 egin zutela behera 2002-2006 epean, eta 2002an 116 izatetik 2016an 80 izatera pasatu zirela. Gizonei eragin zien batik bat beherakada horrek, haien kasuan % 37,7koa izan baitzen murrizketa; emakumeek, ordea, ez zuten halako aldaketa handia pairatu (% 17,9).

39. irudia. *Gure Artea* sarietako eskaeren bilakaera, sexuaren arabera. 2002-2008.




Zazpi urteko epe horretan, emakumeen presentziak bereari eutsi ez ezik, gora ere egin du: 2008an gizonek eginiko eskaerak 2002an baino % 11,7 gutxiago izan ziren; emakumeek egindakoen kopuruak, ordea, % 17,9 egin zuten gora 2008an 2002arekiko. Hala, denborak aurrera egin ahala emakumeen proportzioa handitzekoa da joera. Hurrengo irudian ikus daiteke nola murrizten den gizonen eta emakumeen arteko aldea.

40. irudia. Gure Artea sarian banaketa sexuaren eta urtearen arabera. Ehunekoa. 2002-2008.




Hautagaiak Eskaerak jasota, baina sariak ebatzi aurretik, eskaeren iragazketa bat egiten da eta hautagaiak aukeratzen dira. Bildu ditugun datuek aukera eman digute 2000 eta 2015 bitarteko hautagaiak aztertzeko sexuaren ikuspegitik. Oro har, emakumezko artisten proportzioa handixeagoa da hautagaien artean eskatzaileen artean baino: eskaeren % 36,7 eta aukeratutako hautagaien % 40,2 dagokie emakumeei.

41. irudia. Hautagaiak sexuaren arabera banatuta. 2000-2015.



la urte guztietan aukeratu dira gizonetzko hautagai gehiago emakumezkoak baino. Nahiz eta emakumezko artistak ugariagoak izan urteek aurrera egin ahala, 2011tik aurrera datuen nolabaiteko egonkortasun hura aldatu egin zen eta gorabeherak izan dira harrezkero bi sexuen arteko proportzioetan. Nolanahi ere, aurrerakada ez lineal horiek kasu-kopurua urria izateak eragindakoak izan litezke, edo bestela ez dutelako luzaro irauten.

42. irudia. Gure Artea sarian hautatutako hautagaiak sexuaren eta urtearen arabera. 2000-2015.



Kopuru absolutuei erreparatuta, ikus daiteke 2000-2015 epean 169 hautatu direla Gure Artea sarirako, eta urteek aurrera egin ahala hautatutako lagunen kopuruak behera egin duela. Beherakada horrek, gainera, bortitzago eragin die gizonetzko emakumezkoen baino: 2000ko datuen aldean, 2015an % 56,3 gizon gutxiago eta % 11,1 emakume gehiago hautatu ziren.

43. irudia. Gure Artea sarirako aukeratutako hautagaiak sexuaren eta urtearen arabera (kopuru absolutua eta ehunekoa). 2000-2015.

Urtea	Hautagaiak			%		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2000	9	16	25	36,0	64,0	100,0
2002	6	14	20	30,0	70,0	100,0
2004	4	7	11	36,4	63,6	100,0
2006	7	9	16	43,7	56,3	100,0
2008	4	8	12	33,3	66,7	100,0
2011	9	9	18	50,0	50,0	100,0
2012	4	8	12	33,3	66,7	100,0
2013	10	6	16	62,5	37,5	100,0
2014	5	17	22	22,7	77,3	100,0
2015	10	7	17	58,8	41,2	100,0
Guztira	68	101	169	40,2	59,8	100,0

Hautagaien gaineko datuak eskaeren gaineko datuekin alderatuta, ikusten da bariazioa aldatu egiten dela edizio batetik bestera, haatik alde nabarmenik ez dagoela emakumeen proportzioan kasu baten eta besteren artean. Ondorioz, esan daiteke Gure Artea sarian izena ematen duten emakumeak aintzat hartuak izan ohi direla.

44. irudia. Gure Artea saria: emakume eskatzaileen eta hautagaien ehunekoa, urtearen arabera. 2002-2008.


Urtea	Eskaerak	Hautagaiak
2002	33,6%	30,0%
2004	33,7%	36,4%
2006	40,0%	43,8%
2008	40,4%	33,3%

Emandako sariak Izandako edizio guztiak aztertu dira emandako sariei dagokienez, hasi 1982an eta 2015ra arte.

45. irudia. Emandako Gure Artea sariak, sexuaren eta urtearen arabera (kopuru absolutua eta ehunekoa). 1982-2015.

Urtea	Sari-kopurua			%		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
1982-1989	14	123	137	10,2	89,8	100,0
1990-1999	25	56	81	30,9	69,1	100,0
2000-2009	4	11	15	26,7	73,3	100,0
2010-2015	6	7	13	46,2	53,8	100,0
Guztira	49	197	246	19,9	80,1	100,0


46. irudia. Sarituak sexuaren arabera banatuta. 1982-2015.



— Emakumeak — Gizonak


Oro har, emandako hamar saritik zortzi gizonei emanak dira. Hurrengo irudiari erreparatuz gero, aise ikus daiteke zer-nolako nagusitasuna izan duten gizonek izan diren edizioetan (1982-2015).

47. irudia. Sarituak, sexuaren eta urtearen arabera. 1982-2015.



Emandako sarien bilakaera diakronikoa aztertuta, gizonen eta emakumeen emandako sari-kopuruak berdintzeko joera dagoela ikus daiteke, lehen urteetako zazpi puntuko alde hura gaur egun puntu bakarreko alde bihurtu baita.


48. irudia. Emandako sariak, sexuaren eta urte-tartearen arabera banatuta. 1982-2015.



Hautagaien eta sarituen artean zer lotura dagoen aztertuta, berriz, ikusten da ugariagoak direla emakumeak hautagaien artean sarituen artean baino, 2013an izan ezik, orduan hiru emakume saritu baitziren. Halaber da aipatzeko modukoa 2002an eta 2014an, emakumezko hautagaiak aukeratu izanagatik ere, horiek ez zutela azkenean saririk jaso.


Orobat, nahiz eta 2015ean emakumeen presentzia berriz leheneratu zen, hautagaien sexu-proportzioaren eta sarituen sexu-proportzioaren arteko alde aurrekoetan baino handiagoa izan da. Hala, komeni da etorkizuneko edizioetan emakumeen presentziak bereari eusten dion eta parekotasunak aurrera egiten duen egiaztatzea.

49. irudia. Emakumeen proportzioa hautagaien artean eta sarituen artean. 2000-2015.



Epaimahaia Oro har begiratuta, epaimahaikideen artean hamarretik sei izan dira emakumeak 2000-2015 aldian.


50. irudia. Epaimahaikideak sexuaren arabera. 2000-2015.



51. irudia Epaimahaikideak, sexuaren eta urtearen arabera. 2000-2015.

Urtea	Emakumeak	Gizonak
2000	40,0	60,0
2002	40,0	60,0
2004	60,0	40,0
2006	40,0	60,0
2008	80,0	20,0
2011	50,0	50,0
2012	83,3	16,7
2013	50,0	50,0
2014	66,7	33,3
2015	66,7	33,3
Guztira	58,2	41,8

52. irudia. Emakumeen proportzioa hautagaien artean, sarituen artean eta epaimahaian. 2000-2015.



Emakumeen presentzia handiagoa da epaimahaietan hautagaien eta sarituen artean baino. Edizio batetik bestera aldatu egiten da sexuen arteko proportzioa; haatik, 2008tik aurrera emakumeak nagusi izan dira, tartean bitan, 2011n eta 2013an, epaimahaia parekidea izanik.

4. Trukeko eta kanpo-mugikortasuneko programak

WROCLAW-DONOSTIA EGONALDIA Etxepare Euskal Institutuan eta Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten Poloniako Wroclaw hirian eta Donostian egonaldiak egiteko proiektuari ekiteko eta, hartara, euskal sormen-korronteen eta artisten mugikortasuna sustatzeko, bidenabar diziplina artistikoen eta kulturen arteko elkarrizketa indartzen eta elkar aberasten.

Diziplina hauek hartzen ditu programak: arte eszenikoak, musika, literatura, arte plastikoak eta ikus-entzunezkoak. Wroclawen 15-21 eguneko egonaldi bat egiteko 2.000 euro garbiko ordain bat da laguntza.

Oro har, onartutako hamar lagunetik sei gizonetzkoak dira, baina hamarretik hiru baizik ez dute hautatzen egonaldiako. Emakumeen kasuan, beraz, onartutakoetan hamarretik lau bakarrik izanik, hamar hautatutakotik zazpi dira.

53. irudia. Egonaldiako onartutako eskaerak, sexuaren eta urtearen arabera. 2014-2015.


Urtea	Kop. absolutuak		%	
	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.
2014	28	30	48,3	51,7
2015	10	21	32,3	67,7
Guztira	38	51	42,7	57,3

Urte jakinetako datuak aintzat hartuta, ikus daiteke 2014an hautatutako artista guztiak izan ziren emakumeak, eta 2015ean, berriz, %33,3 besterik ez.

55. irudia. Hautatutako artistak sexuaren eta urtearen arabera. 2014-2015.


Urtea	Emakumeak	Gizonak
2014	100,0	0,0
2015	33,3	66,7
Guztira	66,7	33,3

54. irudia. Egonaldiako onartutako eskaerak sexuaren arabera. 2014-2015.



— Emakumeak — Gizonak

56. irudia. Hautatutako artistak sexuaren arabera. 2014-2015.



— Emakumeak — Gizonak

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN LAGUNTZAK

Euskararen eremu geografikotik kanpo arte garaikideko erakusketak edo gertakizunak antolatzeke nahiz halakoetan parte hartzeko laguntzak dira, betiere horietan EAEn bizi diren egileen lanak erakusten badira. Ohiz kanpokotzat jo daitezkeen proiektu edo ekimen zehatzak onartuko dira soilik.


Baliozko proiektutzat hartuko dira gutxienez bi aste dirauten prestakuntza artistikoa hobetzeko egonaldiak. Laguntza bat baino gehiago eska dezakete artistek, baina eskatzaile bakoitzak ezin izango du guztira 12.500 euro baino gehiago jaso. Egonaldi-proiektuei, bidaia-gastuaz gaindi, ezin izango zaie 4.200na euroi baino gehiago esleitu, eta hileroko zenbatekoa ez da 700 euro baino handiagoa izango.

Gizonek zein emakumeek eskatzen dituzte arte plastiko eta ikusizkoetarako laguntzak; eskaeren % 53,5 emakumeek eginak dira, eta % 46,5, berriz, gizonek eginak. Datu horiek urteka aztertuta, ikusten da 2014an emakumeek egin zituztela eskera gehienak (% 58,5) eta 2015ean, berriz, gizonek (% 52,1).

57. irudia. Onartutako eskaerak, sexuaren eta urtearen arabera. 2014-2015.

Urtea	Kop. absolutuak		%	
	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.
2014	21	22	58,5	41,5
2015	23	25	47,9	52,1
Guztira	54	47	53,5	46,5

58. irudia. Onartutako eskaerak, sexuaren arabera. 2014-2015.



— Emakumeak — Gizonak

Arreta emandako kopuruetan jarrita, hauteman daiteke ez dagoela alde handirik gizonen eta emakumeen artean. Oro har, batez besteko balioaren gainetik dabilta emakumeak, eta gizonak, berriz, azpitik, askorik urrundu gabe betiere. Batez besteko zenbatekoak urteka aztertuta, ageriko bihurtzen da emakumeek joera gorakorra dutela, diru-laguntzen zenbatekoak pixkanaka gora egiten duelako, eta gizonak, berriz, beherakorra, haien batez besteko zenbatekoa nabarmen jaitsita, 1.385 eurotik 962 eurora.

59. irudia. Emandako diru-laguntzen batezbestekoa, sexuaren arabera. 2014-2015.


Urtea	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2014	1.172	1.385	1.245
2015	1.274	962	1.118
Guztira	1.218	1.129	1.180

TABAKALERAKO EGONALDIAK Tabakalera proiektuaren funtsezko tresna dira egonaldiak: programa kulturala aberastu eta aldi berean kanpo-eragileak erakarri eta proiektuaren dinamiketan txertatzen dituzte. Halaber bilatzen dute proiektuaren nazioartekotzea sustatzea eta nazioarteko eta bertako testuinguruen arteko topaketak erraztea.

Presentzia handia dute gizonak proiektu honetan, eta egonaldietako hamar artistatik hiru besterik ez dira emakumeak.

60. irudia. Emandako egonaldiak, sexuaren arabera. 2015-2016.

Diziplina guztietan hautematen da dinamika hori, eta ikusizko arteei dagozkien egonaldietan ere hala da, horixe bera da joera: emakumeei egonaldien % 28,6 ematen zaie eta gizonak % 71,4.



61. irudia. Emandako egonaldiak, sexuaren eta diziplinaren arabera. Ehunekoa. 2015-2016.

Arloa	Emakumeak	Gizonak
Ikusizkoa	28,6	71,4
Ikus-entzunezkoa	25,0	75,0
Guztira	27,3	72,7

5. Museoak eta arte-zentroak

Museoen eta arte-zentroyen jardueraren emaitza aurkezten da kapitulu honetan. Informazioa *ad hoc* bildu da, emakumezko artistek halako zentroyek antolatzen dituzten erakusketa eta gainerako jardueretan zer ikusgaitasun duten jakitearren.

Lau museok erantzun diote galdetegiari: Artium, Bilboko Arte Ederren Museoak, Guggenheim Bilbao Museoak eta Arabako Arte Ederren Museoak. Arte-zentroyei dagokienez, berriz, Azkuna Zentroak, Rekalde Aretoak, Koldo Mitxelena Kulturuneak, BilbaoArte Fundazioak eta Tabakalerak eman dute erantzuna, eta horiei gehitu behar zaie DSS2016 Fundazioaren jarduna.

Galdetu zaie ea zer genero-irizpide aplikatzen duten beren programazioa, 2015ean egindako erakusketak eta aurrekontua osatzeko, bai eta horietako bakoitzaren informazio xehea, berezita gizonen eta emakumeen parte-hartzea komisaria gisa, artista gisa, katalogo-testuetan eta hitzaldi-programako hizlari gisa. Halaber eskatu zaie aurrekontua banakatzeko kontzeptu horien arabera.

Erantzunetan denetik izan bada ere, azpimarratu behar da eskatutako informazioa biltzeko gehienek egin duten ahalegina.

Genero-irizpideak Zentro gehienek adierazi dute aplikatzen dituztela genero-irizpideak programazioa osatzean; zehazki, aztertutako hamar zentroetatik seik.

Hala dihardutela diotenen artean bi planteamendu berezi dira: badira gizon-emakumeen arteko oreka bilatzen duten zentroak (ahal den neurrian, saiatzen gara aplikatzen, erakusketak aukera emanez gero...) eta badira kontu hau dagoeneko barneratua eta zeharo asumitua dela, ez bakarrik erakusketetan gizonen eta emakumeen presentzia orekatuaren kontuan.

Amaitzeko, esan daiteke, batez ere arte-zentroei dagokienez, genero-irizpideak aplikatzea asumituta dagoela, nahiz eta berariaz formulatu gabea izan. Museoen kasuan, kontua ez dago hain finkatuta, dela bildumen beren ezaugarriak direla eta, dela beste baremo batzuk lehenesten dituztelako. Nolanahi ere, ez dugu informazio nahikorik ondorio orokorrak ateratzeko.

Erakusketak Aztertutako museo eta arte-zentroek 2015ean 79 erakusketa antolatu zituzten, % 48,1 arte-zentroek eta % 51,9 museoek.

62. irudia. Egindako erakusketak. 2015.

	Erakusketak	%
Arte-zentroak	38	48,1
Museoak	41	51,9
Guztira	79	100,0


Emakumezko artisten erakusketak 79 erakusketa horien % 26,3 dira eta gizonezkoenak, berriz, % 40,8; gainerako % 32,9 mistoak dira. Hala, oro har, gizonen pisua emakumeena baino handiagoa da arlo honetan.

63. irudia. Erakusketak, artistaren sexuaren eta zentro-motaren arabera. 2015.

	Kop. absolutuak				%			
	Mistoak	Emak.	Gizonak	Guztira	Mistoak	Emak.	Gizonak	Guztira
Arte-zentroak	11	13	14	38	29,0	34,2	36,8	100,0
Museoak	14	7	17	39	36,8	18,4	44,7	100,0
Guztira	25	20	31	76	32,9	26,3	40,8	100,0

Banakako erakusketek dagokienez, emakumeak % 37,5 izan ziren.

64. irudia. Banakako erakusketak, artistaren sexuaren arabera. 2015



Gizonek bakarrik nahiz emakumeek bakarrik egindako erakusketen datuei erreparatuta, alde nabarmena dago arte-zentroa izan edo museoa izan.

Museoetan, hamar erakusketatik zazpi gizonen lana erakusten dute; aldiz, arte-zentroetan orekatua da sexuen presentzia. Hori dela eta, aipagarria da % 46,2 emakume gutxiago dagoela museoetan arte-zentroetan baino, eta % 21,4 gizon gehiago dagoela museoetan arte-zentroetan baino.

65. irudia. Erakusketak, artistaren sexuaren arabera, zentro-motaka. 2015.



Gizonek bakarrik nahiz emakumeek bakarrik egindako erakusketen datuak genero-ikuspegitik aztertuta ere badira aldeak zentro-mota baten eta besteen artean. Arte-zentroetan, 50.000 euro baino gehiagoko erakusketa guztiak dira emakumeenak; museoen kasuan berriz, 80.000 euro baino gehiagoko erakusketa guztiak dira gizonenak, eta 50.000 euro baino gehiagoko aurrekontua dutenen erdiei dagokienez, ere bai.

Alegia, arte-zentroetan, emakumeek presentzia handiagoa izan ez ezik, erakusketa garestienak ere bereak dituzte, museoetan ez bezala; museoetan gizonak dira nagusi bi kontu horietan, bai presentzian, bai aurrekontuan.

Datuei aurrekontuaren argitara aztertzen direnean, ikusten da horrela ere badela aldea arte-zentroen eta museoen artean. Museoek aurrekontu handiagoa izan ohi dute (erakusketen % 40 baino gehiagok dute 50.000 euro baino gehiagoko aurrekontua); arte-zentroetan, berriz, erakusketek aurrekontu murriztagoa dute (erakusketen ia % 80 ez da iristen 50.000 euroko aurrekontua izatera).

66. irudia. Erakusketak, aurrekontuaren arabera. 2015.

Aurrekontua	Erakusketa-kopurua		%	
	Arte-zentroak	Museoak	Arte-zentroak	Museoak
< 20.000	19	13	59,4	44,8
20.001-50.000	6	4	18,8	13,8
50.001-80.000	3	4	9,4	13,8
> 80.000	4	8	12,5	27,6
Guztira	32	29	100,0	100,0

Oharra: aurrekontu xehea ez dute eragile guztiak eman.


67. irudia. Erakusketak artistaren sexuaren eta aurrekontuaren arabera, zentro-motaka. 2015.



Oharra: aurrekontu xehea ez dute eragile guztiak eman.

Erakusketa mistoak ere aintzat hartuta, antzeko dinamika ageri da. Erakusketa guztien % 32,8 dira, eta, museoen kasuan, aurrekontu handien artean pilatzen dira: erakusketen % 75ek 50.000 euro baino gehiagoko aurrekontua dute; arte-zentroen kasuan % 37,5 baino ez dira halakoak.

68. irudia. Erakusketak artistaren sexuaren eta aurrekontuaren arabera, zentro-motaka. 2015.



Erakusketen aurrekontua, xehe-xehe Jarraian aurkezten diren datuak eskura dagoen informaziotik abiatuta kalkulatu dira; esan bezala, ez da beti guk nahi bezain osatua izan informazio hori. Ezinezkoa izan ditugu kontzeptuko banakatutako aurrekontuak nahi bezala ustiatu ez

zegoelako datu nahikorik. Izan ere, ekoizpen-kostuei esleitzen zaio maiz aurrekontua, osorik, eskatutako partiden xehetasuna eskaini gabe. Hori dela eta, berriro diogu zuhur irakurri behar direla datuok.

Erakusketen batez besteko aurrekontua arte-zentroetakoa halako bost izan da museoetan. Hori aintzat hartu gaberik ere, alde deigarriena kostu horien banaketan aurkitu dugu: museoetan, hamar eurotik zortzi produkzio-kostutzat jo dira, eta arte-zentroetan, berriz, aurrekontu osoaren erdia inguru besterik ez da produkzio-kostutzat jo. Halaber da azpimarragarria aldea artista eta komisarioen ordainsariei dagokienez, proportzioan handiagoak baitira arte-zentroetan.

69. irudia. Batez besteko aurrekontu-atalak, zentro-motaren arabera (euro). 2015.

Kontzeptua	Aurrekontua (€)	
	Arte-zentroak	Museoak
Komisarioen ordainsaria	4.280,0	13.354,8
Artisten ordainsaria	3.368,6	3.157,0
Ekoizte-kostua	10.406,0	80.429,1
Katalogoko testuen tarifa	754,7	1.494,9
Argitaratze-kostua	2.972,9	17.035,5
Aurrekontu orokorra	21.536,9	100.936,0


Generoaren araberako azterketan datu argigarri bat eskaini du: emakumezko artisten erakusketen batez besteko kostua gizonen erakusketena baino nabarmen txikiagoa dela, aldea % 60 ingurukoa izanik. Ez dira gizonen produkzioak bezain handinahiak. Halaber da esanguratsua aldea taldekako erakusketen kasuan.

70. irudia. Erakusketen aurrekontuaren batez besteko zenbatekoa, kontzeptua, artistaren sexuaren arabera (euro). 2015.


Kontzeptua	Aurrekontua (€)		
	Emakumeak	Gizonak	Biak ala biak
Komisarioen ordainsaria	500,0	9.554,2	11.665,3
Artisten ordainsaria	2.032,0	1.992,9	6.861,7
Ekoizte-kostua	8.914,5	20.682,6	91.379,2
Katalogoko testuen tarifa	1.155,5	820,8	1.340,7
Argitaratze-kostua	2.582,6	5.530,6	13.566,0
Aurrekontu orokorra	18.360,3	29.880,2	118.427,5

Katalogoak Erakusketek katalogorik duten ala ez ere hartu behar da kontuan. Kasu horretan ere ikusi da museoetan eta arte-zentroen arteko aldea, batzuek eta besteek generoa dela-eta duten erakuste-logika desberdinaren isla. Museoetan, katalogoa duten erakusketen % 80 baino gehiago gizonenak dira; haatik, arte-zentroetan berdintsu banatzen dira gizonen eta emakumeen artean.

71. irudia. Erakusketak, artistaren sexuaren eta zentro-motaren arabera, eta katalogoa duten ala ez berezita. 2015.



72. irudia. Jarduera-programan emakumeen presentzia % 50 baino gehiago. 2015



73. irudia. Jarduera-programako parte-hartzaileak sexuaren arabera. Ehunekoa. 2015



6. Laburpen gisa

Ikusizko artistak aintzatesteko eta horiei laguntzeko mekanismoen azterketak ez du erabateko aukerarik ematen balorazio orokor bat egiteko emakumeen presentziaren inguruan. Programa edo laguntza-lerro bakoitzak bere joera propioa du.

Hala ere, aurkeztutako datuen begiratu egin daiteke azterketan aintzat hartutako puntuen arabera (alegia: prestakuntza, testuingurua sortzeko laguntza, sariak, trukea eta kanpo-mugikortasuna, eta horien batzorde tekniko eta epaimahaiak), horietan hautemandako ezaugarri komun batzuk azpimarratzeko.

Prestakuntza. Arte-ikasketek oso erakartzen dituzte emakumeak: Arte Ederretan egin diren hamar matrikulatik ia zazpi dagozkie.

Hitzaldietako eta lantegien programetako hizlariak

Halaber eskatu da erakusketekin batera antolatzen diren ekitaldi osagarrien gaineko informazioa, hala nola hitzaldi eta tailerren ingurukoa, emakumeen parte-hartzeari tankera ondo hartzeko. Bildutako informazioaren arabera, gizonak dira hemen nagusi: hamar programatik lautan baino ez dira emakumeak % 50 baino gehiago.



Testuingurua sortzeko laguntza. Oro har, emakumeek laguntza-programetan (bekak, egonaldiak, diru-laguntzak) duten presentzia % 40 ingurukoa da, inoiz % 50 ere gainditzen bada ere. Zehatzago esanda:

- Eusko Jaurlaritzaren laguntzen kasuan, hamar eskabidetik lau egiten dituzte emakumeek, jasotzean dituzten laguntzetako proportzio bera, hain zuzen ere. Ematen diren laguntzetako datuek parekotasunerako joera badela iradokitzen du.
- Ekoizteko laguntzetan, fenomeno bitxi bat erakusten dute: zenbat eta aurrekontua handiagoa izan, orduan eta emakumezko eskatzaile gutxiago dago.
- Eremuak programan hautatzen diren hamar proiektutik lau emakumezko artistek eginak dira. 2013tik hona eutsi egin zaio emakumeek aurkeztutako proiektuen kopuruari, baina gizonek egindakoak ugaritu egin dira.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren bekei dagokienez, berriz, 2013tik hona gora egin du emakumeek aurkeztutako eskaera kopuruak, ia % 20, eta hamarretik zortzi dira gaur egun.
- BilbaoArten % 40-60 inguruan dabilta emakumeen eta gizonen proportzioak, urtearen arabera.
- Artista hasiberrien lana erakusteko programetan, Ertibilen, emakumeen lanak ugaritzeko joera izatea ez ezik, sari berezietan duten presentzia ere bada aipagarria: sarien % 75 emakumezko artistei ematen zaizkie. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, deigarria da emakumeen presentzia 2015-2016 ekitaldietan: zortzi parte-hartzaitetik bost izan dira emakumeak. Gainera, epaimahaikide biak emakumeak dira. Getxoarten ordea, urritu egin da emakumezko artisten proportzioa 2013az geroztik, eta % 61,3tik % 45,2ra jaitsi da.

Gure Artea saria. Emakumeen errekonozimenduak azken hamarkadetan artearen munduan izan duen bilakaeraren isla da sari honen bilakaera historikoa; 1980ko hamarkadako ia erabateko ikusezintasun hasi eta, zeharo parean izan ez bada ere, gizonen mailatik askoz ere gertuago jarri arte. Zehazki, lehen urte haietan zazpi puntukoa zen aldea, eta gaur egun berriz puntu bakarrekoa.

Trukea eta kanpo-mugikortasuna. Tabakalerako egonaldien kasuan izan ezik, non emakumeen presentzia ez baita % 30era ere iristen, trukeko eta kanpo-mugikortasuneko gainerako programetan % 50ekoa baino handiagoa da emakumeen presentzia.

Balorazio-batzordeak. Laguntzak, sariak eta ebazteko osatzen diren balorazio-batzordeen osiera aztertuta, ikus daiteke % 50 ingurukoa izan ohi dela emakumeen proportzioa programa gehienetan, BilbaoArte eta Getxoarte izanik salbuespen.

Museoak eta arte-zentroak. Oro har, gizonek emakumeek baino presentzia handiagoa dute: emakumezko artisten erakusketak guztizkoaren % 26,3 dira eta gizonezkoenak, berriz, % 40,8; gainerako % 32,9 mistoak dira. Arte-zentroetan emakumeek presentzia handiagoa izanizatea ez ezik, horiek antolatzen dituzten aurrekontu handiko erakusketek ere emakumezko artisten obra aurkeztu zuten, museoen kasuan ez bezala, horietan gizonak baitira nagusi bi kontuetanbietan, presentzian zein aurrekontuan. Azpimarratu behar da, halaber, emakumezko artisten erakusketen batez besteko kostua gizonezkoen erakusketena baino nabarmenerabat txikiagoa dela, aldea % 60 ingurukoa izanik.

II.II. Iritzi artikulua

Kristalezko sabaiaren argazki gardena: emakume artisten egoera EAEn.

HAIZEA BARCENILLA

Artikulu honen helburua Eusko Jaurlaritzak abian jarritako Kultur Behatokiak jasotako hainbat datu aztertzea da, hain zuzen, emakume artistek egungo EAEn duten presentzia erakusten saiatzen direnak. Artearen esparrua oso espazio sinboliko mitifikatua da, norbanakoaren jenioa, inspirazioa eta sormena arrakastarako baldintza bakar gisa ulertu delarik urtetan. Eta Linda Nochlinek ironiaz esan zuen bezala, jenioa bitxiki gizona soilik tokatu ohi zaien jaiotzetiko dohaina dirudi³. Artearen ikuspegi mitifikatu honi kontra eginez, soziologia eta antropologiatik zein artearen historiatik abiatutako ikerlariak artearen sorrera, erakusketa, eroste eta saltze, historizatze, kanonizatze eta bildumatzearen inguruan harreman sistema konplexu eta zaila eratzen dela baieztatu dute, eta honetan eragin funtsezkoa dutela neutroak edo zorizkoak ez diren hainbat elementuk. Bourdieuk “esparru artistiko” terminoa finkatu zuen (1995), beste batzuen artean Lourdes Mendezek oinarritzat hartu duena gero sistema honetan bizirik dirauten eragile eta botereak aztertzeko (2009)⁴. Artearen teoria eta kritikatik, aldiz, beste termino bat datorkigu, artearen mundua, Dantok aurkeztu (1964)⁵ eta Allowayk garatutakoa (1966)⁶. Lan hauetan jada zehazten da artearen sisteman badaudela legitimazioa bideratzen duten agenteak (instituzioak, museoak adibidez; eragile pribatuak, galeriak; eta eragile indibidualak, komisarioak, zuzendariak eta kritikariak, esaterako). Hala ere, testuinguru bakoitzean eragile zehatz batzuk egongo dira, modu ezberdinetan jardungo dutenak. Hainbat dira botere-harreman hauetan islatzen diren baldintzapen sozialak, eta haien

artean generoa dugu bat, historikoki arrasto gogor eta argia utzi duena; honi dedikatuko diogu geure arreta EAEko instituzio eta esparru artistikoko hainbat elementuri so eginez.

Kultur Behatokiak jasotako datuak bi arlotan antolatu ditu: batetik, erresidentziak, laguntzak eta sariak hartu ditu kontutan; bestetik, museoen programazioetan emakume artistek duten presentzia. Informazioa biltzeko sistemak ere ondorioak baldintzatzen dituzenez (ez dago objektiboa den galdera), hauek ekarri dituzten onura eta muga metodologikoak aipatuko ditut.

Hasteko, datu guztiak azken bi edo hiru urteetan zentratzen dira, gaurko ikuspegia emanez. Honek berdintasunaren ilusio bat eman dezake, datu historikoak erabili ditugun kasuetan (Ertibil edo Gure Artearen kasuak), argia delako egungo joera oso berria dela, azken bi edo hiru urteetako, eta ez duela genero bereizketaren arazo historikoa errotik konpontzen.

Bestetik, museo eta arte zentzoei dedikatutako atalean ez dira datuak zentroka agertzen, datu orokorretan barneratuta baizik. Honek arazo bat suposatzen du, emakume artistekiko oso jarrera desberdina dutelako EAEko instituzio desberdinek, eta orokortasunak zehaztasuna galtzera garamatza. Hori dela eta, datu horiek osatzen saiatu naiz, instituzio zehatzei aipamen eginez, horrek batzuetan ikuspegi orokorra alde batera

³ NOCHLIN, Linda (2008): “¿Por qué no ha habido grandes mujeres artistas?” in *Amazonas del arte nuevo*. Madrid, Fundación Mapfre, pp. 283-289

⁴ BOURDIEU, Pierre (1995): *Las reglas del Arte*. Barcelona, Anagrama y MÉNDEZ, Lourdes (2009): *Antropología del campo artístico. Del arte primitivo al contemporáneo*. Madrid, Síntesis.

⁵ DANTO, Arthur (1964): “The Artworld”, *The Journal of Philosophy*, 61, pp. 571-584

⁶ ALLOWAY, Lawrence (1966): “Art and the Communications Network”, *Canadian Art*, 100. zkia, urtarrila 1966.



uztera eraman badu ere. Horretaz gain, ez da emakumeek bildumetan eta azken urteetako erosketetan izan duten presentzia aztertu, hau legitimaziorako eta historizatzerako oinarritzko elementua izan arren. Ondorioz, atal honek alde aurretik adostutako beste galdetegi eta ikerketa propio bat beharko lukeela uste dut.

Artikulu antolatzeke orduan, emakume artista baten ibilbidea zehazten duten faseetan oinarritu naiz: hezkuntza, ekoizpenerako laguntzak, lehen sariak eta legitimazioa erakusketan eta bildumatzearen bitartez. Honen bidez erakutsi nahi izan dudana zera da: emakumeentzat Arte Ederak ikastea erraza den bitartean, profesionalizatzeko bidean gizonen baino zailtasun handiagoak topatzen dituztela, eta hauek esponentzialki igotzen direla legitimazioa lortzeaz hitz egiten dugunean.

1. Hezkuntza eta parekotasuna.

Hasteko, hurrengo azterketetarako funtsezkoa izango den datu bat aurkeztuko dugu: Arte Ederretako ikasleen artean dagoen gizonen eta emakumeen proportzioa. Bildutako datuen arabera, emakumeen proportzioa luzaroan izan da gizonen baino altuagoa, hain zuzen, 1989tik behintzat, hau izanik jasotako datarik antzinakoena. 1989-1990 ikasturtean Arte Ederretako ikasleen % 62,5 emakumezkoak izan ziren. Kontutan izan behar dugu urte horretan ikasten hasitakoak 1971ean jaiotakoak izango zirela, datu hau aurrerago ekarriko dugu gogora. Proportzio hori gutxika igotzen joan da, eta azken hamar urteetan % 68 eta % 72 bitartean mugitu da emakume ikasleen kopurua. Proportzio hori apur bat aldatzen da espezializazioen arabera (adibidez, 2013-2014 ikasturtean Arteko espezializazioko % 65,7 ziren emakumezkoak, eta Kontserbazioan eta Zaharberritzean, berriz, % 78), baina, oro har, azken 27 urtean emakumeak arte-ikasleen % 62tik gora izan direla baieztatu dezakegu, eta azken urteetan, % 65etik gora gutxienez. Argi dago, beraz, artearekin lotutako irakaskuntzak eta lanak gizonen baino askoz

emakume gehiago erakartzen dituztela. Artearen esparrua, ikasleen ehunekotan behintzat, emakumezkoa da batez ere.

Datu hau funts gisa hartu dut aurrerago landuko ditudan beste datuak aztertzeko, eta horren harira 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea aipatu behar dut. EAE aitzindaria izan zen halako legea bultzatzerakoan, Espainiako estatuari bi urtez aurreratuz. Berdintasuna lortzeko erabilitako tresnetako bat parekotasuna izan zen, hau da, aldarrikatzea sexu bakoitzak gutxienez % 40ko presentzia izan behar duela organo eta instituzio guztietan. Printzipio honi esker emakume askok ikusgarritasuna lortu dute ohikoak ez zitzaizkion esparruetan, eta kontzientziazio aipagarria gauzatu da gizarte mailan. Hala ere, azterketa sakona egiterakoan gure begirada desbideratzeko arriskua du printzipioak orobat. Hain zuzen, artea ikasten duten emakumeak batez beste % 65 badira, berdintasunaz mintzatzen ari al gara lehiaketa bat irabazten dutenen % 40 soilik izanik? Hurrengo orrialdeetako azterketan bi datuak izango ditut kontutan, bai ikasleen ehunekoa, bai parekotasuna, bakoitzak ekartzen digun ondorioa alderatzeko.

2. Lehen urratsak: ekoizpena eta beka.

Artista batek ibilbide profesionala hasteko lortu behar duen lehen gauza lan egiteko denbora eta ekoizpenerako baliabide ekonomikoak dira. Honela, geroago sarietara aurkeztu eta mostretan erakutsi dezakeen artelanen corpus bat sortu ahal du. EAEn lehen pausu hau hein handi batean diru-laguntzen bitartez lortzen da; gainera, baliabideak emateaz gain, epaimahai batek proiektu bat sustatzeak prestigioa dakar.

Bildutako informazioak esparru honetako lehen joera kezagarria erakusten digu: Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzetan, 2013. eta 2015. urteen artean, emakumeek laguntzen % 50 baino gutxiago eskatu zituzten. Hau da, jaisiera handia nabaritzen da artea ikasten duten emakumeen zenbatekoaren (% 65 batez beste) eta profesionalizatzeko biderako

laguntzak eskatzen dituztenen artean (% 45 inguru). Deigarria da datu hau, maiz errepikatuko zaiguna. Honek erakusten digu emakumeek ez diotela bide profesionalari itxaropen berdinekin ekiten, beharbada ikasketetatik aurkituko dituzten zailtasunak ageriagokoak egiten zaizkielako: emakume gehiagok etsitzen dute hasi aurretik, edo hasi eta gutxira. Geroago itzuliko gara puntu honetara, oso garrantzitsua delako.

Emakumeek pairatzen duten konfiantza-ahultasun hau beste datu batek konfirmatzen digu: ekoizpenerako diru-laguntzak hiru zenbategotan banatzen dira, 5.000 euroko 20 laguntza, 8.000ko 13 eta 12.000ko 3. Emakumeek kopuru txikiak eskatzen dituzte: 5.000 euroko laguntzen eskaeren % 55 emakumezkoenak dira, eta, aldiz, zenbateko handienaren % 27,6 soilik. Diru-laguntza hauetara aurkezten diren emakumezko guztiak hartzen baditugu, % 59,5ek 5.000 euroko laguntza eskatzen du, % 34,1ek 8.000koa eta % 6,3k besterik ez 12.000koa. Gizonezkoen artean, aldiz, erdiak baino gutxiagok eskatzen du 5.000koa (% 40,7k), eta % 14k 12.000koa. Beraz, gizonezkoek euren proiektu handiekiko konfiantza gehiago erakusten dute, eta emakumeek aldiz haien buruak proiektu txiki edota merkeagoetan ikusten dituzte.

Interesgarria da aipatzea emakumeen ordezkapena baxua, azken bi urteetan, ez datorrela kontrako epaimahaiak izateagatik: aurkeztutako eta emandako laguntzen arteko proportzioak oso antzekoak dira, eta norbait hobestekotan, emakumeen kopurua da apur bat igotzen dena. Hala ere, arriskutsua litzateke azken bi urteetako datu horiek aurreko urteetara estrapolatzea, zeren eta atzera begiratzeko aukera izan dugun arloetan (gerora egin dugu hori), joera oso berria dela baieztatu ahal izan baitugu.

Eremuak programara jotzen badugu, ageriagokoa da ikasketak eta profesionaltasunaren bidea burutzen dutenen arteko aldea. Kasu honetan emandako laguntzen datuak bakarrik ditugu eta ez eskaerenak, baina esanguratsuak dira hala eta guztiz ere. Programa berria izan arren, 2010ean hasitakoa, eta hein handi batean artista gazteei zuzendutakoa, ez du ikasketek erakusten duten proportzioa mantentzen. Datu orokorre

begiratuta, laguntzen % 40,9 besterik ez da emakumeentzako izan. Urtez urte hartuta, behin ere ez da emakumeen zenbatekoa % 60ra iristen, eta bitan bakarrik pasatu zen % 50etik.

Erresidentzietan antzeko datuak ditugu: BilbaoArteko 2012tik 2016 bitarteko datuetan ikus daiteke emakumeek ez dutela inoiz % 55,9 baino gehiago izatea lortu. Kontuan izanda BilbaoArten 2016an dauden artisten batez besteko adina 34 urtekoa dela, 2000. urtean edo hasiko ziren ikasten, eta ordurako emakume ikasleen zenbatekoa % 70 inguruan zebilen. Tabakaleraren erresidentziaren kasuan are latzagoa da proportzioa: zabalik igarotako bi urteak hartuta, % 57,1 izan dira gizonezkoak eta % 42,9 emakumezkoak. Interesgarria litzake aurkeztutako arteko proportzioa ikustea, datu hori ez baitago bildutako datuetan.

Salbuespen bakarra aldundiek eskaintzen dituzten azken bi urteetako beketan topatzen dugu. Bizkaian 2013an bekara aurkeztutako emakumeen proportzioa % 55,2 bazen ere, % 79,2ra igo zen 2016an. Gipuzkoan emandakoen datuak daude soilik, baina azken urteetan eman diren bost beketatik lau izan dira emakumeentzat. Hala ere, beka hauen kopurua zein prestigioa aurrekoena baino baxuagoa da.

Beraz, parekotasunaren ikuspuntu batetik eta datu orokorrak soilik begiratuta, lehen begiradan kopuru hauek zuzenak direla pentsa genezake, emakumeen kopuruak % 40-50 bitartean mantentzen diren heinean. Ikasleen kopuruarekin alderatzen baditugu ordea, aise ikus daiteke jauzi handia dagoela ikasketen eta profesionalizatzearen artean. Hasteko, emakume gutxiagok eskatzen dituzte diru-laguntzak. Bestetik, horren ondorioz agian, ekoizpen zein erresidentzia programetan emakumeen presentzia gizonezkoena baino txikiagoa da. Eremuak edo Tabakaleran, ikasketa-garaiko zifren aldean, 20-25 puntutan jaisten da emakumeen proportzioa. Ondorioz, ikasketen eta profesionalizatzearen arteko tartea oso larria dela azalarazten dute datuok.

Oraindik eta areago, aurreko urteetako datuak ez ditugu ezagutzen, eta okerragoak izateko aukera handia da. Honek oinarritzko eta premiazko galdera batzuk egitera garamatza: urteetan emakumeek artista profesionala izatearen bidean etsi badute, eta oraindik etsitzen badute, zergatik da? Noiz hartu dute erabaki hori, ibilbide profesionalaren zein unetan? Adibidez, Nagore Iriberrik ekonomiaren arloan emakumeek presio kompetitiboa gizonetzkoek baino okerrago pairatzen dutela ikertu du⁷. Argi dago rol sozialen egiturek eragina dutela artearen lan-munduratzearen prozesuetan, baina zeintzuk diren eta nola aritzen diren ikertzeke dago.

3. Lehen aintzatespenak: sariak.

Hainbat dira artista batek legitimazioa lortzeko bideak. Bata erakusketa da, hurrengo atalean aztertuko duguna. Beste bat, sariak, pasu garrantzitsua da artistentzat. Sari guztiak ez dira berdinak, hauetan ere hierarkiak egonik. Hauekin bat dator genero-marka: ikusiko dugu gero eta garrantzitsuagoa saria, emakumeek zailtasun handiagoak topatuko dituztela irabazteko.

Hau baieztatzeko, bildutako informazioan sakonki ikertuta dauden bi adibide hartuko ditugu: Ertibil, Bizkaiko aldundiak artista gazteentzako antolatutako saria alde batetik, eta Gure Artea, Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen sari nagusia bestetik.

Ertibilen kasuan interesgarria da azken zortzi urtean izandako aldaketa nabaria. 2009tik 2012ra arte gizonetzkoak dira nagusi, bai sarietan, bai erakusketetan: 2010ekoan izan ezik, gizonak erakusketaren % 60 izan dira eta hiru sari berezietatik bi eraman dituzte urtero.

Hortik aurrera joera aldatzen doa eta, gutxika, emakumeek espazio gehiago hartzen dute, erakusketaren % 60 edo aurten % 70 ere izanik. Azken hiru urtean sari berezi gehienak jaso dituzte. Gainera, 2013tik aurrerako aurkeztutako proiektuen datuak ere baditugu, eta hauen arabera emakumeen parte-hartzea % 48tik % 60ra igo da. Beraz, joerak honela jarraituz gero, zuzenago egokituko zaio beren lanak erakutsita saritu izan zaizkien emakume kopurua ikasle-garaiko kopuruari; horrek ez du, ordea, lehen aipatu eta ondorioetan garatuko dugun arazo historikoa konpontzen.

Bestalde, Gure Artea sariaren azterketa sakonagoa egiteko aukera dugu, atzera begirada luzeagoa egiten delako bildutako informazioan. Hiru garai desberdin izan ditu sari honek: 1982tiketik 1996ra, diziplinaka eta urtero banatzen zenean; 1996tik 2010era bi urtetan behin banatuko da, diziplina banaketarik gabe. Urte guzti horietan artistek haien burua aurkezten zuten sarira, eta epaimahai batek aukeratzen zituen bai erakusketan egongo zirenak, bai hauetatik aukeratutako hiru sarituak. 2011tik aurrera, aldiz, urtero ematen da saria, hiru modalitatetan banatua (ibilbide artistikoari saria, sorkuntzari eta aktibitateei), eta epaimahaiak proposatutako artista eta agenteak lehiatzen dira soilik.

2002 eta 2008 artean sarira aurkeztutako emakume zein gizonetzkoen zenbatekoak eskaintzen dizkigute datuek, eta berriz ere aipagarria da emakumeen kopurua askoz baxuagoa dela gizonetan baino, % 36,7. Kontuan izatekoa da 1989-1990 ikasturtean ikasten hasitako emakume horiek, % 60 zirenak, 2008an 37 urte izango zituztela, hots, Gure Artea sarira aurkezteko adin aproposa. Bi proportzioen arteko aldea kezkarria da, eta berriz ere erakusten digu puntu honetara iristen diren emakumeak askoz gutxiago direla abiatzen direnak baino.

Aipagarria da halaber epe honetan gizonetzkoen eskariak murriztu egiten direla: 77 aurkeztu ziren 2002an, 48 soilik 2006an; berriz igo zen 2008an 68ra iritsi arte, baina hala ere, 2002ko zenbakien azpitik mantendu zen.

⁷ IRIBERRI Nagore, AZMAT Ghazala y CALSAMIGLIA Caterina (2016): "Gender Differences in Response to Big Stakes". Journal of the European Economic Association, 14 (6).

Emakumeena jaitzi zen orobat, baina askoz gutxiago, eta 2008ko igoera argiagoa da: 39 emakume aurkeztu ziren 2002an, 32 2006an eta 46 berriz 2008an.

Datu honek hainbat interpretazio izan ditzake. Batetik, argi dago emakumeak gutxiago izan arren, egonkorrago mantentzen direla. Proporzioen logikari erreparatuta, pentsa genezake emakumeek kalitate handiko lana egin dutela sinetsiz gero baizik ez direla aurkeztuko halako sarietara; gizonek, aldiz, ez lukete horrenbesteko aurretiko auto-selektziorik egingo (bestela, ezinezkoa litzake ikasleen % 40tik aurkeztuen % 65era pasatzea). Hori hala balitz, ez litzake harrizkoa izango erakusketarako hautatutako emakumeen portzentajea aurkeztu direnena baino altuagoa izatea, proiektu oso onak soilik aurkeztuko litzatekeela, gizonen artean bigarren mailako lan gehiago egongo liratekeen bitartean.

Erakusketako kopuruek, ordea, ez dute halakorik erakusten. 2004 eta 2006ean soilik igotzen da proportzio hori, apur bat (% 33tik % 36ra lehen urtean, % 40tik % 43ra bigarrenean). Beste bi urteetan, aukeratutako emakumeen kopurua jaitzi egiten da, hiru puntutan 2002an eta nabarmen, zazpi puntutan, 2008an. Hau da, emakume gehien aurkezten den urtean, % 40,4ra iritsiagatik ere (ikasketen zenbakietatik urrun oraindik), gutxiagotu egiten da haien aukeraketa⁸.

Sariei erreparatuta, beste ondorio bat topatzen dugu: emakumeentzako sariak lortzea gizonezkoentzat baino zailagoa izan da. Lehen aipatutako logikari jarraituta, hots, emakumeek aurre-selektzio bat burutzen dutela, erakusketarako hautatuago eta sarietan presentegoa egon beharko lirateke. Baina kontrako joera topatzen dugu: 2002 eta 2008 artean emakumeen lanak erakusketaren % 35,9 izan badira ere, sarien % 26,7

soilik eraman dituzte emakumeek, hau da, ia hamar puntu azpitik. Ez da harrizkoa emakumeek etsitzea, historikoki jaso dituzten Gure Artea sari gutxiak ikusita: 1982 eta 1989 bitartean (gogora dezagun azken urte hauetan Arte Ederretako ikasleen % 60 emakumezkoa zela jada), sarien % 10 soilik ziren emakumeentzat. Zertxobait hobetu zen joera hori 1990ko hamarkadan, % 31ra igo arte, 2000ko hamarkadan berriz ere aipatutako % 26,7 horretara jaisteko. Azken hamarkadan kontzientziazio apur bat nabari den arren, urrun gaude emakumeen ordezkapen orekatu batetik oraindik: sarien % 46,2 baino ez dira izan haientzat.

Are gehiago, ikusi dugun lez, nabaria da hasiberrientzat eta konfirmatutako artistentzat pentsatutako sarien arteko aldea. Hierarkia baxuagokoak direnek, Ertibil kasu, errazago onartzen dute emakumezkoen presentzia; azken bi urteetako zenbakiek proportzio orekatuagoak erakusten dizkigute. Gure Artea sarian, aldiz, joera hori ez da finkatu, eta desberdintasuna nabaria da oraindik ere.

Beraz, emakumeek profesionaltasunaren lehen pausuak gero eta errazago ematen dituzte, baina zaila zaie kristalezko sabaia apurtu eta legitimazio esparruetara iritea. Honen lehen adierazpena ikusi dugu Gure Artea sariarekin, eta baieztatuko dugu sistematan legitimazioa eta ikusgarritasunaren indarra duten instituzio nagusiekin: museoak eta arte-zentroak.

⁸ 2011tik aurrerako antolaketa dagokionean, zailagoa suertatzen da irakurketa orokor bat egitea, epaimahaia delako hautagaitza aurkezten duena. Epaimahaia araberak hau oso aldarra dela ikus dezakegu: 2011an erdibana izan zen bitartean, 2014an % 22,7 soilik ziren emakumeak. Ondorioen bat atera beharko bagenu, hori izango litzateke emakumezkoak gehiago direnean hautagaitzetan, larri-larri iristen direla ikasketak-kopuruetara % 62,5 2013. urtean, kopururik altuena) eta gizonezkoak gehiago direnean aldiz, proportzio horiek zabaldu, handitu eta askotan logikatik asko aldentzen direla (gizonezkoen % 66,7 2012. urtean, % 77,3 2014an).

4. Legitimazioa: museoak eta bildumak.

Sariak artista bat legitimatzeko elementu beharrezkoak badira, are garrantzitsuagoak dira erakusketa eta bildumen bitartez artearen narrazio ofiziala eraikitzen duten instituzioak. Bi mota bereizi behar ditugu hauen artean, hots, erakusketak antolatzen dituzten arte zentroak batetik (gehienetan garaikideagoak, askotan artista gazteagoen lanetan zentratuagoak) eta erakusteaz gain, bilduma osatzen duten museoak bestetik. Desberdintasun hau oso garrantzitsua da, bi motek ikusgarritasuna eskaintzen duten arren, bigarrenak lurralde oso batena izango den bilduma, irudi eta historia publikoa eraikitzearen erantzukizuna hartzen duelako. Bilduma hauek artista batzuk historizatu egiten dituzte, memorian gorde behar direla xedatzen dute eta erakusketa iraunkorretan barneratzen dituzte, kanon bihurtuta. Beraz, bi motatako legitimazioa dugu: aldi baterako erakusketen bitartez gizartearen aurrean sortzen den iruditegia, eta erakusketa eta bilduma iraunkorrak medio osatzen den identitate historikoa.

Aztertutako museo (Artium, Bilboko eta Gasteizeko Arte Ederren Museoak, eta Guggenheim Bilbao museoa) zein arte zentroek (Rekalde Aretoa, Koldo Mitxelena eta BilbaoArte, Azkuna Zentroa eta Tabakalera) katalogoak argitaratzen dituzte gainera, Tabakalera kenduta. Katalogoak kritikari (bati zein gehiagori) artisten gaineko gogoeta egiteko aukera ematen dio, eta artista horri buruzko ekoizpen intelektual kritiko eta historikoa sortzea ahalbideratzen du. Horretaz gain, artistari bere burua ezagutarazteko tresna bat ematen dio eta legitimazio gisa balio du.

Orokorrean, museoek arte-zentroek baino eragin handiagoa izaten dute: gizarte mailan sona handiagoa dute, eta artisten ibilbidearen konfirmazioa eskaintzen dutela uste ohi da. Alde hori nabaria da erakusketei eta katalogoei eskaintzen dieten aurrekontuetan ere: museoek erakusketen % 40k 50.000 eurotik gorako aurrekontua du, eta hauetatik % 67k,

80.000 eurokoa baino altuagoa. Arte zentroetan, aldiz, erakusketen % 20k soilik du 50.000 eurotik gorako aurrekontua. Arte-zentroetan katalogoen batez besteko aurrekontua 2.972,9 bada ere, museoetan, berriz, 17.035,5 eurokoa da. Beraz, museoetan egiten den inbertsio publikoa handiagoa da, eta gizarte mailan igortzen den legitimazio maila parekoa orobat.

Sarrietan jada argi ikusten bazen ere emakumeek sufritu behar zuten diskriminazioa, museoek kasuan ematen da diskriminazio hori bortitzen. Oso hierarkizazio markatua agertzen zaigu, zeinean emakumeak galtzaile ateratzen diren. Hala ere, museoaren arabera asko aldatzen da egoera, eta arriskutsua da orokortzea. Esate baterako, 2015ean Artiumek banakako 6 erakusketetatik, 2 dedikatu zizkien emakumezkoiei eta 4 gizonezkoiei. Aipatu behar da, ordea, erakusketa nagusia Mabi Revueltarena izan zela, emakume batena alegia, besteak “Praxis” programa xumeagoaren barnean kokatzen ziren bitartean. Aldiz, Bilboko Arte Ederretako museoak urte berean egindako bost banakako erakusketen artean bat ere ez zitzaion emakume bati dedikatu. Are, museo honek azken 30 urteetan ez dio banakako erakusketa bakar bat ere emakume artista bati dedikatu, lehena 2016an izan delarik, Susana Talayerorena alegia, gela txikian eta martxoan, “emakumeen hilabetearekin” bat egiteko. Beraz, Artiumen genero-politikak zuzenketak behar baditu ere, Bilboko Arte Ederretako Museoarena zuzenean misoginotzat jo genezake⁹.

Hortaz, aipatutako diskriminazioa erakusten duten ondorio orokor gutxi batzuk plazaratuko ditut, ikerketa sakonago bat egitearen aukeraren zain. Banakako erakusketetan zentratuko naiz, erakusketa mistoen datu zehatzak ez ditugulako eta hauetatik ondorioak ateratzea, ondorioz, ezinezkoa delako. Banakako erakusketak dira gainera artistei ikusgarritasun eta azterketa kritikorako aukerarik handiena ematen dietenak.

⁹ Baieztapen hau egiteko 2014. urtean “Genero ikuspegia artearen teoria eta ekoizpenean” jardunaldietarako aurkeztu nuen ponentziarako ikerketan oinarritzen naiz, bertan erakusketen programazioa ez ezik, bildumatzeko politikak ere aztertu nituelarik, emakumeak bi alderdietatik sistematikoki kanporatuak izan direla baieztatuz.

Arte-zentroetan gauzatutako erakusketetan gizon eta emakumeen arteko aldea ez da nabaria; hala ere, berriz ere parekidetasunari jarraitzen dio, eta ez ikasketen proportzioei. 2015eko erakusketen % 48,1 dagokie emakumeei, eta azpimarratuko nuke Tabakalerak irekiz geroko bere banakako erakusketa guztiak emakumezkoek dedikatu dizkiela, eta Koldo Mitxelenako areto nagusiak urteak daramatzala emakumeei banakako erakusketak dedikatzen eta taldeko mostretan emakume anitz erakusten. BilbaoArtek parekotasunaren antzeko proportzioak mantendu ditu 2014tik egun arte. Beraz, sorkuntzako arte garaikidean eta zentro txikiagoetan, emakumeek ikasketetako kopuruak lortzen ez badituzte ere, askoz ere presentzia agerikoagoa dute.

Museoetako egoera, aldiz, guztiz bestelakoa da. 2015ean erakusketen % 29,2 soilik dedikatu zitzairen emakumeei. Gainera, datu hauek orain dela bost urtekoekin konparatuko bagenitu, ziurrenik eskasagoak direla ikusiko genuke. Guggenheim museoak, adibidez, 2013ra arte emakumeei apenas banakako erakusketarik eskaini gabe egon ostean, 2014tik aurrera aldaketa bortitza burutu du eta hainbat emakume artistei ikusgarritasuna eman die (Yoko Ono, Kimsooja, Athila, Sam Taylor-Wood, Louise Bourgeois...). Joera hau pozgarria den arren, ez dugu ahaztu behar oso berria dela, eta asko izan direla emakumezkoek erakusteko itxita igarotako urteak. Artium museoak hasieratik eskaini zizkien erakusketak emakumeei, baina beti gizonetzkoen kopuruaren azpitik, eta gutxitan gela nagusietan. Bilboko Arte Ederretako Museoak aldiz, lehen esan bezala, ez du arren arte emakume bat banaka erakutsi.

Gainera, eskainitako erakusketen garrantzia oso esanguratsua da. Arte zentroetan aurrekontu handiko erakusketa gutxiago egiten dira, baina 2015ean 80.000 euro baino garestiago izan zirenak, 4 gutxira,

emakumeei eskaini zitzaizkien. Museoetan, aldiz, kopuru horretako erakusketak 8 izan ziren, eta guztiak gizonetzkoek eskaini zitzaizkien. Emakumeei 20.000 eta 80.000ko tarteko aurrekontua zuten erakusketen erdia dedikatu zitzaizkien museoetan, eta 20.000 euro baino gutxiagokoetan, % 20 soilik. Ausartuko nintzake esaten berriagoak diren zentroak (Koldo Mitxelena, Azkuna Zentroa eta Tabakalera) saiatu direla euren neurri txikiagoan museoek burututako diskriminazioa orekatzen, zenbaitetan diskriminazio positibo bat aplikatuz ere.

Dena dela, eta museo eta zentroen arteko aurrekontu desberdintasunaren ondorioz, 2015ean emakumezkoek dedikatutako erakusketen aurrekontuaren batezbestekoa 18.360,30 eurokoa izan zen bitartean, gizonetzkoena 29.880,20era iritsi zen, hots, % 60 gehiago. Honek esaten diguna zera da: gizonetzkoen erakusketetan ekoizpen gehiago egiten da, handiagoak dira, ikusgarriagoak eta katalogo landuagoak dituzte. Hau da, museo publikoetan gizonetzkoen lana gehiago sustatu, sortu, historizatu eta ikustarazten da, emakumeen aurretik lehentasuna emanez. Katalogoetan ere ikus dezakegu hau: emakumeen erakusketak % 29,2 izan baziren ere, katalogoen % 20 soilik dedikatu zitzairen.

Une ona da hasieran aipatutako 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea gogoratzeko. Izan ere, honek bere 25. artikuluan argi dio administrazioak ezin duela sustatu, ez lagundu, sexuaren zioz egindako bereizketa erakusten duten ekintza artistiko eta kulturalik¹⁰. Tamalez, lege honek hamaika urte indarrean daraman arren eta azken urteotan instituzioei errealitatearen berri eman dioten agenteak anitzak izanda ere, nabarmendu den aldaketa oso txikia izan da, eta legearen aplikazio zuzena ia ez da existitu. Horren erakusle dugu ez dago EAEn genero ikuspegia barneratzen duen plangintza sistematikorik duen arte-zentrorik, beraz, ezinezkoa da pixkanakako hobekuntzarik edo

¹⁰ 25. artikulua, kultura jarduerak:

1. Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduerak guztietan. Debekatu egiten da emakumeek gizonetikiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.

2. Kultura-jardueraren batean –hor sartuta jai kutsukoak, artistikoak, kirolekoak, eta euskararen normalkuntzaren arlokoak–sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada, euskal herri-administrazioek ezin izango diote jardueraren horri inolako laguntzarik eman, edo administrazio horien ordezkariak ezin izango dute jardueraren administrazioaren ordezkari gisa parte hartu.



ikerketa-ildorik planifikatzea: zuzendarien gustuen eta intuizioen arabera kudeatzen da kontu hau, inolako instituzio-kontrolik gabe. Egoera hau oso larria dela deritzot.

Bukatzeko, oso beharrezkotzat jotzen dut emakumeek bildumetan, bildumen erakusketan eta bildumetarako egiten diren erosketetan duten presentzia aztertzea. Azken finean, bildumak diru publikoarekin osatzen ari diren memoria bateratuak dira, gure gizartearen historia osatzeko oinarriak jarriko dituztenak, eta hauetan ere ez dago genero ikuspegitik bideratutako irizpiderik, ez historikoki gertatutako diskriminazioaren konponketa proposamenik. Nire Bilboko Arte Ederretako museoaren ikerketaren datuek diotenez, literalki emakumerik gabeko historia bat osatzen ari gara. Instituzioek egiteke duten lan presazko eta ezinbestekoa da egoera honen konponketa.

5. Ondorioak eta proposatutako neurriak.

Ondorio gisa, artearen esparrua emakume gehiagoren interesa pizten duela ikusi dugun arren, ikasketak bukatu bezain laster haien bidea esponentzialki zailtzen doa. Gogo edo konfiantza galera suma daiteke, beharbada ikasketetan bertan hasten dena, ikasle-kopuruekin alderatuta askoz gutxiago baitira lehen urratsak markatzen dituzten diru-laguntza eta beketara aurkezten diren emakumeak. Joera hau hobetzen doan arren, deialdi gehienetan ez dute ikasle eta artista aitortuen kopuruek bat egin. Puntu hau oso garrantzitsua da, emakumeek bizitza profesional horri ekiteko pausua ematen ez badute, beka eta sarietara aurkeztuz, gero aplikatu zitekeen diskriminazio positiboak ez dituelako bide-bazterrean geratutakoak berreskuratuko. Horretaz gain, gizonengan konpetentzia

desleialaren sentsazioa zor dezake eta emakumeen lorpenak gutxiestera bultzatu. Zenbait kasuetan diskriminazio positiboa bidegabekeria historikoak orekatzeko erabili daitekeen arren, askoz komenigarriagoa da arazoan erroa bilatu eta hau konpontzen saiatzea.

Nola bultzatu artista hasiberri horiek, ordea, zailtasun handienak profesionalki aurrera egiterakoan aurkitzen badituzte emakumeek? Sari garrantzitsuetarako aukeratuak izateko aukera gutxiago, museoetan erakusteko are gutxiago, katalogo arrazoitu bat izateko ia deusak. Argia da arte sistemak une honetan emakumeen "saikerak" onartzen dituela, baina legitimazioa emateko zailtasun itzelak dituela eta, okerrera, instituzio publikoak direla legitimazio hori tratatzen lehenak. Kristalezko sabaiaren eskuliburuko eredu baten aurrean topatzen gara, alegia.

Garrantzitsua da ere esatea, alde batetik, berdintasun legea sistematikoki uzten dela alde batera museoetan batez ere, eta ez dela legetzat hartzen, gomendio gisa baizik. Gainera, betetzen denean parekotasunaren zenbakietara murrizten da, eta emakumeen % 40 lortzearekin, % 50 asko jota, nahikoa egin dela jotzen da maiz. Zenbaki hauek, ordea, ikasketetan hasitakoekin ez datoz bat, eta hortaz ez dira parekideak, diskriminatzaileak izatera iritsi daitezkeelarik: esate baterako, ikasketak bukatu berri dutenen erakusketa batean % 40 baino ez badira emakumeak, ikasle garaian ziren % 65en aldean 25 puntuko jaitsiera baten aurrean ginateteke.

Gainera, parekotasuna tresna gisa erabili beharrean helburutzat hartu dute batzuk, eta horrek arriskuak besterik ez dakartza. Helburuak zenbakiekin nahastera bultzatzea, eta sakonago, ilunago eta konplexuago diren diskriminaziorako arrazoiak ezkutatu. Esaterako, zein faktorek eragiten dute emakumeek artista profesionalaren bidea gutxiago hartzeko? Aurreko urteetan emakumeak sistematikoki kanporatuak izan badira, honek haien konfiantza baldintzatu du? Zergatik lehenesten dituzte epaimahai askok gizonezkoen lanak, ba al dira "femeninotzat" jotzen diren gaitegi edo teknikak (oihala, amatasunaren gaia, gorputza...) eta beste batzuk "unibertsaltasun" kutsua dutenak (eskultura, harria, metala, abstrakzioa...)? Nola eragiten du artistaren lanaren prekarietateak emakumeengan eta nola, adibidez, amatasunak?

Parekotasunak ahantzarazi dezake halaber gaur eguneko neurriek ez dutela nahitaez historiako bidegabekeria konpontzen. 2000. hamarkadara jotzea besterik ez dugu, orain hamar urte eskas, Gure Artean, Arte Ederretako museoan eta Guggenheimen ia emakumerik gabeko sari, programa eta bildumak topatzeko. Non daude ikusgarri izatea zegokien emakume horiek? Zergatik baztertu ziren eta etsi zuten artista izateko bidean? Jarraitu zutenek, zein zailtasun gainditu behar izan zituzten? Non erakusten dute, museoetan aukerarik ematen ez badiete? Galdera hauek ikerketa merezi dute, eta bidean oztopo itzelak topatu zituzten emakume horiek, memoria.

Ondorio hauen ostean, hainbat ildo orokor proposatu nahi nituzke. Metodologiak zeharkakoa izan behar luke, eta bi kontzeptu-multzo elkarrekin lotu behar lituzke: iragana-oraina-etorkizuna eta formazioa-ekoizpena-aitorpena.

Iragana: Bidean gelditu diren, edo jarraitu duten arren ikusgarritasun eskasa izan duten emakume artisten lana berreskuratu behar da. Honetarako funtsezkoa da **ikerketa**. Bide desberdinak daude ikerketa hori bultzatzeko: museoek eskainitako bekak (Bilboko Arte Ederretako museoak badu bat; bildumako emakumeei buruzko ikerketa egitea da balizko ildoetako bat, baina emakume artisten lanik erosten ez duenez, ildo horrek kale itsura garamatza); Emakundek sortutako bekak; Unibertsitatearekin elkarlanean sortutako ikerketa proiektuak; doktore-tesi zehaztentzat ikerketa bekak. Museoek ere ikertu dezakete, **erakusketak** burutzeko alegia, *aitorpenerako* funtsezkoa den elementua. Behin hau eginda, nahitaezkoa litzake *formazioan* emakume horien historia barneratzea, bai institutu etako eskuliburuetan, bai Arte Ederretako eta Artearen Historiako programetan, *etorkizuneko* artistentzat adibide izan daitezen eta gizarte mailan sortzen dugun identitate komunean presente egon daitezen.

Oraina: oso premiazkoa da diru publikoa jasotzen duten museo eta arte-zentroen proiektuak eta programak aztertzea, eta batzorde baten bitartez **genero neurri batzuk** zehaztea. Zenbait instituziotako agintariek jarrera guztiz baztertzailak dituzte, eta hauen aurrean kexa publikoak plazaratu direnean, entzun behar izan dugu pertsona horiek jubilatuta arte "itxaron" eta orduan hasiko zela "kontu hauetan" lanetan. Ezin dugu onartu diru publikoarekin historia publiko bat osatzen ari diren instituzioak pertsona baten gustu eta iritzien menpe egotea, are gutxiago Berdintasunerako lege bat izanda: itxarotea ordaindu ezin dugun luxu bat da. Historia orain idazten ari da, eta *etorkizuneko* desberdina izatea nahi badugu, *orainalditik* aritu behar dugu. Erakusketa, erosketa eta katalogoen bitartez emakumeen lana *aitortu* behar da, eta museo publikoak dira horren ardura dutenak.

Horretaz gain, *ekoizpenari* dagokionean, **sari, beka eta diru-laguntza** ofizialetan generoa kontutan izatea desiragarria da. Esate baterako, Eusko Jaurlaritzak ekoizpenerako laguntzetan printzipio hau barneratu du azken bi urteetan, puntuen % 10 genero kontuetara lotuz, eta beste instituzioei legea gogorarazi eta haiek hartutako neurrien gomendioetan oinarritutako informea pasa ahalko zizkien.

Formazioarekin lotuta, berriz, **ikasketa-programetan** (artean, artearen historian) emakume artistak barneratzeko ahalegina sustatu behar litzateke, eskuliburu berrituak bultzatuz eta material hori prestatu nahi duten ikertzaileei lagunduz. Esaterako, gaur egun, Unibertsitateak genero-gaiekin lotutako eskuliburuak eginak izateagatik irakaskuntza-kredituak kentzen ditu; logikoagoa litzateke laguntza hori deialdi gisa planteatzea, irakasleei proiektuak aurkeztu eta onartzen bazaizkie noski, hartara, behar beste ordezkapen antolatuta, material hori garatzeko astia izan dezaten. Bestela, zaila da horrelako proiektuak aurrera ateratzea.



Etorkizuna: ulertu behar dugu zeintzuk diren emakume artistak etsitzera bultzatzen dituzten arrazoiak, hauek borrokatu ahal izateko. Argi dago **rol sozialen** egiturek eragina dutela artearen lan-munduratzearen prozesuetan, baina hauen eragina ikertzeke dago. Hortaz, elementu hauek aztertzen dituzten **ikerketak** bultzatu behar dira, *etorkizuneko* neurrien oinarri izan daitezten. Interesgarria litzake, halaber, amatasunak artista emakumeengan duen eragina ikertzea, izan ere, asko dira amatasunaren aurrean etsi duten ezagutzen ditudan kasuak. Lanbidearen prekarietateak askotan bultzatzen du artista bikoteetan batak lan ziurra bilatzera, eta askotan emakumea da pausu hori ematen duena. Interesgarria da, halaber, asko direla irakaskuntzaren bidea hartutako emakumeak, tradizionalki sexu horri egotzitako rola. Gai hauek guztiak unibertsitatearekin elkarlanean, masterreko eta doktoretzako ikasleen bitartez zein ikerketa-taldeen bitartez gara litezke, honela horrela genero-bereizkeriak eragindako aukera-desberdintasunaren zergatia bilatu eta horren kontrako neurri zehatzak hartu ahal izateko.

Beraz, argia da Berdintasun legeak ez dituela oinarrizkoak diren arazo asko konpondu, eta beharrezkoa dela egoera zeharka aztertu eta hainbat neurri bideratzea, artearen esparruan *iragana* berrirakurri, *orain* bidezkoagoa eta guztiz *etorkizun* berdintzailea eraikitzeko.

II.III. Lantaldean eztabaidatutako proposamenak

Emakumeek ikusizko arteetan duten presentziari buruzko lantaldearen bigarren bilkuran (2016ko azaroaren 22an izana) eztabaidatutako proposamenak bildu dira dokumentu honetan.

KEBek azterketa kuantitatiboaren gaineko txostena eginda eta Haizea Barcenillak iritzi-artikulu idatzita, heldu da arreta emakumeek ikusizko arteen esparruan duten presentzia hobetzen lagunduko duten neurriei eskaintzeko ordua. Aztertutako datuek erakusten dutenez sektoreko emakumeek bizi dituzten kondizio txarrak zuzentzeko politika eta ekintza eraginkorrak planteatzea da kontua.

Planteatzen den estrategia edozein dela ere, funtsezko hiru kontu badirela azpimarratu da lantaldean:

- Ikusizko arteen esparruan ez genuke konformatu behar parekotasuna erdiestearekin, prestakuntzan askoz ere handiagoa baita emakumeen proportzioa.
- Diagnosian hautemandako alderdi erabakigarriak ikuspegi integral batetik hobetzen lagun lezaketen hainbat neurri planteatu beharra. Bi ardatzi eragiten dieten zazpi proposamen planteatu dira, ardatz horiek izanik: iragana-oraina-etorkizuna eta formazioa-ekoizpena-aitorpena.
- Erakundeetan agintean dagoena dagoela, neurriei jarraitutasuna emateko beharra horretan jarduteko oinarri egonkorra sortuz. Genero-politikek ez dute zertan erakundeetan agintzen dutenen menpe izan.

A) Artisten lanari balioa aitortzeko neurriak

Iraganari eginiko begiratutik abiatuta, bide-bazterrean geratu ziren emakumeen lana berreskuratu beharra dago; baita bidean jarraituagatik ere beren lanaren ikusgarritasuna ezagutu ez dutenena ere. Ezinbestekoa da ikertzea, artista haiek etorkizuneko enreferentzia izan daitezen eta gizartean sortzen dugun identitate komunean izan daitezen. Hona hemen gauza litezkeen batzuk:

- Ikerketa-lerro hau dagoeneko existitzen diren beketan (Emakunderenak, doktoregokoak...) gehitzea edo beka berriak berriaz sortzea eta ikerketa-proiektuak sustatzea Unibertsitatearekin batera.
- Museoek berek sustatzea ikerketa-lerro hau beren erakusketak antolatzeke orduan.
- Emakume hauen historia gehitzea batxilergoko curriculumera eta Arte Ederretako eta Artearen Historiako programetara.

B) Erakundeetan genero-politikak definitzeko neurriak

Orainari erreparatuta, aurrekontu publikoek finantzatutako erakundeen genero-politikak ez dute zertan une jakin batean agintzen duenaren araberakoak izan. Premiazkoa da museoetako eta arte-zentroetako proiektu eta programak aztertzea eta beren programak egitean eta erosketa-politika definitzean zer irizpideri jarraitzen dioten aztertzea. Neurri hauek proposatzen dira ildo honetan:

- Museoetan eta arte-zentroetan genero-politikak aplikatzeko gutxieneko irizpideak zehaztea batzorde baten bitartez.
- Puntuatzean, genero-kontuei lotutako irizpideak gehitu ditzaten sustatzea, Eusko Jaurlaritzak duela bi urtez geroztik egiten duen bezala. Erakunde publikoentzako gomendioak prestatzea.
- Funts publiko finantzatutako museo eta arte-zentroetako bildumetan emakumezko artistek zer presentzia duten ikertzea.

C) Desberdintasunaren zergatia ikertzeko neurriak

Etorkizuna buruan dugula, ez dugu azalean gelditzerik. Ezagunak ditugu sintomak, ez ordea sakoneko arrazoiak. Sakonago ikertu beharra dugu zer oztopok bultzatzen dituen emakumeak beren ibilbide artistikoari uko egitera, oztopo horiei aurre egingo badiegu. Zergatik galtzen duten adorea, zergatik ez duten izenik ematen beketan, zer eragin duten konfiantzak, norbere buruarekiko exijentziak, aurkako testuinguruak, norberaren egoerak, amatasunak... Hau proposatzen da ildo honetan:

- Diziplina anitzeko ikerlanak sustatzea aztertzeke zenbaterainoko eragina duten gizarte-rolen egiturek artearen lan-mundura sartzeko prozesuetan.



III. Atala

Ikus-entzunezkoa

III.I. Azterketa kuantitatiboa - 59

III.II. Azterketa kualitatiboa - 73

III.III. Iritzi artikulua - 86

III.IV. Lantaldean eztabaidatutako proposamenak - 104

III.I. Azterketa kuantitatiboa

1. Prestakuntza espezializatua ikus-entzunezkoen eremuan - 60

2. EAEko ikus-entzunezkoen sektorearen egitura - 62

3. Istoriak nork idazten dituen: Eusko Jaurlaritzak gidoiak egiteko ematen dituen laguntzak - 63

4. Emakumeek ekoizpenetan duten presentziaren azterketa - 65

4.1 Lantalde teknikoen azterketa - 66

4.2 Lantalde artistikoen azterketa - 68

5. Zinemagileen ikusgaitasuna eta aintzatespena - 68

5.1 Kanporako proiektioa KIMUAK programaren bitartez - 68

5.2 Zinemaldiak: aintzatespena eta presentzia - 70

6. Laburpen gisa - 72




1. Prestakuntza espezializatua ikus-entzunezkoen eremuan

Ikus-entzunezkoen eremuan espezializatutako irakaskuntza arautuan 'Irudia eta Soinua' arloko heziketa-zikloetako prestakuntza tekniko eta 'Ikus-entzunezko komunikazioko' graduak aurreikusi dira. EAEn halako ikasketak eskaintzen dituzten zentro publiko zein pribatuen gaineko informazioa ematen da, betiere azken ikasturteetara mugatuak.

LHko 'Irudia eta Soinua' izeneko familiako heziketa-zikloetan emakumeek zer-nolako presentzia duten zehatz jakiteko, ikasketa horiek EAEn eskaintzen dituzten zentro publiko zein pribatuetako datuak bildu dira (esan nahi baita, Erandioko Tartanga LHI, Gasteizko Mendizabala eta Andoaingo ESCIVI). Hala, 2014-2015 ikasturtean goi-zikloaren lehen mailan izandako 232 matrikulen % 28 (65 ikasle) emakumeak izan ziren, eta 2015-2016 ikasturtean, berriz, % 26,6 (214 matrikulatetik 57). Ziklo horiek amaitzen dituzten ikasleen artean, % 30 inguru dira emakumeak (% 32,9 2014-2015 ikasturtean, % 30,3 2015-2016 ikasturtean). Oro har, esan liteke ikasketa tekniko profesionaletan egiten diren hamar matrikulatetik hiru inguru dagozkiela emakumeei. Azken urteetan bere horretan mantendu da proportzio horri.

Lanbide heziketako ikasle gehienak (hamar ikasletatik sei baino gehiago, izan ere) gizonezkoak badira ere, ziklo hauek are indar txikiagoa dute emakumeak erakartzeko, batezbesteko balioaren azpitik baitaude.


1. irudia. EAEn Irudia eta Soinua heziketa-zikloak hasi eta amaitzen dituzten emakumeen ehunekoa.



Unibertsitate-mailako ikasketei dagokienez, 2014-2015 ikasturtean EHUen zein MUn ikus-entzunezko komunikazioko graduari ekin zioten ikasleen % 60,3 emakumeak izan ziren (85 ikasle). Ikasturte hartan bertan 77 emakumezko ikaslek amaitu zuten gradu hori (guztien % 55ek).


2. irudia. EAEn Ikus-entzunezko Komunikazio gradua egiten hasten diren ikasleen banaketa. 2014-2015.

Ikus-entzunezko Komunikazioko gradua egiten hasten diren ikasleen banaketa



Emakumeak Gizonak

Ikus-entzunezko Komunikazio gradua egiten hasten diren ikasleen banaketa




Emakumeak Gizonak

Bistan denez, ikus-entzunezko eremuan espezializatutako unibertsitate-mailako ikasketetan, lanbide heziketan halako bikoia da emakumeen pisua. Alde hori ikasketa guztien batez besteko aldea baino handiagoa da; izan ere, goi-mailako ikasleen % 52,6 dira emakumeak, goi-mailako ziklo profesionaletako ikasleen % 38,3 eta erdi-mailako ziklo profesionaletako % 35,1.

3. irudia. 2014-2015 ikasturtean ikasketa arautuetan matrikulatutako lagunetan emakumeak ehunekotan.

2014-2015




Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eskola-jarduerako estatistika eta unibertsitateko estatistika.

2. EAEko ikus-entzunezkoen sektorearen egitura

Kulturaren Euskal Behatokiaren Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren datuen arabera, EAEko ikus-entzunezko ekoizpenak taxutzen duen sektorean erabakigarria da ekoiztetxe handien pisua. ETB baztertuz gero (Euskadiko ikus-entzunezko sektorearen diru-sarreraren % 72,5 eta enpleguaren % 52,5 biltzen du), esanguratsua da eragileen % 13,5ek izatea milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak eta diru-sarrera guztien % 58,9 eta enpleguaren % 56,4 biltzea. Tamaina nabarmeneko ekoiztetxeei dagozkie balio horiek, diru-sarrerek ez ezik haien batez besteko langile-kopuruak ere (32,9 lagun) adierazten duenez.


4. irudia. Ekoiztetxeak, diru-sarrera tarteen arabera, guztizkoarekiko diru-sarrere arabera eta langile-kopuruaren arabera (egun osoko eta urte osoko jardunaldira ekarriak) antolatuta. 2013.



2013	Eragileak		Diru-sarrerak	Langile-kopurua	
	n	%	%	%	Batez beste
1.000.000 €-tik gora	10	13,5	58,9	56,4	32,9
500.001 eta 1.000.000 € bitartean	10	13,5	18,1	14,3	8,4
250.001 eta 500.000 € bitartean	12	16,2	10,3	11,9	5,8
100.000 eta 250.000 € bitartean	22	29,7	10,3	11,9	3,2
100.000 €-tik behera	20	27,0	2,5	5,6	1,6
Guztira	74	100,0	100,0	100,0	7,9

Sexuaren arabera banatutako enpleguaren egituratik begiratuta, EAEn ikus-entzunezkoaren sektorean diharduten enpresetako (ETB barne hartuta) hamar enplegutatik lau (% 40,5) emakumeei dagozkie. 2013ko estatistikan aztertu ziren EAEko 75 ekoiztetxeei dagokie zenbaketa hori.

5. irudia. Langileak(urteko lanaldi osoko langileen baliokoideak), sexuaren eta ikus-entzunezko ekoiztetxe motaren arabera. Emakumeei dagokien ehunekoa. 2009-2013.



Sektoreko enplegua are sakonago aztertzearen, Arteen eta Kultura Industrien panelera jo dugu, hainbat sektoretako 68 eragilek (ikus-entzunezko 12 ekoiztetxe tartean) osatua. Hirugarren laginaldian, 2016ko otsailekoan, 2015eko bigarren hiruhileko langileei buruzko informazioa bildu da: galdetu zaie, alde batetik, negozioan guztira zenbat langilek diharduen eta, bestetik, zenbat lagun diren erabakiak hartzeko ardurako postuetan, (administrazio-kontseiluan, zuzendaritzan...); betiere, emakumeak eta gizonak bereizita.

Datuak erakusten dute eragile-lagin horretako 681 lanpostuetan, erdiak baino gehiago direla emakumeak (% 56). Haatik, arduradunen artean (158 lagun) emakumeen proportzioa % 38 besterik ez da. Aipagarria da ikus-entzunezkoen sektorean, nahiz eta emakumeak langileen % 56 izan, arduradunen artean proportziorik txikiena dutela (4 arduradunetik 3 gizonak baitira). Argiro azaltzen dute datuok sektorean den bereizkeria bertikala, aurreko beste azterlan batzuek iradoki bezala, hala nola Fátima Arranzek egindakoak¹¹.

6. irudia. Langileak guztira eta arduradunak. Zenbaki absolutuak eta ehunekoa. 2015eko II. hiruhilekoa.

		Ikus-entzunezkoa		Sektore guztiak batera	
		Abs.	%	Abs.	%
Enpresako langileak	Emakumeak	120,8	56,0	381,8	56,1
	Gizonak	94,8	44,0	298,8	43,9
	Guztira	215,6	100,0	680,6	100,0
Arduradunak	Emakumeak	8,0	24,2	59,5	37,8
	Gizonak	25,0	75,8	98,0	62,2
	Guztira	33,0	100,0	157,5	100,0

3. Istorioak nork idazten dituen: Eusko Jaurlaritzak gidoiak egiteko ematen dituen laguntzak

Txosten honek helburu duen ikuspegi kuantitatibotik begiratuta, emakumeen presentzia ebaluatzeko moduetako bat da laguntza eta subentzio publikoen deialdiak aztertzea. Ikus-entzunezko sektoreari dagokionez, sektoreari laguntzen dioten politika publiko nagusiak Eusko Jaurlaritzarenak dira.


Gidoigileei laguntzeko deialdiaren emaitzak aztertu dira atal honetan. Deialdia indibiduala denez, datuak genero-ikuspegiaren arabera banakatzeko aukera ematen du, beste deialdi batzuetan ez bezala, halakoetan ekoiztetxeek zuzenean egiten baitituzte eskabideak.

2013-2015 aldian jasotako 249 eskabideak eta laguntzak emateko ebazpenak izan dira aztergai.


Emakumeak eskabide guztien bostena izan dira: eskabideen % 19,7 emakumeek aurkeztuak izan dira. Emandako laguntzetan % 24,2 emakumeentzat izan dira.

7. irudia. Jasotako eskaerak eta emandako laguntzak, eskatzailearen sexuaren arabera. Ehunekoa. 2013-2015.

Jasotako eskaerak



Emandako laguntzak



— Emakumeak
— Gizonak

¹¹ La situación de las mujeres y hombres en el audiovisual español, estudio sociológico y legislativo.




Emakumeen proportzioak behera egin du epe horretan, zeren izandako inkrementoa gizonazko gidoigileek egindakoei zor baitzaie osorik.

8. irudia. Eskaerak eta laguntzak, urtearen eta eskatzaileen sexuaren arabera. Kopuru absolutuak. 2013-2015.

Urtea	Eskaerak			Emandako laguntzak		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2013	16	54	70	3	8	11
2014	18	74	92	2	9	11
2015	15	72	87	3	8	11
Guztira	49	200	249	8	25	33

Azpirarratzeko modukoa da 30 urtetik beherako lagunen artean emakumeek izan duten ordezkari, izandako 57 eskabideetatik 19 aurkeztu baitituzte; alegia, hirutik bat. Emandako laguntzei dagokionez, berriz, % 55,6 emakumeak jaso dituzte.

9. irudia. Jasotako eskaerak, eskatzaileen sexuaren eta adinaren arabera. Ehunekoa. 2013-2015.




10. irudia. Emandako laguntzak, eskatzaileen sexuaren eta adinaren arabera. Kopuru absolutuak eta ehunekoa. 2013-2015.


	Emanak			%		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Gidoigile gazteak	5	4	9	55,6	44,4	100,0
Gidoigileak	2	21	24	12,5	87,5	100,0
Guztira	8	25	33	24,2	75,8	100,0

Gidoiak idatzi diren hizkuntzari dagokionez, presentzia handiagoa izan dute emakumeek euskaraz aurkeztutako eskabideetan erdaraz aurkeztutakoetan baino: hamarretik ia hiru. Eta eskatzaileen adinari erreparatuta, 30 urtetik beherako lagunek egindako eskabideen artean, emakumeak % 47,4 izan dira.


11. irudia. Egindako eskaerak, proiektuaren hizkuntzaren eta sexuaren arabera. Ehunekoa. 2013-2015.



12. irudia. Euskarazko gidioiak egiteko laguntza-eskaerak, eskatzaileen sexuaren eta adinaren arabera. Ehunekoa. 2013-2015.



13. irudia. Epaimahaiaren osaera kideen sexuaren arabera, laguntza-modalitateka. 2013-2015..



Aztertutako proiektuetan badira animazioko film luzeak, dokumentalak, fikziokoak eta TV *movies*. Ekoizpen horien lantaldeei buruzko informazioa aztertu da, eta haien barruko sexu-banaketa zenbatetsi da.

14. irudia. Aztertutako proiektu eta lantaldeak, haien motaren arabera. 2011-2013.

Proiektu-mota	%
Animaziozkoak	10,0
Dokumentalak	40,0
Fikziozkoak	40,0
TV <i>Movie</i>	10,0
Guztira	100,0

4. Emakumeek ekoizpenak duten presentziaren azterketa

Emakumeek lantaldeetan zer posizio duten ikertzeko, azken urteotan egin diren ekoizpenen lagin bat aztertu da. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak ikus-entzunezkoak garatzeko eta ekoizteko emandako laguntzak jasotakoak dira horiek.

Lehenik eta behin, esan beharra dago proiektuak baloratzeko batzordeen osaera paritarioa izan ohi dela, eta hala ez denean emakumeak gehiago direla.


Oro har, lantaldeetako hamar kidedatik hiru dira emakumeak: % 32,2 dira, eta gizonetzkoak berriz % 67,8. Ugariagoak dira emakumeak fikziozko film luzeetan % 35,8, eta urriagoak, berriz, animazioko ekoizpenetan, % 20,1.

15. irudia. Lantaldeetako sexuaren araberako osaera ikus-entzunezko ekoizpen-moten arabera. Ehunekoa. 2011-2013.

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Animaziozkoak	%20,1	%79,9	%100,0
Dokumentalak	%25,4	%74,6	%100,0
Fikziozkoak	%35,8	%64,2	%100,0
TV Movie	%32,8	%67,2	%100,0
Guztira	%32,2	%67,8	%100,0

Ez dago alde adierazgarririk lantaldeen azterketaren emaitzetan, ekoizpenen lantalde teknikoak edo lantalde artistikoak aztertuta. Bi multzoetan daude behar baino emakume gutxiago, lantaldeen % 30,9 eta % 36,1 bitarteko proportzioan ageri baitira. Zehaztu behar da ekoizpen guztiek ez dutela ezinbestean lantalde artistikoa; hala gertatzen da animazioan eta dokumental askoren kasuan.

16. irudia. Lantaldeetako sexuaren araberako osaera lantalde motaren arabera. Ehunekoa. 2011-2013



4.1. Lantalde teknikoan azterketa

Lantalde teknikoetan, hamar lagunetik hiru dira emakumeak. Nolanahi ere, alde esanguratsuak aurkitu ditu azterlanak zereginen erreparatuz gero eta, lan-kategoria jakin baten barruan, arduraren mailari erreparatuz gero. Zuzendaritzari lotutako postuetan, % 30 ingurukoa da emakumeen presentzia; ekoizpenarekin lotutako postuetan, berriz, % 40 baino zertxobait gehiago dira. Apainketa-lanetan dabilen % 30 inguru dira emakumeak. Gidoigintzan, musikan eta muntaketan, are presentzia txikiagoa dute emakumeek, % 20 baino gutxiagokoa. Emakumeen proportzioa makillajearen, ile-apainketaren eta joskintzaren inguruan pilatzen da. Makillajearen kasuan, izan ere, langile guztiak dira emakumeak; ile-apainketan ere bai azken bi urteetan, eta joskintzaren kasuan % 75 baino gehiago dira. Haatik, izaera teknikoagoa duten zereginetan, hala nola argindarrean, makinisten artean, soinuan, fotografian eta, emakumeak ez dira % 15era iristen aztertutako azken urtean. Lehen begiratu honetatik bertatik ondoriozta daiteke hemen ere ageri dela beste azterketa batzuetan¹² aurkitutako diskriminazio horizontala, zereginak sexuaren araberako lan-banaketa tradizionalari jarrituta banatu izanaren isla: emakumeen presentzia erabatekoa da espezialista-lanetan (ile-apainketan, makillajearen eta joskintzan), handi samarra ekoizpen-lanetan eta txikiagoa lan teknikoetan (kamara, soinua). CIMAREN urteroko txostenaren 2015eko edizioan ere ageri dira ondorio horiek.

¹² La situación de las mujeres y hombres en el audiovisual español, estudio sociológico y legislativo.



17. irudia. Emakumeen proportzioa lantalde teknikoetan, egiten den lanaren tipologiaren arabera. 2011-2013.

	Emakumeen %
Ekoizpena	%42,8
Zuzendaritza	%30,0
Apainketa	%29,9
Fotografia	%17,7
Argindarra eta makinak	%2,8
Muntaketa	%16,1
Gidoigintza	%5,6
Joskintza	%80,5
Soinua	%7,5
Musika	%15,8
Makillajea	%100,0
Ile-apainketa	%93,3


Atentzioa arduraren handieneko lanpostuei bideratuz gero, proiektu gehien-gehienetan egiaztatzen da emakumeen presentzia gizonezkoena baino askoz ere txikiagoa dela.

Zuzendaritzaren kasuan, nabarmena da gizonezkoen nagusitasuna: 2011n eta 2013an zuzendari guztiak ziren gizonak, eta 2012an, berriz, % 10 baizik ez ziren emakumeak.

Antzeko joera hauteman da gidoigileen artean ere: kasurik onenean, emakumeak ez dira % 25era iristen. Labur esanda, gizonezkoek idatzen dituzte eta zuzentzen dituzte ekoizpenak, oso gutxitan izan ezik.

Lehenago azpimarratu bezala, hasiak dira emakumeak ekoizte-lanetan nabarmentzen, bereziki lana koordinatzeko zereginetan. Ekoizpen buruei erreparatuz gero, paritatara iritsi izan dira emakumeak (izan ere, % 50 baino gehiago izan ziren 2011n eta 2012an, eta % 44,4ra jaitsi zen 2013an). Nolanahi ere, nabarmen maskulinoak izaten jarraitu dute bai ekoizpen-zuzendaritzak (2012an izan ezik), bai ekoizpen exekutiboak.

18. irudia. Ikus-entzunezko ekoizpenetako eginkizunen banaketa, sexuaren arabera. 2011-2013.



4.2. Lantalde artistikoen azterketa


Lantalde artistikoa fikzioko ekoizpenei eta TV *movies* delakoei dagokie. Langile artista gehienak fikzioko ekoizpenak dira. Oro har, % 36,8koa da emakumeen proportzioa gizatalde horretan.

19. irudia. Langile artistikoen banaketa sexuaren eta ikus-entzunezko ekoizpen-motaren arabera. Zeharkako ehunekoa. 2011-2013.

	Emakumeak	Gizonak
Fikzioa	%36,8	%63,2
TV Movie	%32,1	%67,9

Emakumeak gutxiengo dira paper-mota guztietan. Esanguratsua da haien proportzioa % 40ra jaisten dela protagonisten kasuan eta zerrendako paperen kasuan (% 41,9), eta % 25 ingururaino paper nagusietan eta bigarren mailakoetan (% 23,3 eta % 26, hurrenez hurren).

20. irudia. Langile artisten banaketa paperen tipologiaren arabera. Ehunekoa. 2011-2013.



5. Zinemagileen ikusgaitasuna eta aintzatespena

5.1. Kanporako proiektzioa KIMUAK programaren bitartez

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren KIMUAK programa EAEn ekoiztutako film laburrak ezagutzera emateko erakusleiko nagusia da. Generoan egindako lan onenen hautespenua da; film laburrak gorantz datoz gure inguruan, eta horiek sustatzeko eta banatzeko eginkizuna du programak, gure herrialdean bertan zein, bereziki, kanpoan eta nazioartean zabaltzeko bide berriak sustatuz.

Egindako lanak jasotzeko deialdia martxoan zabaldu ohi du programak. Aurkezteko baldintza bakarra da autorea EAEn errolatua edo ekoiztetxea EAEn kokatua izatea. Epea itxita, lanik onenak hautatuko ditu epaimahaiak, haien kalitatea erabiliz irizpide nagusiztat. Halaber hartuko dira aintzat proposamenaren originaltasuna eta arriskua eta euskal antzezle eta teknikariek zer neurritan hartzen duten parte.

Hautaketa eginda, katalogo egiten da hurrena, programaren tresna nagusia, hain zuzen ere. Donostiako Zinemaldian aurkeztu ondoren jaialdi, telebista-kate, nazioarteko banatzaile erakunde eta abarrei bidaltzen zaie, zer film labur interesatzen zaizkien erabaki dezaten. Nabarmen lagundu du Kimuak programak emakumeen lana ikusarazten. Lehen katalogotik (1998) gaurdaino, emakumezko zinegileen lan hauek zabaldu ditu:


- *Luis Soto*. D: Irene Arzuaga.
- *Pregunta por mí*. D: Begoña Vicario.
- *El viento africano*. D: Mercedes Álvarez.
- *Haragia*. D: Begoña Vicario.
- *Sarabe*. D: Beatriz De la Vega.
- *Hyde y Jekyll*. D: Sara Mazkarian.

- *Aizea, ciudad del viento*. D: Ione Hernández.
- *Dortoka uhartea*. D: Maru Solores.
- *El aire que respiro*. D: Sara Bilbatua.
- *La gallina ciega*. D: Isabel Herguera.
- *Juego*. D: Ione Hernández.
- *Hezurbeltzak, una fosa común*. D: Izibene Oñederra.
- *5 recuerdos*. D: Oriana Alcaine, Alejandra Márquez.
- *Ámár*. D: Isabel Herguera.
- *Exhibition 19*. D: Alaitz Arenzana, María Ibarretxe.
- *Bajo la almohada*. D: Isabel Herguera.
- *Hortzanak, For Your Own Safety*. D: Izibene Oñederra
- *Sailor's Grave*. D: Isabel Herguera y Cecilia Traslaviña
- *Beti bezperako koplak*. Coordinado por Begoña Vicario
- *Gure hormek*. D: Las chicas de Pasaik

2014-2016 urteetako emaitzak zerrendatu ditugu beheerago. Aurreko urteetako informazio gehiago nahi izanez gero, Jose M^o Muñozek RIEV aldizkarian argitaratutako *Kimyak. Cortometrajes vascos por el mundo* artikulua¹³ kontsulta daiteke, KIMUAK programaren katalogoetz gain, jakina.

Joan deneko azken hiru urtean, programara aurkeztutako 180 film laburretatik, % 22 eta % 30 bitartean izan dira emakumeek zuzendutakoak, gutxi-gorabehera. Zehazki, 2014an aurkeztu ziren 63 lanetatik 11 emakume batek zuzenduak izan ziren eta beste 3 gizon-emakumeek batera zuzenduak izan ziren; 2015ean, 54tik 12 ziren emakume batek zuzenduak; eta 2016an, azkenik, aurkeztutako 63 film laburretatik 15 izan ziren emakume batek zuzenduak eta beste 5, berriz, gizon-emakumeek zuzenduak.


21. irudia. KIMUAK programara aurkeztutako film laburretan emakumezko zuzendarien garrantzia (kopuru absolutua eta ehunekoa). 2014-2016.



Joan deneko azken hiru ekitaldietan urtean 7 film labor hautatu dira katalogoa egiteko. Bost emakumezko zuzendari hautatu dituzte guztira: Isabel Herguera eta Cecilia Traslaviña (baterako zuzendariak) 2014an, eta Begoña Vicario (koordinatzailea), Maria Elorza eta Mainer Fernandez (Las chicas de Pasaik) 2016an. Labor esanda, aipatzekoa da elkarlanean zuzendutako lanetan duten pisua, eta, generoari dagokionez, animazioan duten pisua. Zinerik esperimentalenari eginiko ekarpena berretsi da.

Hautatutako film laburren lantaldeetako profesional guztiekiko, emakumeek % 28,6 dira batez beste, urtetik urtera aldaketak izanik: 2014an, % 20,8ko parte-hartzea izan zuten, 2015ean % 15,7koa eta 2016an % 43,9koa.

22. irudia. Kimuak katalogoetarako hautatutako film lantaldeetan emakumeek duten parte-hartzea. Kopuru absolutua. 2014-2016.



5.2. Zinemaldiak: aintzatespena eta presentzia

Euskal Herriko emakumezko zinegileek zinemaldietan proiektatutako lanak eta jasotako sariak bildu dira atal honetan. Ez du erabatekoa izateko asmorik, eta ez da hertsiki kuantitatiboa. Erakutsitako lanen zerrenda bat aurkeztu da, beraz; guztiek izan dute aintzatespenen bat azken urteotan euskal ekoizpen nabarmena izan duten zinemaldietan.

ZINEMALDIA – ZINEMIRA 2014-2016 2014an, Zinemiran aurkeztutako sei euskal ekoizpenetan, Gentzane Martínez de Osaba eta Alexander García de Vicuñaren *Señales de vida: Néstor Basterretxea* izan zen.

2015eko ekitaldian, Zinemira saria irabazteko aukera izan zuten sei filmen artean izan zen Lara Izagirrereren *Un otoño sin Berlin*. Halaber, Karmele Solerri eman zitzaion Zinemira saria; saria irabazi duen lehen emakumea izan zen, izan ere.

Azken ekitaldian (2016), inoiz baino euskal ekoizpen gehiago hartuko ditu Zinemirak. Hamazazpi filmak osatuko dute euskal zinemaren ikuspegia, eta horietatik zortzik izango dute Euskal Zinemaren Irizar saria irabazteko aukera.

Lehiatuko diren tituluaren artean zazpi dokumental eta fikzioko film luze bakarra izango dira. Hor da, alde batetik, Mainer Oleaga, *Amaren idearen* egilea eta Ikusmira Berriak programaren lehen edizioko parte-hartzailea, ETBk bultzatuta Jose Antonio Agirre lehendakariari buruz egiten ari diren bost obretako batekin. Betsalde, *GUTik Zura* da Mari Jose Barriolaren lehen ikus-entzunezko lana.

Lehiatik kanpo, berriz, hor dira *Acantilado*, Helena Tabernaren azken film luzea, eta *Pelota II* dokumentala, Olatz González Abrisqueta antropologoak eta daniar olerkari eta zinegile Jørgen Lethen egina. Halaber ikusi ahal izango da *Irrintziaren oihartzunak*, Iratxe Fresnedaren lehen filma. Eta Zabaltegin izango da María Elorza eta Mainer Fernandezek (*Las chicas de Pasaiak*) *Gure hormek* film laburraren mundu mailako estreinaldia.

ZINEBI 2014 - 2015

- *Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa*. D: Las chicas de Pasaik: Maider Fernández eta Maria Elorza. SGAE-Euskal gidoigileak saria.
- *Amore d'inverno*. D: Isabel Herguera. Euskal Zinemaren Sari Nagusia.

LEKEITIOKO EUSKAL ZINE BILERA 2014 - 2015

- *Zea Mayz: ilunetan*. D: Amaia Cuesta
- *Ezin ikusi*. D: Lucía Arrieta
- *Anonymous*. D: Ainhoa García/Ander Larrañaga
- *Etxeko Epeletan*. D: Agurtzane Intxaurreaga
- *Nire aitaren etxea*. D: Irene Bau
- *Korphuts*. D: Maite Mentxaka/Maider Aldasoro
- *Urte ametsetan*. D: Marian Gullón
- *Kerobia: zure pangearen hitzaldi kartografikoa*. D: Maider Lizeaga
- *Positibatzea*. D: Itxaso Echevarria
- *Betiko*. D: Arantza Ibarra
- *Bidean*. D: Miren Pastor
- *M. Mendeku istorio bat*. D: Andrea Lopetegui
- *Mezu bat hozkailuan*. D: Erika Elizari. Zuzendaritza eta Gidoi onenen sariak
- *Samiña*. D: Kristina Zorita
- *Leihotikan, zu, zu, zu*. D: Maialen Cadavid Etxebarria.
- *Maddi eta Patxi*. D: M. Arrate Fernandez Itxaso
- *Abiadura*. D: Sonia Estevez Fernández.
- *Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian*. D: Miren Saiz Alzugaray

CORTADA 2014 -2015

- *Desafío al olvido*. D: Irantzu Lekue
- *Dote de sangre*. D: Veronika Ainhoa Loglio,
- *Nire aitaren etxea*. D: Irene Bau
- *Lobito bueno, bruja hermosa*. D: Ainara Porrón .
- *Prohibido arrojar cadáveres a la basura*. D: Tania Galán
- *Yo, presidenta*. D: Arantxa Echevarría
- *Mezu bat hozkailuan*. D: Erika Elizari eta Ekaitz Herrera

ANIMADEBA 2014 - 2015

- *Hotzanak, For Your Own Safety*. D: Izibene Oñederra
- *Amore d'inverno*. D: Isabel Herguera

ZINEMASTEIA GASTEIZ 2014

- *Amaren Eskuak*. D: Mireia Gabilondo
- *Izenik gabe*. D: Enara Goikoetxea, Monika Zumeta

HUHEZINEMA 2014/2015 Atal ofizialean emakumeek egindako lanek ez dute saririk izan, ez bada Barbara Goenagak 2015eko emakumezko antzezle onenaren saria, *Oscar desafiado* filmagatik emana. Ikasleen lanen lehiaketan, aintzatespen hauek izan dituzte emakumeek:

- *Anonymous*. Ainhoa Garcia, Odei Esnaola, Janire Zubizarreta, Andrea Lopetegui eta Ander Larrañaga. Fikzio-lan onenari emaniko MU saria
- *Jo ta Jarri*. Oihane Abrisketa, Nora Vicente, Amaiur Perez, Izar Usobiaga eta Andrea Venegas. Dokumental onenari emaniko MU saria eta ikusleen saria.
- *Positibatzea*. Amaia Badiola, Itsaso Etxebarria, Itsasne Bermudez, Maite Salaberria eta Maria Ayerbe. Aipamen berezia.
- *Betiko eran*. Julene López. Basque Culinary Center saria.
- *Tartare*. Andrea Lopetegui, Ainhoa Garcia, Amaia Badiola eta Jone Albeniz. Ikusleen saria.
- *Kate motzak*. Jone Amonarriz. Fikzio-lan onenari emaniko MU saria.
- *On egin*. Haizea Arizaga, Eider Ballina, Anne Baskaran, Irate Briñas, Angela Carnovich eta Irati Cresp. Basque Culinary Center saria
- *Da Casting*. Mikel Uralde, Irati Elortondo eta Loinaz Elorza. Ikusleen saria.

FILM SOZIALAK- Festival Internacional cine invisible- Bilbo, 2015

- *Bide Berriak*. Maritxu Arroyo. Garapen Jasangarria saria.
- *Larre Motxean*. Nagore Eceiza eta Patricia Ponce (Euskal Herria). Euskaraz egindako film onenari emaniko saria.



6. Laburpen gisa

Egindako azterketak iradokitzen du emakumeek presentzia minoritarioa dutela Euskadiko ikus-entzunezkoen sektorean. Hauek dira daturik esanguratsuenak:

Prestakuntza berezitua. Ikasketa profesionaletan halako bikoa da emakumeek unibertsitate-mailako ikasketetan duten presentzia: hamar matrikulatik sei Ikus-entzunezko Komunikazioko graduetan, eta hamarretik hiru besterik ez Irudia eta Soinua zikloetan.

Ekoiztetxeak. EAEko ikus-entzunezko ekoiztetxeetako hamar enplegutik lau emakumei dagozkie, EITB barne (% 40,5). Kulturaren Euskal Behatokiaren EKA Panelean diren hamabi enpresei erreparatzen badiegu, nahiz eta emakumeak langile guztien % 56 izan, arduradunen artean emakumeen proportziorik txikiena duen sektorea da ikus-entzunezkoena (lautik hiru gizonetakoak dira, izan ere).

Gidoiak. Bost eskatzailetik bat da emakumea Eusko Jaurlaritzak gidoigintzarako egiten duen laguntza-deialdian: % 19,7 zehazki. Emandako laguntzen hartzaileen artean % 24,2 emakumeak dira. Proportzio hori handiagoa da 30 urtetik beherako eskatzaileen artean (% 33,3), eta deigarria da gidoigile gazteen artean emandako diru-laguntzatan berdintasuna dela (% 55,6 emakumeak). Hizkuntzari dagokionez, euskarazko gidoiak egiteko 30 urtetik beherako eskatzaileen eskaeren artean ia erdiak dira emakumeak.

Ekoizpenak. Oro har, aztertutako ekoizpen lantaldeetan, hamar lagunetik hiru dira emakumeak: 2011 eta 2013ko bitarte horretan guztizkoaren % 32,2 izan ziren. Handiagoa izan zen presentzia fikzioko film luzeetan, % 35,8-koa, eta txikiagoa, berriz, animazio ekoizpenetan, % 20,1 ingurukoa.

Langileak ekoizpenetarako lantalde teknikoak edo lantalde artistikoak diren kontuan hartuz, emaitzetan ez da alde esanguratsurik hauteman bataren eta bestearen artean. Ordezkaritza murrizta dute emakumeek

kolektibo bietan, eta haien proportzioa guztizkoaren % 30,9 eta % 36,1 bitartekoa da.

Zuzendaritzari lotutako lanpostuei dagokienez, emakumeen presentzia % 30 ingurukoa da; ekoizpenarekin lotutakoetan, % 40 baino zertxobait handiagoa. Apainketaren inguruan biltzen dira emakumezkoen lanpostuen % 30. Txikiagoa da emakumeen presentzia gidoietan, musikan eta muntaketan, non % 20tik behera baitira.

Emakumeen presentziarik handiena makillajeetan, ile-apainketan eta joskintzan aurkitzen dira (% 100 eta % 75 bitartekoa). Haatik, izaera teknikoagoa duten beste jarduera batzuetan —elektrikari eta makinistak, soinua, fotografia eta abar— emakumeak ez dira % 15era iristen aztertutako azken urtean.

Ardura handieneko lanpostuez bagabiltza, berehala ikusten da proiektu gehien-gehienetan emakumeen presentzia gizonena baino askoz urriagoa dela. Egiatzatu da eskala hierarkikoan gora egin ahala emakumeen presentzia urritu egiten dela, eta alderantziz.

Zuzendaritzaren kasuan, zehazki, gizonen nagusitasuna ia erabatekoa da (berrogeitik, emakume bakarra). Halaber da deigarria nagusitasun hori zuzendaritza-laguntzaileen artean (% 82). Emakumeak hasiak dira ekoizteko zereginetan nabarmentzen, batez ere ekoizpen-buru zereginetan.

Lantalde artistikoari dagokionez, % 36,1ekoa da emakumeen presentzia. Paper-mota guztietan da txikia emakumeen proportzioa: % 40 protagonisten eta zerrendakoen kasuan, eta % 25 ingurukoa nagusietan eta bigarren mailakoetan.

Kanpo-proiekzioa. KIMUAK programan hautatutako film laburretako lantalde profesionaletan emakumeek duten proportzioa % 28,6 da, eta hiru urteetan zenbait gorabehera izan da: 2014an, % 20,8koa izan zen, 2015ean, % 15,7koa eta 2016an, azkenik, % 43,9raino hazi zen. Talde-lanetan edo batera zuzendutako lanetan nabarmendu dira batez ere, eta generoei dagokienez, animazioan eta zinemagintza esperimentalenean.



III.II. Azterketa kualitatiboa MIREN MANIAS

Aurkezpena - 74

1. Ikerketaren abiapuntua - 74

2. Helburuak - 76

3. Ikerketaren diseinua eta metodologia - 76

4. Emakumeen egoera euskal ikus-entzunezkoan: berezitasunak eta arazoak - 78

4.1 Elkarrizketatuek sektoreaz duten pertzepzio pertsonala - 78

4.2 Autoestimua eta ahalduntze pertsonala, giltzarri - 79

4.3 Auto-zentsura ala ikusgarritasun-hutsunea? - 80

4.4 Lan-sareak (oz)topo-bide - 81

4.5 Tradizioaren eta kultura-ohituren zama - 81

4.6 Hedabideak eta emakumeak, lagun "minak" - 82

4.7 Hizkuntza eta jarrera sexisten presentzia - 82

5. Sektorearen erronka-esparruak - 83

6. Gomendio-proposamenak - 85

Erabilitako informazio-iturriak - 85



Aurkezpena

Hilabeteko ikerketa-lanaren emaitza, Eusko Jaurlaritzak 'Emakumeak Ikus-entzunezkoan' izeneko txostenaren alderdi kualitatiboari buruzkoa, aurkezten dute hurrengo orriek. Alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) sektorean bizi izandako lan-esperientzian oinarrituta, hainbat adinaldeetako eta ibilbide profesionaletako zenbait emakumeren iritziak.

Informazio kuantitatiboak ikus-entzunezkoaren sektorean genero parekidetasunaz eskaintzen duen argazkia osatzea da ikuspegi kualitatibo honen helburua; izan ere, horrek ez luke errealitatea bere osotasunean islatuko. Deskribapen garrantzitsua gorde da datu objektiboez harago. Hain zuzen ere, ikuspegi kualitatiboak lagunduko digu sektorearen emaitza kuantitatiboa (estatistika eta zenbakiak) argitzen, bai eta azken alderdi horrek identifikatu ezin ditzakeen bestelako faktoreak ezagutzen ere.

Funtsean, ikus-entzunezkoen sektorean generoen arteko parekotasunik eza islatzen duten datuak eta emakume profesionalak izandako bizipen pertsonalak kontrajarri nahi izan dira. Horren ondotik, haien presentzia-falta eta parekidetasun-hutsuneen prozesua ulertu, eta, azkenik, egungo egoera hobetzeko proposamenak egin.

Ez dago zalantzarik adibide gehiago sar zitezkeela ikerketa honetan; alabaina, Kulturaren Euskal Behatokiak egindako ikerlan honek EAEko ikus-entzunezkoan genero-aniztasuna aztertzen jarraitzeko lehen urratsa izan nahi du. Zehazki, sektoreak genero-berdintasunari eskaini liezaiokeen potentziala balioestea, eta alderantziz.

1. Ikerketaren abiapuntua

Unesco Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen erakundearen arabera, genero-rolak irudikatze, indartzeko eta zalantzan jartzeko espazio paregabea eskaintzen du kulturak -ikus-entzunezko sektorea barne- (Unesco, 2005). Horretarako, ordea, bermatu egin behar da emakumezkoek eta gizonezkoek kulturari lotutako esparru guztietan parte hartzeko eskubide bera izatea. Erakunde horrek berriki egindako 'Genero Berdintasuna. Sormena eta Ondarea' ikerlanak dioenez, berriz, egungo errealitateak erronka handiak ditu.

Europar Batasunean (EB) 6,3 milioi lagun ari dira kultura-sektorean lanean, hau da, populazio aktiboaren % 2,9 (Eurostat, 2016: 60). Oro har, EBko lan-merkatuan minoritarioak dira emakumeak (% 46) eta kultura-sektorea errealitate horren isla da (% 47) (2016: 65). European Women's Audiovisual Network (EWA) erakundearen arabera, 2012-2013 bitartean, emakume zuzendarien % 24,4 zegoen aktibo Europar Batasuneko ikus-entzunezko sektorean (EWA, 2016: 32). Zehazki, 2003-2012ko ekoizpen osoaren (9.072 film) % 16 soilik ziren emakumezkoek zuzenduak (Talavera, 2014). Areago, nazioarteko estatistika batek dioenez, zuzendarien % 10 eta gidoilarien % 15 baino ez dira emakumeak (Dovey, 2012).

Ikus-entzunezko sektorearen genero-parekidetasun hutsunea ez da Europako arazoa soilik. Ameriketako Estatu Batuetan (AEB), munduko industria handienetako batean, 250 film garrantzitsuenetatik 43 lanek besterik ez dute izan emakumezko ekoizle exekutiboa; 23k emakumezko zuzendaria; eta 5ek emakumezko kameralaria.

Oro har, berdintsuak dira gizarteko sektore gehienetan genero-parekidetasun falta azaltzen duten elementuak (Unesco, 2015: 134): "kristalezko sabaia" edo arlo sozioekonomikoetan erabakiak hartzeko postuetan emakumeen presentzia eza; "kristalezko pareta" edo emakumezkoen bazterketa jarduera jakin batzuetan; etengabe prestatzeko, gaitasun profesionala indartzeko eta sareak zabaltzeko aukera mugatua; emakumezkoen parte-hartze desorekatua ordaindu

gabeko familia-zaintza lanetan; lan-egoera kaskarrak¹⁴ (kontratu partzialak, bakanak eta proiektu jakinetarako, informaltasunerako joera, etab.); genero-estereotipoak eta emakumezkoek zein gizonezkoek kulturari bete behar dituzten rolen gaineko aurreiritziak”, besteak beste.

Herrialdeen artean ezberdintasunak aurki badaitezke ere, ikus-entzunezkoetan, orohar, begibistakoa da emakumeak duten agerikotasunik eza. Espainian, esaterako, biztanleria osoaren % 51 dira emakumeak, baina lan merkatuaren % 46,5 baino ez (INE, 2016). Kultura-sektorearen batez besteko enplegua 512.000 lagun ingurukoa da, eta kopuru horren % 39,8 dira emakumeak (Ministerio de Educación y Deporte, 2015: 57). Ondorioz, ikus-entzunezko arloan gauza bertsua gertatzen da, sektorearen % 40,4 baizik ez dira emakumeak (2015: 59).

Generoaren oinarriko parekidetasun-falta agerikoa da kuantitatiboki, eta sorgin-gurpil bilakatua du sektorearen balio-kate osoa. CIMA Espainiako ikus-entzunezkoan eta Zinemari diharduten Emakumeen Elkarteak berriki egindako azterketak dioenez, gizonek dute “sorkuntza, botere eta ardura postuen % 74” (CIMA, 2016: 25). Hala, emakumeen ikusezintasunak errealitatearen ikuspegi maskulinoa ezarri du. Eta horren eragina ezin da kuantitatiboki neurtu. Figura femeninoaren murrizketak ukatu egiten du kultura-ondarean emakumeek egin dezaketen jakintza-ekarpena, bai eta horren bidez gizartean hedatu daitezkeen balio garrantzitsuak ere. Beste modu batera esanda, errealitatearen zati bat ezabatzea bezalaxe da emakumezko erreferenterik ez izatea. Larriagoa da arazoa ikus-entzunezkoaren eragin-ahalmena kontuan hartzen bada.

EAEko ikus-entzunezko industriako agenteen (zinema, dokumentalak, telebista, publizitatea eta espezializatu gabeak) enplegua 1.230 lagunekoa da, Eustat Euskal Estatistika Erakundearen arabera. Gizonezkoak kopuru horren % 60 dira (Eustat, 2016). Oraindik eta areago, ikus-entzunezkoekin lotutako ikasketetan izena emana duten hamar ikasletatik sei dira emakumeak EAEn. Beraz, ikus-entzunezkoan, informazio kuantitatiboak

talka egiten du emakumeen errepresentazio-mailarekin. Koska deigarria da, jakinik emakumeak direla erabiltzaile nagusiak kultura-ekoizpenaren ia genero guztietan (Kulturaren Euskal Behatokia, 2008).

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana EAEn osatu du Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak, eta ohartarazi du emakume gutxiago dagoela “kultura eta arte-ekoizpen eremuetan, bai eta ikerketan eta zientzian ere”. Hain zuzen ere, “eremu horiek bultzada behar dutela, emakumeek gizartean modu orekatuan parte hartu ahal izan dezaten” (Emakunde 2014: 91).

Genero-parekotasunik eza eta emakumeen ikusgarritasun-falta, ordea, ez da egiturazko arazoa. Ikerketa kualitatiboak erakutsi duenez, emakumeen profesionaltasun-arazoak lotuago daude historikoki gizartean sakon errotutako patriarkatuarekin eta zenbait kontzepturi lotutako ideologiarekin, hala nola familia, gizarte-tradizioak ezarritako genero-rol mugatuak, amatasuna, familiaren zaintza... Emakumeek gizarteko esparru guztietan parte hartzeko berdintasuna izan behar dute, eta, bereziki, ikus-entzunezkoetan; izan ere, Unescoren adierazpenei jarraikiz, kultura genero-rolak indartzeko, irudikatze eta zalantzan jartzeko erreminta boteretsua da. Beraz, ikerketa honekin gaiaren gaineko gogoeta ere bultzatu eta eztabaida zabaldu nahi da.

¹⁴ 2012an, emakumezko zinemagile, aktore eta operadoreen soldata lanpostu bereko gizonezkoena baino % 30 txikiagoa zen. Urte hartan bertan akreditutako zinema-zuzendarien % 23 soilik ziren emakumeak; gainera, horien lanek gizonezkoen baino aurrekontu txikiagoa izan zuten (Unesco, 2016: 94).

2. Helburuak

Emakumeek bizi duten lehia aztertzea txosten honen bizkarrezurra bada ere, gaia ez da esparru femininora soilik mugatu behar. Emakumeen eta gizonen arteko parekotasunik eza gizarte eta kultura-ohiturei lotutako arazo konplexua da; zehazki, komunitate osoan du eragina auziak. Zirkuitu berean, parekidetasun-falta bultzatzen duten mekanismoek gaizto elikatzen dute elkar. Egoera horretan, ez dago gauzak aldatzeko modurik, ez bada neurri aktiboak ezarrita. Besteak beste, ikusgarritasun, sentsibilizazio, heziketa, genero-rolen aldaketa eta emakumeen promozio estrategiak; guztiak ere, gizarte-balioen aldaketa, autoestimua, autonomia eta ahalduntze pertsonala zein kolektiboa sustatzeko.

Alderdi kuantitatiboak erakutsi du genero-parekotasunik eza bertikalki zein horizontalki jazotzen dela. Hau da, batetik, ardura- eta botere-postuetan emakume gutxiago ageri da (bertikala), eta bestetik, lan-taldeetan ez da parekidetasunik betetzen genero-errepresentazioari dagokionez (horizontala). Sektorearen erronkak identifikatzeko, ordea, kualitatiboki sakondu behar da gaian, protagonistak gertutik ezagutu eta haien ahotik ikus-entzunezkoaren desafioak azaleratu.

Azterketa honen helburu orokorra da euskal ikus-entzunezko sektorean emakumeak gaur egun zer egoeratan diren jakitea. Hain zuzen, sektorera sartzeko oztopoak, haien lan-egoera, bizipen pertsonalak, iradokizunak eta iritziak jaso nahi dira, besteak beste. Hala, helburu orokorretik tiraka, halaber aurreikusten du ikerketa honek galdera zehatzago hauek erantzuteko beharra:

- Zer pertzepzio dute, oro har, emakumeek euskal ikus-entzunezko lan-eremuaz?
- Haien ustez, ba al da genero-parekotasun ezik sektorean?
- Zer bide egiten dute emakumeek ikus-entzunezkoara sartzeko?
- Zer oztopo nagusi dituzte emakumeek ikus-entzunezkoan?
- Nolakoa da emakume profesionalen formazio maila?

- Zer lan-egoera dituzte emakumeek euskal ikus-entzunezkoan?
- Zer faktorek urruntzen eta gerturatzen dituzte emakumeak ardura-eta zuzendari-postuetatik?
- Zer familia-egoera bizi dute euskal ikus-entzunezko sektoreko emakumeek? Zer nolako eragina du amatasunak?
- Zer aukera eta oztopo dituzte emakumeek finantziazioa lortzerako garaian?
- Etorkizun hurbilean, zer landu behar du sektoreak genero-parekotasunaren hutsunea murrizteko euskal ikus-entzunezkoan?

3. Ikerketaren diseinua eta metodologia

Ikus-entzunezko eremuan genero-parekotasun ezaren prozesua ezagutzean zein sektorean parte hartzen duten emakumeen ikuspuntua jasotzean datza ikerketa honen helburua. Lan-harremanek zuzeneko eragina izan dezakete parekidetasun-faltan; izan ere, orain arteko hainbat ikerketak erakutsi dute sektorean ohikoak direla emakumeak baztertzeko joerak. Beraz, hipotesi nagusia da protagonisten iritzien bitartez ezagutu daitezkeela gaiari lotutako faktore eta azalpen garrantzitsuak, ikuspegi kuantitatiboaz harago.

Metodologia kualitatiboa erabili da ikerketa-lan hau egiteko eta tresna nagusia, berriz, sakoneko elkarriketa izan da. Horrela, hipotesi nagusia baieztatu ala ezeztatu ahal izango da. Interesgarria izango da zuzenean jasotzea Euskal Herriko ikus-entzunezkoaren sektorean lan egiten duten pertsonen bizipenak eta pentsamenduak.

EAEko ikus-entzunezko sektoreko hamabost emakume profesionali egin zaie elkarrizketa. Laginaren aukeraketa egiteko, aldiz, elkarrizketatuen ibilbide profesionala, lan-profila eta adina hartu dira kontuan. Hala, aniztasuna gorde da funtzioari, belaunaldi-aldaketari eta bakoitzaren esperientzia profesionalari dagokienez. Gaiaren gaineko ikuspegi eta jakintza sakona jasotzea da irizpide horien xedea. Elkarrizketatuen esparru geografiko zabala ere islatu da, izan ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako emakumeak batu dira.

Galdetegiari dagokionez, guztira, zazpi eremutan oinarritutako gai-zerrenda diseinatu da. Elkarrizketatuek lan-sektorearen gainean duten pertzepzio orokorraz, orain arte izandako esperientzia pertsonalaz, eta etorkizunean ikus-entzunezkoan landu beharreko alderdi nagusiez galdetu zaie.

1. taula. Elkarrizketatuen lagina eta ezaugarrien laburpena

Lurraldea	Adina	Profil profesionala	Prestakuntza akademikoa
Gipuzkoa	38	Fokularia	Goi-mailako LHZ: ekoizpena eta zuzendaritza
Gipuzkoa	28	Ekoizlea	<i>Ikus-entzunezko Komunikazioa</i> gradua Zinemarekin lotutako masterra (Bartzelona)
Bizkaia	29	Ekoizlea	<i>Ikus-entzunezko Komunikazioa</i> gradua Zinemarekin lotutako masterra (Erresuma Batua)
Gipuzkoa	52	Gidoilaria	Zuzenbideko lizentziatura Bikoizketa eta gidoigintza

Lurraldea	Adina	Profil profesionala	Prestakuntza akademikoa
Gipuzkoa	28	Arte-zuzendaria	Arte Ederretako gradua Eskultura- eta zeramika-ikastaroak
Bizkaia	33	Aktorea	Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziatua Antzerkia <i>Interpretazio, adimen emozional, animazio turistiko, bertsoen interpretazio eta antzerki musikala</i> ikasketak
Bizkaia	25	Fotografia-zuzendaria	<i>Ikus-entzunezko Komunikazioa</i> gradua Goi-mailako LHZ: argazki-zuzendaritza
Araba	23	Soinu-teknikaria	Goi-mailako LHZ: ekoizpena eta errealizazioa Goi-mailako LHZ: muntaiak, soinua eta posproduktzioa
Araba	28	Zuzendaria	<i>Ikus-entzunezko Komunikazioa</i> gradua (Bartzelona)
Gipuzkoa	51	Zuzendaria	Antzerki-ikasketak Pedagogia (3 urtez)
Bizkaia	41	Gidoilaria	Ingeniaritza informatikoa <i>Informatika musikala eta edizioa</i> ikasketak Marraski bizidunak 3Dn ikastaroa Solfeo, piano eta armonia ikasketak



Lurraldea	Adina	Profil profesionala	Prestakuntza akademikoa
Bizkaia	41	Zuzendaria	Goi-mailako LHZ: soinua eta irudia
			Goi-mailako LHZ: zuzendaritza
Gipuzkoa	62	Aktorea	Filologia erromanikoa
Gipuzkoa	29	Editorea	<i>Ikus-entzunezko Komunikazioa</i> gradua
Gipuzkoa	27	Editorea	<i>Ikus-entzunezko Komunikazioa</i> gradua
			Zinemarekin lotutako masterra: edizioa eta posprodukzioa
			<i>3Dko animazioa eta bideojokoak</i> ikastaroa

dira, bai eta horien gaineko iritzi kontrajarriak ere. Batik bat, belaunaldien artean nabarmendu da ezaugarri hori. Bestalde, elkarrizketatu gehienek gaiaren konplexutasuna agertu eta galdera askori erantzuteko zailtasuna izatea aitortu dute sarri.

4.1. Elkarrizketatuek sektoreaz duten pertzepzio pertsonala

Oro har, gaur egun, 80ko eta 90eko hamarkadetan baino egoera hobea bizi dutela uste dute elkarrizketatutako emakumeek. Ibilbide profesional luzea zein laburra izan dutenek ere. Ikus-entzunezko sektoreran sartzeko zailtasuna “berezkoa” da haien ustez, gizonezkoentzat nahiz emakumezkoentzat, eta genero-parekotasunik eza oraindik ere presente dago. Hala ere, ikerketa honen protagonistek hoberako aldaketa sumatu dute azken urteetan genero-berdintasunari dagokionez:

“Esango nuke gauzak asko aldatu direla urteetan. 52 urte ditut eta, bai, esango nuke hasi nintzenean emakume gutxiago zebilela sektorean lanean”

(Zuzendaria, 52 urte. Gipuzkoa)

“Emakumeen ikusgarritasuna aldatu zen 80ko hamarkadatik 90eko hamarkadara. Filmetan jorratzen zituzten gaiak politikoak eta emakumeen irudia gizonezkoen albokoa bakarrik izatetik, alde teknikoan kamara aurrean zein atzean egotera pasatu zen. Filmen gaiak ere asko aldatu ziren, adibidez, ‘Vacas’-en (1992). Hasi ziren halaber emakumeak lehen aldiz filmak zuzentzen: Arantxa Lazkano, ‘Urte ilunak’ (1993). Oso pelikula ezberdinak ziren, protagonista neskatila bat zen eta haren mundua kontatzen zen. Beharbada, zuzendaria emakumea zelako. (...) Baina non daude emakume horiek gaur egun?”

(Aktorea, 62 urte. Gipuzkoa)

4. Emakumeen egoera euskal ikus-entzunezkoan: berezitasunak eta arazoak

Lan kualitatiboaren bitartez, elkarrizketatuen pertzepzio eta bizipen pertsonalak bildu dira. Informazio hori, berriz, puntu-zerrenda batean banatu eta protagonistek azpimarratutako ideia nagusiak ekarri dira atal honetara. Ikus-entzunezkoari lotutako elementu eta faktore ugari azaldu

Gizartean sakon eta urte luzez errotutako patriarkatua da, askoren ustez, parekidetasun-falta azaltzen duen fenomeno nagusietako bat. Horri erantsi behar zaio zinema “betidanik izan dela gizonezkoen mundua”. Azken urteetako krisi-garaiak, ordea, “batzeko eta gure balioak” erakusteko aukera eman die. Emakume profesionalen presentzia areagotu bada ere, jakitun dira benetako aldaketa ezin dela egun batetik bestera gertatu:

“Ezin dugu goizetik gauera pasa matxismo absolutu batetik % 100eko parekidetasunera, gudan eta gizarte-rol guztietan erabat integratua den gauza baita. Pixkanaka aldatzen den fenomeno da. Orain gauza normala izan daiteke 12 urteko mutiko batek pentsatzea bere lagunak 14 urte izatean mutil bat gustuko izango duela. Neska bat izanda, berdin. Guretzako hori gauza erabat freak-a zen; eta gaur egun elkarrekin tragoak hartzen dituen belaunaldi batez ari gara berba egiten”

(Zuzendaria, 41 urte. Bizkaia)

4.2. Autoestimua eta ahalduntze pertsonala, giltzarri

Emakumezkoak minoritarioak dira sorkuntza eta kultura kudeatzeko ardura-postuetan. Ikerlan honetan parte hartu duten emakumezko profesionalak, berriz, halako lanpostuak hartzeko nahikoa formazio akademikoa badutela erakusten dute. Errealitatearen errepresentazioen arteko talka horretan, euskal ikus-entzunezkoan diharduten emakumezkoek ikara-sentimenduak helarazten dituzte hainbat lan egiteko garaian. Ziurgabetasuna, ezintasuna edo nork bere burua gutxiestea, besteak beste:

“Agian gaiaren arabera, egia da batzuek, gizonezko batzuek, askoz gaitasun handiagoa dutela gai batzuk lantzeko eta emakumezkoek, berriz, beste batzuk. Baliteke, ez dakit. Edo horretara ohituak gauden eta hori sinesten dugu? Ez dakit”

(Aktorea, 33. Bizkaia)

“Uste dut ona naizela soinuan, baina neska izanda ez dituzu aukera gehiegi, emakumeak ez gara lehen aukera izaten esparru honetan. Txikia naiz eta...”

(Soinu teknikaria, 23. Araba)

Adierazpen horiek erakusten dute zenbateko gabezia dagoen emakume liderrak hezten. Elkarriketatuek azaltzen dute laneko eta bizitzako egoera askotan beraien buruekin dutela borroka, eta, hain zuzen ere, hezkuntza sistematik datorren arazoa dela. Ondorioz, aditzera ematen dute ikus-entzunezkoen zuzendari izan nahi duten emakumeen kopuru txikiago hori sakonago aztertu behar litzatekeela, eta ez hainbeste zergatik laguntzen zaien gehiago gizonezkoek zuzendutako proiektuei. Ardura-postuak hartzeko prest dauden hautagaien artean bertan legoke jada genero-berdintasunik eza:

“Uste dut badugula borroka bat, hezkuntzatik datorrena. Gu ez gaude hezita plazan ibiltzeko, baizik eta etxean egoteko. Itzalean. Alboan egoteko hezi gaituzte bakarrik. Zuzendari laguntzaile, ekoizle... hor dagoena, baina beti alboan. Beraz, zuzentzen hasi nahi dugunok lan hirukoitza egin behar dugu. Erantsi horri emakumeok dugun konfiantza-eza”

(Ekoizlea, 28. Gipuzkoa)

4.3. Auto-zentsura ala ikusgarritasun-hutsunea?

Euskal ikus-entzunezko sektorean lanean diharduten emakumeen ustez, zinema-zuzendari ezagunenak gizonetzkoak dira. Beraz, emakumeek ez dute erreferenterik izan “ahal dugu” esan ahal izateko. Esaterako, salatzen dute unibertsitatean ia beti gizonetzkoek egindako lanak erakusten direla, eta emakumeen adibideak egon badaudela erantsi dute.

Batzuek irizten diote lanpostu asko gizonetzkoek betetzen dituztenez, “errazagoa dela norbaiten bila bazabiltza esperientziadun gizonetzko gehiago izatea. Ohitura eta historiagatik” ematen den fenomeno da, “errazago iritsi dira postu horietara”. Beste batzuek, aldiz, uste dute emakumezkoek ez zaiela parte hartzeko aukera bera ematen:

“Hamar mutil dituzu bost paper egiteko eta 100 neska on, bada, akaso lau paper egiteko. Orduan, hor desoreka dago, mutilek beti dute askoz interbentzio gehiago. (...) Bestalde, askotan gertatzen zaigu, gidoieta azaltzen da garbitzaile bat eta emakume bati deitzen diozu. Zergatik? Hor badugu arazo bat guk ere: non jartzen du garbitzailea neska dela?”

(Gidoilaria, 52 urte. Gipuzkoa)

“Askotan ikusten dudana da aukera-falta. Fotografia-zuzendaria, kamera-operadorea, normalean, gizonetzkoak izaten dira; kamera-laguntzailea, berriz, emakumezkoa. Hierarkia dago”

(Arte-zuzendaria, 25. Bizkaia)

Aitortzen dute genero-parekotasunik eza ez dela bakarrik ikus-entzunezko sektorean gertatzen, baizik eta arlo guztietan; “baina, sektore honetan oso nabaria da”. Zeinek idazten du? Zeinek zuzentzen du?

“L ‘La película de L.G.M.’ (gizonetzko baten izena), filma biok zuzendua denean. Borroka gehiago egin behar duzu neska izanda. Ematen du ez dakigula. Batzuetan honelakoak entzuten dira: ‘ba, honek ez du jakingo. De cosas técnicas eta...’, ez? Eta gauza ez dago pertsonaren esperientzia-mailan, askotan sortzen dira afinitate batzuk zinemaren gizonetzkoenak direnak edo, ez dakit. Matxismo-puntua dago”

(Gidoilaria, 41. Bizkaia)

Parte hartzeko aukera mugatuak bultzatu ditu emakumeak askotariko diziplinak garatu behar izatera, bai eta gehienak sektorearen arlo batean pilotzea ere. Arlo teknikoan, adibidez, emakume gutxiago ageri da. Ildo horretan, salatzen dute zenbat eta beranduago iritsi emakumea postu horietara orduan eta denbora gehiago beharko dela errealitate hori normalizatzeko. Elkarrizketatuen bizipenak horren isla dira:

“Ekoizpenean lan egiteko askotan deitu izan didate, baina soinu ia inoiz ere ez. Nik uste dut, agian, buruan sartua dugula pertika hartzeko altuak izan behar dugula edo. (...) Curriculum berarekin kontratazio baten aurrean gizonetzkoa ni baino pauso bat harago egongo litzateke beti. Bafleak mugitu behar dituzu... eta esaten dute: emakume bat ez. Emanaldi batean soinua antolatzeke lan elkarrizketa batean galdetu zidaten ia non egon nahi nuen eta gauzak mugitzen ibiltzeko aukera aipatu nuenean esan zidaten: ‘Ez. Mutilak kontratatzen ditut, izan ere, esaten badiet emakume bat datorrela arazoak sortuko dira’. Alegia, ‘ez zara profil horretan sartzen. Zu hobe ‘walkie-talkieak’ antolatzen”

(Soinu-teknikaria, 23. Araba)

4.4. Lan-sareak (oz)topo-bide

Euskal ikus-entzunezko industriaren tamaina txikia da Madrilgoaren edo Bartzelonakoaren aldean. Ondorioz, proiektu gutxiago egiten dira eta lagun gutxiagok dute profesioa ogibide izateko aukera. Hala ere, lana bilatzeko garaian, elkarrizketatutako emakumeek kontaktu- edo lan-sareak izatearen garrantzia nabarmentzen dute. Normalean, lan-taldeak aldez aurretik osatuak izaten dira eta curriculumaren gainetik konfiantzako jendearekin lan egiteari ematen zaio lehentasuna:

“Nola betidanik izan den gizonen mundua, bada, hor sartu egin behar da. Eta zinema-mundura sartzea, berez, oso zaila da. Familiar bat daukazula edo lagun bat? Horrek laguntzen du; izan ere, zinema-munduan sartzea jada oso-oso zaila da”

(Fokularia, 38 urte. Gipuzkoa)

Fenomeno horri erreferentzia egiteko “klub” hitza erabili dute elkarrizketatutako emakume batzuek, eta erantsi “jendea ez dela erraz zabaltzen ideia berrietara”. Bereziki, ikuspegi hori belaunaldi gazteetako emakumezkoek adierazi dute.

“Zinema-munduan badago, halaber, endogamia handia, beti lagun berak aritzen dira lanean eta berek jasotzen dituzte diru-laguntzak, eta ni beti nire lagunekin eta... Ulegarria ere bada; azken finean, ondo funtzionatu badute normala da konfiantza izatea”

(Ekoizlea, 28 urte. Gipuzkoa)

4.5. Tradizioaren eta kultura-ohituen zama

Elkarrizketatuen artean arrunt sentimendu partekatua da gizartearen txikitatik transmititu direla balio mugatuak genero bakoitzaren gainean. Alegia, emakumeek eta gizonzkoek bete behar dituzten “derrigorrezko”

funtzioak. Emakumeei oztopo ugari eragin dizkie fenomeno horrek, bereziki, lan mundurako saltoa emateko garaian. Kasu askotan norbere gogo eta nahia familia tradizioarekin kontrajarria ikusi dute, adibidez.

“Txikitan bizi izan dut. Gure amama, adibidez, oso tradizionala da eta niri eskatzen zizkidan gauza batzuk anaiari eskatzen ez zizkionak, ezta? Modernotasunak ekarri du pixka bat tradizionaltasun horrekin apurtzea”

(Arte-zuzendaria, 28 urte. Gipuzkoa)

Horren ondorioz, ez da ohikoa gizonzkoek bete izan dituzten funtzioetan emakumeak ikustea. Horrela gertatzen den kasuetan, gainera, gauza arrarotzat jotzen da. Normaltasunetik kanpo balego bezala, bai eta alderantziz gertatzen bada ere.

“Gizartea, ordea, ez dago prest ikusteko gizonzko eta emakumezko mota ezberdinak. Dena oso markatua dago. Emakumea baldin bazara izan behar duzu honelakoa eta gizonzkoa bazara horrelakoa. Horrek min handia egin du, izan ere, gizonzkoak modu batekoak izatera bultzatuak sentitzen dira askotan. Agian, badira beste mota batzuetako gizonak”

(Soinu-teknikaria, 23 urte. Araba)

Testuinguru horretan, emakumeek ahalegin handiagoa egin behar izaten dute eta deseroso sentitzen dira egoera askotan.

“Gero bada beste kontu bat, noski: bazoaz bilera batera edo jende talde handi batekin zaude eta, emakumezkoa eta gaztea izanik, ba argi dago askotan ez zaituztela benetan hartuko. Adibidez, nik askotan esaten dudana gauza bat atentziora handia ematen didana: bilera batean gizonzkoek elkarri eskua ematen diotela eta zuri, emakumea zarelako, bi muxu, ezta? Horrek jada ezartzen du emakumezkoarekin duzun harremana. Profesionala vs. pertsonala. Horrelako gauza pila bat gertatzen dira, baina askotan hitzez adierazi ere ezin ditzakedanak. Sentsazioak direnak, eta hori oso zaila da kudeatzen eta neurtzen”

(Zuzendaria, 28. Araba)

“Eta modu batean normala da haiek gu horrela ikustea; izan ere, kontuan baldin baduzu sartu diguten emakumezkoaren kontzeptu hori... publizitatearekin, gauza horiekin... bada, hori ez da zure lekua. Zure lekua da titiak erakustea kotxe bat saltzeko, ezta?”

(Fokularia, 38 urte. Gipuzkoa)

4.6. Hedabideak eta emakumeak, lagun “minak”

Ikusgarritasun-falta eta ez ikusiarena egitea gauza bat bera dira. Praktika horren jarraitutasunak bultzatu du ikus-entzunezko profesionalen erreklutamendu-sisteman irizpide maskulinoak ezartzea. Egungo egoeran, beraz, beharrezkoa da emakumeen nabarmentze publikoa; hain zuzen, genero femeninoaren ekoizpenari presentzia kuantitatibo bidezkoa bermatzeko.

“Esaterako, gizonzkoek zuzendutako ‘Loreak’ edo ‘Amama’ filmek arrakasta handia izan dute. Aldiz, ‘Un otoño sin Berlín’ (Lara Izagirre) eta ‘El último verano’ (Leire Apellaniz) filmek arrakasta izan bai, baina ez horrenbestekoa. Ez dute oihartzun handirik izan”

(Fotografia-zuzendaria, 25. Bizkaia)

Hedabideak funtsezko tresna dira parekidetasuna normalizatzeko, bai eta emakumeen parte-hartzea gizartearen esparru guztietan balioan jartzeko ere. Alabaina, protagonistek adierazten dute komunikazio- eta publizitate-sistemak kontrako emaitza bultzatzen duela, izan ere, ez dituzte emakumeak aintzat hartzen.

“Prentsa-artikuluetan bai, aipatu izan naute filmaren zuzendariaren neskalgun moduan, ekoizle moduan aipatu beharrean. Batzuetan bi moduetan, gehienetan bietan. Baina artikulu pare batean neskalgun moduan baino ez. Hori bai, bera ez da nire bikotekidea, ni neu naiz zuzendariaren bikotekidea beti”

(Ekoizlea, 29. Bizkaia)

Orokorkerian erori gabe, elkarrizketatuek aipatzen dute lanen atzean emakumea ala gizona dagoen baino gehiago, ideiak direla balioan jarri beharreko elementuak. Orain arteko medioen joera, berriz, izan da gizonzkoen ikus-entzunezko ekoizpen-lana nabarmentzea nagusiki eta, ondorioz, “betidanik izan dute dena errazago”.

“Orain, adibidez, Lara Izagirre dago, bat, Helena Taberna ere bai, beste bat... baina emakume gutxi daude, ezta? Alex de la Iglesia edo Juanma Bajo Ulloa zaharragoak dira eta ezagunagoak zaizkio jendeari. Zergatik? Ez dago emakumezko erreferenterik”

(Gidoilaria, 41. Bizkaia)

“Audientziak ere baditu bere aurreiritziak. Niri tokatu izan zait entzutea: “jo, emakumezko baten film bat? vaya... izango da sensibleria, izango da...”. Ez da egia, denetarik dago.”

(Aktorea, 62. Gipuzkoa)

4.7. Hizkuntza eta jarrera sexisten presentzia

“Berdinak gara eta aldi berean ezberdinak” azpimarratzen du elkarrizketatutako batek. Emakumeek eskaini dezakeen begiradak ezaugarri “freskoak” ditu eta gauzak egiteko “beste modu bat” posible dela erakutsi dezake. Funtsean, emakumeek bizi izandako esperientziak bestelako istorioak bultzatu ditu haiengan eta errealitatearen gaineko bestelako ikuspegia dute. Ikus-entzunezko sektorean aurrera egiteko bidean, baina, barne-gaztaka pertsonalaz harago beste oztopo garrantzitsua aipatzen dute elkarrizketatuek: pairatzen duten jarrera eta hizkuntza sexista.

“Zu emakumea zara eta fotografia-zuzendaria izan nahi duzu? Badakizu zenbat pisatzen duten kamerek? Badakizu argiztapen taldean 15 watteko fresnelak hartzen? Nola ausartzen zara zuzentzera inoiz ez baduzu halakorik egin”

(Fotografia-zuzendaria, 25. Bizkaia)

Arlo teknikoan jazotzen dira halako egoerak, nagusiki. Azken urteetan, gainera, emakumezko gehiago ageri dira sektorearen esparru horretan lanean. Protagonistek adierazten dute aldaketa hori gizonek ez dutela egun batetik bestera onartuko, harreman asko gatazkatsuak direla oraindik ere baldin eta arduraren postuetan emakumeak badaude. Gizonezkoak aginduak ematen ohituta daudenez, ez dute begi onez ikusten emakumearen presentzia.

“Gaur egun, taldekide gehienak emakumeak badira, bereziki kamerari moduan, ez zaiela gehiegi gustatzen beraiei “hau egin behar da” esaten ibiltzea. Bereziki teknikariei dagokienez, ez da berdina zuk esatea ala mutil batek esatea zerbait. Ados, egin egin behar dute zuk esaten duzulako, baina ez dut ikusten eroso egiten dutenik. Eta hori gaur egun, diot. Gogorra da hori esan beharra”

(Gidoilaria, 41. Bizkaia)

Ildo horretan, emakumeen eta gizonezkoen arteko parekotasunik eza areagotzeko, gizonezkoek jarrera sexistak praktikan jartzen dituztela salatzen dute. Besteak beste, emakumeen fisikoaren gaineko komentarioak emakumeek beste hainbeste egiteko aukerarik izan gabe. Are gehiago, gertakari iraingarriak ere izaten dira.

“Lan honetan hasi nintzenez asko tapatzen nintzen arroparekin, bestela begiratzen dizute, esaten dizute edo ukitzen dizute. Dena. Makurtu eta ur botila bat sartu atzeko partean... klaro, 24 urterekin, gizon pila bat. Batzuetan erantzuten duzu, baina ni askotan ez nago prest erantzun egokia emateko. Ni lanean banago, kontzentratuta nago beste gauza batzuetan. “Neska hori postu horretan dago ez dakit norekin oheratu delako...”. Ni joaten naiz normal jantzita, baina neska gazteak hasi dira oso short motzekin eta sujetadore ikusgarriekin etortzen errodatejeara ni ez nintzateke hala joango. Lanean zabilta eta eroso egon behar duzu”

(Fokularia, 38. Gipuzkoa)

Errealitate hori gauza normala balitz bezala gizarteratuta egotea da, hain zuzen, arazo nagusia. Genero-parekotasunik eza egunero, etengabe eta esparru guztietan azpimarratzea ideologia jakin bat indartzeko mekanismo eraginkorra baita.

5. Sektorearen erronka-esparruak

Azterketan jasotako emaitzaren arabera, euskal ikus-entzunezko sektoreak baditu erronka zehatzak emakumearen egungo egoera hobetzeko. Agerian geratu da gure gizarte ohiturak sinesmenetan oinarrituak direla batik bat. Etorkizunean horiek aldatu ahal izateko lana zazpi eremutan banatzen da.

5.1. Hezkuntza-sisteman eragitea

Munduan funtzionarazten duten irizpideak, neurri handi batean, maskulinoak dira. Egungo hezkuntza-sisteman etorkizunean nahi dutena izateko hezten dira gizonezkoak. Bereziki, zuzendariak izaten saiatzeko. Emaitza positiboa lortzen ez bada, gainera, ez legoke arazorik, saiatzea baita helburua. Emakumeek, aldiz, haiek halako bi erakutsi beharko dute ohiko roletatik kanpo aritu nahi badute, konfiantza soilik gizonezkoengan bultzatzen baita. Eskolan zein etxean txikitatik helarazten den mezua hori bada, generoen arteko parekotasun-eza izango da ezinbesteko emaitza. Horregatik, berdintasunean oinarritzen den irakaskuntza-mota behar du egungo gizarteak.

5.2. Erreferentzia femeninoak indartzea

Euskal ikus-entzunezko sektorean emakumezko profesionalak izan badira. Ezagunak, ordea, gutxi. Ikusgai jartzen diren lan gehienak gizonezkoek zuzendutakoak dira, ondorioz, errealitatearen ikuspegi bakarra helarazten da. Hau da, sektore honetan, lan askorik egin ez

badute ia ikusezinak dira emakumeak. Baina emakumezko zuzendariak ez ezik, emakumeek eginiko lan teknikoak ere badira eta gizarteak erreferente horiek behar ditu; kameraren aurrekoak zein atzekoak. Gizarte-errealitatearen bestelako ikuspegia erakusteko eta barneratzeko beharra agerikoa da genero-berdintasuna lortzeko.

5.3. Emakumeen ahalduntze pertsonala bultzatzea

Nabari zaizkie ikerketa honen protagonistei barne-gatazka sentimenduak, eta beren buruarekiko inkontzienteki hartzen dituzten jarrera baztertzailak ere bai. Iniziatiba-faltan du praktika horrek jatorria, eta urte luzeetako parte-hartzeko aukera mugatuak emakumeen ahalduntze pertsonala oztopatu du. Egoera horretan, funtsezkoa da gizarte kolektiboaren balioak aldatzeko mekanismoak eta emakumeentzako espazioak areagotzeko egitasmoak ezartzea.

5.4. Elkarlanean jardutea aurrerako bidean

Ez dago ezberdintasunik emakumezko eta gizonezkoen artean, beraz, etorkizunera begiratzen duen bidea elkarrekin egin behar dute. Kontratatzailak zein kontratatuek. Ikus-entzunezkoaren sektorean genero-berdintasuna esparru femininora murriztu ez ezik, bi sexuei dagokien erronka ere bada. Gizonengan arazoaren gaineko kontzientzia piztu eta haien inplikazioa beharrezkoa da, beraz. Horretarako, ordea, politika edo egitasmo bat batera diseinatzea beste irtenbiderik ez dago.

5.5. Lana eta familia adiskidetzea, genero-maila parekoan

Ikus-entzunezko sektoreak eska diezazuke bi astez edo hiru hilabetez etxetik kanpo lanean pasatu behar izatea. Horri dagokionez ere, emakumeek zailago bizi dute lana eta familia bateratzea. Oro har, joera da gizonezkoek profesioaren aldeko apustua egitea eta emakumeek lana uztea seme-alabak izan ondoren. Beste modu batean esanda, gizonezkoen mesedetan emakumeek uko egiten diete beren etorkizun

profesionalari. Alderantziz jazoko bada, gizonezkoek gaiaren gaineko kontzientzia handia izan behar dute ezinbestean. Hau da, egoera horretan emakumeari laguntzeko, etxean geratzeko eta ardurak elkarrekin banatzeko prest egotea.

Horri gehitu behar zaio egungo lan-sistemak ez duela ama izateko aukera aintzat hartzen: lanaldia, amatasun-lizentziaren iraupena etab. Sistema ez dago antolatuta hala nahi izanez gero ugalketa eta lana bateratu ahal izateko. Jakina, ez eta lana uzteko erabakia hartu eta gerora hura berreskuratzeko ere.

5.6. Euskal ikus-entzunezko sektorea indartzea

Industria txikia da euskal ikus-entzunezkoa; Madrilen, Bartzelonan edota AEBn askoz ere film gehiago egiten dira. Sektore txiki horretan sartzea berez zaila bada edonorentzat, emakumezkoentzat are zailagoa da. Lan egiteko baldintzak, ordutegiak, kontratu-motak... ez dute laguntzen emakumearen egoera hobetzen. Beraz, etxeko industriaren osasunak emakumearen egoerarekin ere badu loturarik. Berdintasun-neurriekin batera, sektorea are gehiago bultzatzeko tresnak zein ekimenak bideratu behar dira, ekonomikoak, profesionalen formazioarekin lotutakoak, logistikoak eta lanen banaketa ahalbidetzen dutenak, besteak beste.

5.7. Ikerketa eta garapena lantzea

Gizarteko edozein esparrutako ikerketa-lanak garrantzitsuak dira, jasotako emaitzen gaineko hobekuntza proposamenak egin eta gauzatu ahal izateko. Ikus-entzunezkoan den genero-parekidetasun faltak benetako gogoeta merezi zuen eta azterketa honekin sektorearen garapenerako lehen pausoa eman da. Ikus-entzunezkoen eremuak bizi duen arazoa ez da egiturazkoa eta, beraz, egindako lan honek garrantzi berezia du. Sektorearen berezko izaera aldakorra dela eta, lan-harremanak eta ikus-entzunezkoak egiteko moduak etengabe aldatuko dira. Beraz, sektorean parte hartzen duten eragile guztien ardura da gai honi jarraipen zorrotza egitea etorkizun hurbilean.

6. Gomendio-proposamenak

EAEko ikus-entzunezko sektorean genero-parekidetasun falta eragiten duten faktore nagusiak azaleratu ditu ikerketa honek. Hala, eragile publikoek zein pribatuek neurriak hartu beharko dituzte emakumei eremu horretan parte hartzeko aukera berdintasuna bermatzeko. Aurretik esan bezala, kulturaren eta ikus-entzunezkoaren esparruek potentzial handia dute arlo horretan eragiteko eta genero-berdintasunaren gaineko balio berriak gizarteratzeko. Laburbilduz, ikerketa-lan honen azken ekarpen gisa, aurrera begirako bederatzi lan-ildo proposatzen dira:

2. taula. Berdintasun-ekintzen zerrenda

1. Berdintasun-politikak diseinatzea eta ezartzea ikus-entzunezkoen eremuan
2. Ekintza positibo neurriak aplikatzea, emakumeen gutxiengo presentzia bermatzeko
3. Politika berriak belaunaldien arteko ezberdintasunetara egokitzea
4. Emakumeek eta gizonen presentzia bera izan dezaten jardutea ikus-entzunezko ekoizpenaren eskaintzan
5. Emakumei erabakiak hartzeko sarbidea erraztea
6. Emakumeen ikus-entzunezkoaren inguruko heziketa, gaitasuna eta formazio profesionala sendotzea
7. Emakumeentzako kreditu eta finantza-baliabideak eskuratzen laguntzea
8. Emakumeen ikusgarritasunerako eta sentsibilizazio-egitasmoak bultzatzea
9. Sektorearen estatistikaren eta adierazleen jarraipena egitea
10. Euskal Ikus-entzunezkoen Behatokia sortu

Erabilitako informazio-iturriak

CIMA Asociación de Mujeres Cineastas y de los Medios Audiovisuales (2015) Informe anual CIMA 2015. *La presencia de las mujeres en el sector cinematográfico*. (Azken kontsulta: 2016/08/29) ➤

Emakunde (2014) EAEko *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana*. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea, Vitoria-Gasteiz. ➤

Euskal Kulturaren Behatokia (2008) 2007-2008ko *Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikak eta -kontsumoari buruzko inkestak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz. (Azken kontsulta: 2016/10/5) ➤

EWA, European Women's Audiovisual Network (2016) *Report on gender equality for directors in the European film industry 2006-2013*. (Azken kontsulta: 2016/08/28) ➤

EUROSTAT (2016) *Culture statistics / 2016 edition*. Publications Office of the European Union, Luxembourg. ➤

Eustat (2016) *EAEko ikus-entzunezko industriaren agentzien enplegua, guztira eta batez beste, agentzia-tipologiaren arabera, sexuari jarraikiz*. 2013 (Azken kontsulta: 2016/09/11) ➤

INE Instituto Nacional de Estadística (2016) Las Cifras de Población activa. (Azken kontsulta: 2016/09/28)

Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2015) *Anuario de Estadísticas Culturales 2015 / Empleo cultura*. Subdirección General de Documentación y Publicaciones, Madrid. ➤

Talavera, J. (2014) *Female directors in European film productions. State of play and evolution between 2003 and 2012*. European Audiovisual Observatory, Strasbourg.

Unesco (2013) *Igualdad de Género, Patrimonio y Creatividad*. Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura (UNESCO), Paris. ➤

Unesco (2005) *Convención sobre la protección y la promoción de la diversidad de las expresiones culturales* (Azken kontsulta: 2016/08/08) ➤
<http://unesdoc.unesco.org/images/0014/001429/142919s.pdf> ➤

III.III. Iritzi artikulua

EMAKUMEEN PRESENTZIA IKUS-ENTZUNEZKOETAN Egoeraren inguruko gogoeta eta hobetzeko proposamenak, iritzi artikulua batean ANE MUÑOZ MITXELENA

Sarrera eta aurkezpen pertsonala - 87

1. Testuingurua. Tradizioari eustearen oztopoak - 87

2. Emakumeak ikus-entzunezkoen prestakuntzan - 88

3. Ikasketak amaitu ondoren zer? - 89

3.1. Lehen praktikak. Film laburren bidetik - 89

3.2. Lan mundura jauzia. Profesionalki aritzeko zailtasunak - 89

4. Emakumeak lanean: Fikziozko 10 euskal ekoizpen eredu - 90

4.1. Langile kontratatatuak - 91

4.2. Emakumeen presentzia, sailez sail - 92

GIDOIA - 92

TALDE ARTISTIKOA, GIDOIAREN BAITAN - 93

EKOIZPENA - 94

ZUZENDARITZA - 96

FOTOGRAFIA ETA KAMERA - 97

SOINUA - 98

GIROTZE-LANAK ETA DEKORAZIOA - 99

JANTZIAK - 100

MAKILLAJEA ETA ILE-APAINKETA - 100

ARGINDARRA - 101

MAKINISTAK - 101

MUNTAKETA - 101

MUSIKA - 101

EFEKTUAK (BEREZIAK ETA DIGITALAK) - 102

5. Emakumeon presentzia bizia - 102

5.1. Ikusgaitasuna zaintzen - 102

5.2. Epaimahien garrantzia - 103



Sarrera eta aurkezpen personala

Lan honen helburua aurretik egin diren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboek bildurikoari ekarpen pertsonala egitea da, eta ez haietan esandakoa errepikatzea. Jaso diren emaitza, ondorio eta proposamenak aintzat hartuz, emakumeen presentziari buruzko hausnarketa pertsonala egitea, alegia. Nola ikusten dudan egoera, barnetik ongi ezagutzen dudan alor horretan. Zer neurritan garen gutxiengoa, parekotasun ezaren arrazoiak, eta batez ere, zer egin dezakegun tradizioz gizonezkoenak izan diren lanpostu horiek aurrerantzean geuk emakumeok partekatu edo ordezkatzeko.

Ikasketekin hasi eta profesional bilakatu arteko bidean emakumeok dugun presentziaz hausnartzen dudan bitartean, langileon egoera sailez-sail aztertuko dugu. Hartarako, partaide izan naizen azken urteetako 10 fikziozko film luze hartu ditut eredutzat.

Esan bezala gogoeta-lan hau ikuspegi pertsonaletik aztertua izango denez, komenigarria deritzot lehenik eta behin nire burua aurkezteari:

Kazetaritza eta ikus-entzunezkoak Unibertsitatean ikasi ondoren, ibilbide luzea egin dut, beti ere kazetari lanak zinemakoekin partekatuz.

Zinemarekiko lehen harremana film laburren bitartez izan nuen. 90eko hamarkadan, urte batzuz skript eta zuzendari laguntzaile bezala ibili ondoren, nire berezko nahia zuzentzea zenez, hartarako prestatuta nengoela sentitu nuenean, animatu egin nintzen. Garai hartan Madrilen bizi nintzen. Pentsazue, emakumea, euskalduna, eta zuzendaria. Bada emakume bezala ez nuen oztoporik izan, euskaldun bezala zertxobait bai, eta zuzendari bezala, guztiz ezezaguna eta zuzendaritzan esperientziarik gabea izanda ere, laguntzak izan nituen. Euskal Herrira itzuli orduko, bertako teknikari esperientziadunetz inguratuta, zuzentzeari ekin nion. Denbora gutxian lau film labur zuzendu nituen, batzuk diru-laguntzekin

eta besteak kreditu pertsonal bati esker finantzatuak. Etxean ezezik nazioarteko mailan ere sariak eta esker onak jaso nituen, filmok jaialdi eta ekitaldi ezberdinetan erakutsi, eta guztiak amortizatzea lortu nuen. Gaur egun zineman skript bezala lan egiten dut, eta kazetaritzan dihardut.

1. Testuingurua. Tradizioari eustearen oztopoak

Emakumeok ikus-entzunezkoetan dugun presentziari buruz aritu ahal izateko, nahitaezkoa da bizi dugun testuingurua kontuan izatea. Izan ere, gure gizarteak tradizioz ezarritako genero ezberdintasunak eguneroko bizitzan islatzen dira, heziketan, lanean, famili giroan, lagunartean, kalean... Gizonezkoek ohituraz errazago egin izan dute lana etxetik kanpora, emakumeek etxeko lanak, amatasuna edota heldu eta gaixoen zaintza beregan hartzen zituzten bitartean.

Orain, Behatokitik Emakumeon Presentzia urria nola konpondu aztertzen ari garen bitartean, guk geuk, eta kasu honetan hedabide publiko batek, asko daukagu lantzeko. Deigarria egin zait egunotan telebistan (ETB) azaldu den iragarki atzerakoi bat, HERRIKO DENDARIAK izenekoa, dendarien izenak esaterakoan gizarte honetako pentsamolde atzerakoiekin bat egiten duena. Zera, harakin, iturgin eta arrandegikoari gizonezko izenak ematen dizkie, eta arropa denda, ile-apaindegia eta bitxien dendetakoei berriz, neskenak.



Hedabideek gizartearengan duten eragina kontuan izanik, argi dago halako mezuek kalte besterik ez digutela egiten. Ohiko rol tipifikatu horietatik ateratzerik ez dugun bitartean, akabo. Eta iragarki hori Eusko Jaurlaritzarena da. Horrekin asko esaten dut, ezta? Ez al genuke hortik hasi behar, emakumeon presentzia urriaren zergatia eztabaidatzerakoan?

Bada testuingurua argi izanik, goazen emakumeon presentziaz hausnartzera.

2. Emakumeak ikus-entzunezkoen prestakuntzan Egoera hobetzeko proposamenak.

Oinarrizko heziketako ikasketak amaituta, askok ez dute argi izaten etorkizunerako ze lanbide nahi luketen. Irudi eta Soinua, adibidez, gutxienez aukeratzen dute bokazioz, gehienek beste hainbat motiborengatik aukeratzen dute. Erraza ikusten dutelako, agian. Hartarako, Unibertsitatea (EHU eta MU) edo LHko ikasketa teknikoak daude aukeran (Erandioko Tartanga LHI, Gasteizko Mendizabala, Andoingo ESCIVI eskola). Espezializazio eskolak ere badaude, alor zehatzen inguruko master eta ikastaroak.

Azterketa kuantitatiboaren emaitzen arabera, ikus-entzunezkoek erakarrirako emakume gehienek unibertsitatera jotzen dute, ikaslegoaren gehiengoa osatuz. Alde teknikitik doazenak berriz, gehiago dira gizonaenak.

Ikasketok berez interesgarriak dira alorrera ohitzeko, lan-metodologia bat ikasteko, teknikak hobetu, gaiaren historia eta abar ikasteko. Baina batik bat **baliagarriak dira kontaktuak egiteko, harremanak sortzeko ikaskide nahiz irakasleen artean.**

Irakasleek adibideak erabiltzean emakumezkoen lanak ere gogoan izan beharko lituzkete. Behin eta berriro argi utzi emakumeak ikus-entzunezko sail guzti-guztietan lan egiteko gai direla. Hartarako beharrezkoa da **Konfiantza irabaztea** emakumeek gerora lan-munduan sartzeko lasaitasuna izan dezaten.

Oso interesgarriak dira, halaber, adin txikikoentzat antolatzen diren ikastaro bereziak (adibidez, Donostiako Larrotxenen). Txikitatik zaletasuna garatzeaz gain filmaketa baten nondik norakoak eta sail ezberdinen zereginak gertutik ezagutzeko aukera ematen diete gaztetxoei, eta horrela, oinarrizko heziketak amaitutakoan, argiago izango dute alor hau aukeratu ala ez. Neskak eta mutilak berdin aritzen direnez, komeni da taldeak osatzerakoan neskak bereziki kontuan izatea, haien gaitasunak nabarmentzea, alor guztietarako berdin prestatzea, eta praktikak egiterakoan ardura gehien duten postuak beraiei ere eskaintzea. Animatu behar zaie ikus-entzunezkoekiko erakarriak sentitu daitezen.

SORTZAILEAK: Ikus-entzunezko lan bat sortzeko ez da titulurik behar. Ez lizentzia, ez LHko ikasketak amaituta izatea. Jakina, teknikak eta lan-metodologia ikasita askoz prestatuagoak egongo gara, baina sortu, berez, edonork sor dezake, baliabideak dituen bitartean. Aurrerago ikusiko dugun bezala, ordea, oso emakumezko autore profesional gutxi dago, oraindik.

TEKNIKARIAK: Filmaketako lantaldea osatzen duten langileei dagokienez, ikasketak egitea ia nahitaezkoa da, autodidaktak edota hasieratik praktikak egiteko luxuzko aukera izan dutenak salbuespen. Teknikarien artean ere, gehienak gizonaenak dira, oraindik.

3. Ikasketak amaitu ondoren, zer? Lan mundura bidea errazteko proposamenak

Ikus-entzunezkoetan lan egiteko aukerak oso ezberdinak dira ekoiztetxez edo enpresa publikoaz ari bagara. Telebistan lan egiteko, adibidez, azterketak egiten dira, eta horiek gaudituta, lanpostua lor daiteke. Funtzionari moduan luzerako kontratuak izaten dituzte eta langileak saio batetik bestera zuzenean pasatzen dira, beti ere lanpostua mantenduz. Horietan, emakumeen presentzia gero eta nabarmenagoa da, sortzaile eta ardura handiko lanpostuetan oraindik gizonezkoek nagusi izaten jarraitzen duten arren.

Zineman lan egiteko, kurrikuluma bidaltzea alferrik da, ez dago deialdirik. Jadanik barruan dagoen norbait ezagutzea funtsezkoa da, kontaktuak izatea. Dena den, gurea oso industria urria izanik, oso film gutxi ekoizten dira eta ez dago lanik ikasketak amaitzen dituzten guztientzat. Gainera, askotan lantalde itxiak izaten dira eta, postu guztietarako “betiko langileak” dituzten ekoiztetxeek aldioro hasiberri batzuk aukeratzen dituzten arren, oso gutxi izaten dute aukera hori. Aurrerago ikusiko dugun bezala, emakumeen presentzia bermatzea kontratatzaileen esku dago. Aurreiritzi sozial tradizionalekin apurtzera bultzatu behar ditugu, hartarako.

3.1. Lehen praktikak. Film laburren bidetik

Profesional modura lan egin ahal izateko, nahitaezkoa da ezagutzera ematea. Gerora kontratatu edo gomendatuko zaituenak lanean ikus zaitzan. Ondo egiten baduzu, berriro deituko zaituzte, eta zure partaidetza iraunkorra bada, film luze bat egiterakoan aintzat hartuko zaituzte. Hartarako bidea, film laburrak dira.

Film labur baten lantaldean sartzea ez da hain zaila, ia beti musutruk lan egiten baita, eta ondorioz, ekoizleek ez dute lan maila handiegia exijitzerik. Esperientziadun langileekin lana partekatze bide aproposena da, gainera. Haien gogandik ikasiko duten bezala, guk ere asko daukagu haiengandik ikasteko.

Film laburretan dabilen inor ezagutu ezean, berriz, egoera berean diren beste ikaskideekin lantaldeak sortu eta ekinez egitea da bide bakarra, eta halakoetan, emakumeek ez genuke inolako oztoporik izan behar. Izan ere, emakume asko dabil laburretan, buru-belarri eta inplikazio osoz lanean.

Belaunaldi berriei begira, gaineratu behar dut gaurko teknologia berriek errazten dituztela praktikak egiteko aukerak. Edonork du kamera bat sakelean (mugikorren bideo kamerak gero eta kalitate handiagokoak dira, HDn grabatzeko ahalmena ematen dute), eta txiki eta arinak direnez, edozein ikuspuntu erabiltzeko balio dute: mugimenduan grabatzeko, edozein txokotik irudiak hartzeko...

Film laburretatik at ere, alorrean lehen saiakerak egiteko beste aukera dago: ESCIVik adibidez, ekoizpen handien filmaketetara praktikak egiteko ikasleak bidaltzen ditu. Bada, bidalitakoaren jarrera eta gaitasunak baloratzeaz gain, ez dadila beti mutila izan praktika horien bitartez profesionalen mundura sartzeko urrezko ate hori zabalik izango duena. Aitortzen dut emakumeak bidali izan dituztela.

3.2. Lan mundurako jauzia. Profesionalki aritzeko zailtasunak

Demagun emakume batek ikasketak amaitu, esperientzia hartu eta beharrezko kontaktuak egin dituela. Profesional modura lanean hasteko unea iritsi da. Nabarmena da, ordea, film laburretatik luzeetara pasatzerakoan emakumeen presentziak jasaten duen beherakada. Zer gertatzen da emakume horrekin lan mundura sartzeko orduan?



Zineman lan egiteko **bizimodu ezegonkor** bati aurre egin eta hartara egokitzeko prest egon behar da. Izan ere, industriarik badugu, oso txikia da, eta urtean oso ekoizpen gutxi egiten direnez, ez dago lanik hartarako prestatuta gauden profesional guztiontzat. Hilabeteak igaro daitezke -batzutan urtea ere- ekoizle baten deia jasotzen duzun arte.

Etxeko egunerokotasunaren erritmoa hartuta, bat batean dei bat jasotzen duzu: datozen bi hilabetetan lana duzula. Berri ona, ezta? Lana, diru-sarrerak eta autoestimua gora.

Prest egon behar dugu, halaber, filmaketak eskatzen dituen **lanordu luze eta ezorekatuei** aurre egiteko. Astelehenetik ostiralera, batzuetan gauzez eta bestetan egunez, gutxienez 11 ordu (+ tarteka ordu extrak), eta larunbatetan 7 bat ordu. Horri etxetik mugitu beharrak dakarrena gehitu behar zaio (iazko batean egunero 3 ordu egiten nituen errepidean).

Telebistako langile askoren egoera desberdina da. Saio bat filmatzeko lantalde ia finkoa sortuta dago eta horiek orokorrean urte osoko lana dute. Egonkorragoa da, inoiz ziurra izan gabe. Telesailetan lan egiten dutenek, adibidez, adi egon behar dute ikusle kopuruaren gorabeherekin (share). Ez bada gutxiengo batera iristen, telesaila bertan eten eta langile guztiak kanpora doaz, hurrengo deira arte.

Egonkortasun ezak, ziurtasun ekonomiko ezak eta lana dagoenean bete beharreko ordutegi ezeroso horiek eguneroko bizitza ordenatua oztopatzen dute. Nola antolatu, ez badakizu noiz izango den lan egingo duzun hurrengo aldia?

Bada baldintza horietan lan egin beharrak familia kontziliazioa eragozten du, eta hori emakume askorentzat ez da erosoa. Egia da bikotea izanik edo ardurak partekatze norbait, badirela konponbideak. Oraindik etxe askotan ohitura zaharrekoak badira ere, zorionez, gero eta gehiago dira ardurok erdibana partekatzen dituztenak. Nolanahi ere, horiek kontu pertsonalak dira, euren antolamendua egin behar dute eta akordioetara iritsi, batak zein

besteak umeen, zaharren, gaixoen edota etxeko beharren ardurara hartzeko. Hori guztia beste lan mota arrunt askotan ez da hain konplexua izaten, ordutegiak eta egonkortasun orekatuak erraztu egiten baitu etxeko antolamendua.

Askotan geu izaten gara, ziurtasun ekonomikoa bermatzeagatik edo garrantzitsuagotzat ditugun baloreak zaintzeagatik, ziurtasunik gabeko bizimodu hori errefusatuz lanbide orekatuago bat bilatzeko joera dugunak. Gizonezkoen ardurara ere bada, noski, eta gauzak aldatzen ari diren arren, emakumeak oraindik arduratsuagoak gara etxean dugun egoera horri aurre egiterakoan.

4. Emakumeak lanean: Fikziozko 10 euskal ekoizpen eredutzat hartuta Egoera hobetzeko proposamenak

Emakumeon presentzia sailez-sail aztertzeke, barnetik ezagutu ditudan 10 film aukeratu ditut (2008tik 2016ra). Euskal ekoizpenak dira, gaztelaniaz edo euskaraz filmatuak, batzuk xumeak, "famili-giroan" eginak, eta besteak diru, baliabide eta langile askorekin eginak:


1. (2008) Emakume-zuzendaria. Ekoizlea: ibilbide luzeko ekoiztetxe gipuzkoarra. Euskaraz.
2. (2009) Emakume eta gizonezko batek elkarrekin zuzendua. Ekoizlea: TB publikoaren partaidetza nagusia. Garaiko telefilma. Euskaraz.

- 3. (2011) Gizonezko zuzendaria. Ekoizlea: gipuzkoar ekoiztetxe hasiberria. Euskaraz.
- 4. (2012) Gizonezko zuzendaria. Ekoizlea: Bizkaiko enpresa ezagun bat. Garaikoa. Gaztelaniaz.
- 5. (2013) Gizonezko-zuzendari espainiar ezaguna. Ekoizleak: Madrilgo TB pribatu bat, euskal ekoiztetxe txiki baten laguntzaz. Gaztelaniaz.
- 6. (2013) Gizonezko bi zuzendari. Ekoizlea: gipuzkoar ekoiztetxe aktiboena. Euskaraz.
- 7. (2014) Gizon-zuzendaria. Ekoizlea: euskal enpresa txiki bat. Baliabide eta langile gutxi eta ohi baino denbora gutxiagoan filmatua. Gaztelaniaz.
- 8. (2014) Gizon-zuzendaria. Ekoizlea: euskal enpresa txiki hasiberri bat. Euskaraz.
- 9. (2015) Gizon-zuzendaria. Ekoizlea: ibilbide nabarmeneko Bizkaiko ekoiztetxea. Etorkizun imaginario batean girotua. Euskaraz.
- 10. (2016) Gizonezko bi zuzendari. Ekoizlea: egungo ekoiztetxe aktiboaren lan potoloena. Garaikoa. Euskaraz.


4.1. Langile kontratatatuak

Irudiak nabarmen uzten du askoz emakume gutxiago gabiltzala filmaketa profesionaletan lanean. Gizarteko beste sektoreetan emakumeek gero eta partaidetza handiagoa badute ere, esan dezakegu, taula honi begira, azken hamarkadetan behintzat ez dela askorik aldatu, ez ekoizpen profesionaletan behintzat. Joan den hamarkadako bi filmetan (2008-2009), adibidez, proportzionalki, azken urtetako bi ekoizpenetan (2015-2016) baino emakume gehiago ziren lantaldeetan.

Aukeratutako ekoizpenetan kantratatutako emakumeak. Ehunekoak eta zenbaki absolutuak.




Aukeratutako ekoizpenetako kantratatutako emakumeak arloka. Ehunekoak, ekoizpenaren arabera.



- Gidoia
- Talde artistikoa, gidoiaren baitan
- Produkzioa
- Zuzendaritza
- Argazkiak
- Soinuak
- Girotze-lanak
- Jantziak
- Makillajea / Ile-apainteta

4.2. Emakumeen presentzia, sailez-sail



GIDOIA Ikus-entzunezko egitasmo baten oinarria da.

Azterketa kuantitatiboak adierazten duenez, gidoiak garatzeko Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen deialdietara oso emakume gutxi aurkezten dira, eta emakidunen artean genero aldetiko proportzioa mantentzen bada ere, laguntza oso emakume gutxik jasotzen dute. Zorionez, belaunaldi berrien etorrerarekin, panorama aldatuz doa eta gazteen artean gero eta txikiagoa da emakume eta gizonezkoen arteko aldea.

Baina, zergatik ez dugu guk geure burua gizonezkoen mailan jartzen? Zergatik diru-laguntzak eskatzerakoan oraindik gehiago dira gizonezkoak? Berez, gidoia idazteko, teknika minimo baten ezagutza izanda, printzipioz nahikoa dira bolia eta papera, tableta edo ordenagailua. **Istoria on bat buruan izatea da behar dena**, eta hartarako, argi dago emakumeek gaitasun bera dugula. Istoria-kontalari onak

gara eta, teknika ezagutuz gero, badugu gidoi on bat sortzeko adinako maila. Gainera, hartarako ikastaro bereziak daude, eta nik dakidala, horietan beti daude emakumezko ikasleak.

Bestalde, faktore garrantzitsu bat gehitu behar dugu. Hau da, **denbora, dedikazioa**. Gidoigileak, istorio on bat idazteko, ordu asko igaro behar ditu paper edo ordenagailuaren aurrean zentratuta. Horregatik, diru-laguntza horiek oso baliagarriak dira gidoigile bati idazteko garaian ziurtasun ekonomiko bat bermatuz bere lana behar bezala, dedikazio osoz, bete dezan. Egitasmoaren maila ontzat eman izanak asko motibatzen du, gainera.


Gidoia ekoizpen baten oinarria dela gogoan izanik, oso garrantzitsua da, emakumeon presentzia sektorean ez dadin hain urria izan, arreta berezia jartzea emakume gidoigileek aurkeztutako lanetan. Horretarako eraturiko **epaimahaiak parekotasun maila zaintzea**, alegia. Diru-laguntzak beti betikoei eman ordez, betikoak gizonezkoak direla kontuan izanik, izen berriei aukera ematea, beti ere **egitasmoaren berezko interes maila** kontuan hartuz, noski.

Behin gidoi baten zirriborroa aurkeztu nuen. Neu izango nintzen azterketa kuantitatiboaren arabera aurkezten diren emakumeen % 19,7 horietako bat. Zoritarrez, ez zidaten eman. Lehenik eta behin, nire istorioa ez zela izango hain interesgarria sinestuta, etsita, bertan behera utzi nuen. Jakina, laguntza publikorik gabe film labur bat egitea bale, baina sekula ez nuke lortuko luzea egiteko behar den dirutza. Oso istorio potentea eskutan izan arte ez nintzela halako "fregatutan" sartuko erabaki nuen. Beti ere, etorkizuna luzea dela eta "iritsi behar badu iritsiko da" esaldia buruan.

Halakoetan, nire kasuan behintzat, autoestimua arazoa izan daiteke. Arduratsua naiz eta nekez egitea lortuko banu ere penagarria irudituko litzaidake hainbeste esfortzu eta diru inbertitu ondoren, balizko film horren ibilbide tristearen arduraduna izatea. Sikiera lehen diru-laguntza hori jaso izan banu, nigan konfiantza areagotu egingo zen eta ziurrago mugituko nuen, gerora, ekoiztetxe batek nire egitasmoari baiezkota eman arte.

Badakit, ordea, eskuartean dudan gidoia benetan ona bada lortuko dudala filma zuzentzea. Emakumea izateagatik ez dudala trabarik izango eta diru-laguntzarik gabe ere nire lanean sinetsiko duen ekoizle ausart hori aurkituko dudala bidean. Ez naizela kokilduko, ez emakumea izateagatik, behintzat.

TALDE ARTISTIKOA, GIDOIAREN BAITAN



1. Korala, pertsonaia multzo bat da protagonista. Gehienak gizonak badira ere, 2. mailako rola nagusiki emakumeek betetzen dituzte. Biak maila berean jartzen ditu.
2. Bi emakume eta bi gizoneko protagonista, inguruan hainbat pertsonaia. Akzioaren eragile nagusiak nortasun handiko emakumeak dira, oro har gizonekoengan nagusituz.
3. Emakume baten inguruan garatzen da eta alboan duen gizoneko protagonista tentela balitz bezala erakusten du.

4. Korala bada ere, pertsonaia nagusia gizonekoa da. Emakumeak maitale, ama edo ahizpa dira, bigarren mailan ipiniz.
5. Berez gizoneko baten urratsak jarraitzen baditu ere, laukote bat du protagonista eta orohar maila berean jartzen ditu.
6. Hiru emakume protagonista, bereziki lantzen ditu haien izaera, nortasun eta kezkak.
7. Gizon protagonista. Bi emakume besterik ez dira azaltzen eta ia episodikoak dira.
8. Emakumeak indar handia du eta bera da akzioaren eragile nagusia.
9. Protagonista gizonekoa izanik, korala da eta tratu bera ematen die emakume eta gizoni.
10. Gizonekoak dira protagonista bakarrak.

Irudiarri begira, ondoriozta dezakegu badirela emakumeen inguruko istorioak, eta, oraindik ere gizoneko protagonistak nagusitzen diren arren, gure industria txiki honetan emakumez mintzo diren filmek interesa pizten dutela ekoizleengan. Horien helburua ahalik eta ikusle kopuru handienera iristea denez, ez lukete halako istorioekiko apusturik egingo aldi berean gehiengoa omen garen ikusleok ez bagenu gustoko.

Emakumeen presentzia areagotzeko, haientzako rola gehitu edota aldatu beharko lirateke, pertsonaiei nortasun handiagoa eman, akzioaren eragileak izan daitezen eta ez beti gizonekoen alboan daudenak. Gogoan dut Benito Zambrano andaluziarraren Solas filmak izan zuen eragina. 1999an estreinatu zenean, ez geunden ohituta drama hartan ikusitakoarekin. Protagonistak emakumeak ziren (Ana Fernández eta María Galiana) eta gizoneko pertsonaiak haien nondik norakoak baldintzatuko zituztenak, besterik ez.

Geroztik, gurean ere emakumeen inguruko istorioak idatzi, ekoiztu eta pantailaratu dira: *Lreak*, *Amama*, *Un otoño sin Berlín...*



Zenbat eta emakumezko pertsonaia gehiago paperean, orduan eta emakume-antzezle gehiago lanean. Datuok proportzionalki zuzenak dira.

Emakume askok antzezpena aukeratzen dute ogibide bezala. Alor erakargarria da guretzat. Bestalde, industria txiki honetan oso zaila dute ikus-entzunezkoetatik bizitzea, eta gehienek antzerkian dihardute, bai eta aldi berean ogibide paraleloetan ere. Berriki ezagutzera eman duten azterketa baten ondorio latzak nabarmendu nahi ditut, bide batez:


nonbait EAEko antzezleen kopuru handi bat pobrezian bizi da, gaur egun. Aktore bilaketarako Casting-enpresa gutxi dago eta horien kudeatzaileak emakumeak dira.

Irudiaren irakurketa zuzena egin eta datuak hobeto ulertzeko, egitura hierarkikoa duen sail honetako postu ezberdinak ezagutzea komeni da.

Maila gorenean, ekoizlea (enpresaria, egitasmoaren jabe izango den ekoiztetxearen arduraduna) eta ekoizle exekutiboa (finantzarioa) daude. Ekoiztetxeak egitasmo bat martxan jartzen duenean, lehenik eta behin ekoizpen-zuzendaria kontratatzen du. Hau da, ekoizpenaren diseinua egin eta ekoizlearen izenean langilegoa kontratatuko duena. Aurrerago hitz egingo dut kontratatzailearen arduraz.

Ekoizle-zuzendaritik behera, filmaketako lantaldea dago, filmaketaren antolamendu logistikoaz arduratzen dena: ekoizpen-burua, laguntzaileak, auxiliarrak eta meritorioak. Bakoitzaren ardura-maila jaisten doa hierarkikoki beherantz goazen neurrian. Sail honetan biltzen dira, halaber, ekoizpen idazkaria eta administraria, lokalizazioen zaindariak, catering-a eta promoziorako eragileak (prentsa arduraduna...).

EKOIZPENA



Ekoizle (+Exekutiboak): Deigarria da 10 filmetatik bi soilik izatea emakumeak. Diru bilaketa edo ekarpen ekonomiko pertsonalak egiten dituzten gehienak gizonezkoak dira. Parekotasuna oso urrun ikusten badut ere, beharrezkotzat jotzen dut **ikus-entzunezkoetan inbertitzen duten emakumezko enpresariei bultzada ematea**, babes eta laguntza bereziak eskaintzea. Euren lehen ekoizpena izango bada ere, laguntza-deialdietara emakumeek aurkezturiko egitasmoak bereziki aintzat hartzea. Izan ere, oso garrantzitsua baita, ibilbide bati ekin ahal izateko, lehen saiakeran norbaitek eskua luzatzea.

Diskriminazio positiboa beharko genuke, urgentziaz, emakume gehiago anima daitezen ekoizle izatera. Ez duela esperientziarik? Hartuko du, ba. Konfiantza eman behar zaio ekoizle izan nahi duen emakumeari, lagundu. Industria bat nahi badugu, ekoizleak behar ditugu, gizon eta emakumeak. Industria berez txikia bada, ekoizlerik gabe, akabo.

Emakume ekoizleak asko egin dezakete, gainera, gure presentzia nabarmentzeko. Langileak kontratatzean, adibidez, bereziki arduratuko dira parekotasuna bermatzeaz.



Ekoiztetxeak. Kontratatzaileen ardura: Ekoizleak (kontratatzaileak) dira emakumeon presentzia bermatzeko arduradun nagusiak. Beraiek aukeratzen baitute taldea, zuzendariak euren talde propioa exijitzen ez badute behintzat. Ekoizleek berez emakumeekin lan egiteko inolako arazorik ez dutela ziurtatu badezaket ere, badakit emakume gehiago leudekela filmaketetan, lan-sistimaren izaera ezegonkorrak eta ordutegi luze eta ezerosoek gugan eragiten duten errefusatze hori saiesten saiatuko balira.

Ekoizleei zera proposatuko nieke: **aurrekontuaren zati bat berdintasuna bermatzeko kostuak asumitzeari zuzentzea**. Emakumeei lan egiteko aukerak erraztea, eta behar izanez gero, haien beharretara egokitzea. Hau da, langileak pisuzko arrazoiak balitu, lanpostua beste lankide batekin partekatzeko aukera ematea. Azken finean garestituko den kontu bakarra gizarte segurantzaren altan bati eman beharrean biri ematea litzateke, besterik ez, soldata bakarra bien artean partekatuko lukete eta. Iruditzen zait halakoetan, bakoitzak 6 ordu lan eginez, familia kontziliazioa bermatuko litzatekela, eta ondorioz emakume gehiago egongo liratekela ikus-entzunezkoetan lanean.

Amatasun kasuan, oso garrantzitsua da lanetik hilabete batzuek aldentzea erabakitzen duen amari **postua gordetzea**. Langilearen eskubideak zaintzea. Gertatzen baita, gure lanbide zail honetan, gutaz ahanztea. Amatasuna dela eta hilabete batzuek urrunduta ibili denak azken bi egitasmoetan ez badu lanik egin, bitartean ordezkatu duen langilea deitzen dute berriro, eta delako ama hori kanpoan geratzen da, ahanztuta. Hori gerta ez dadin, egoera horretan dagoen profesional horri elkartasuna adierazi eta berriro kontratatua izateko aukera eman behar zaio, edota postua beste batekin partekatzeko aukerak eman, batik bat etxeko ardurei aurre egiteko bakarrik badago edo ardurok berarekin partekatzen dituztenek ezinean badabiltza (etxe bakoitzeko antolamenduari dagokio, kasu bakoitza berezia da).

Filmaketako ekoizpen-taldea: Langileen banaketa sexuaren arabera irudiak erakusten duenez, ia film guztietan gehienak gizonezkoak dira. Maila hierarkiko gorenean dauden ekoizpen-zuzendari gehienak -guztiak ez esatearren- esperientziadun gizonezkoak dira, eta hala izaten jarraituko dute belaunaldi berriak iritsi artean. Izan ere, ekoiztetxeak konfiantzazkoa eta esperientzia handikoa nahiago baitu ardura handiko lan hori bere esku uzteko. Ekoizleei ez zaie gustatzen halakoetan arriskatzea, zera, esan ohi den bezala, "hobe da txarra eta ezaguna, ona eta ezezaguna baino". Bestalde, beraiei lehen aukera norbaitek noizbait eman zien bezala, zergatik ez zaio emango tamalez esperientzia askorik izateko aukerarik izan ez duenari, hartarako prestatua badago? Emakume gehiago leudeke postu horretan.

Horri buruz emakumeek badugu zer egina. Gizonezkoak gehiengoa izanik, horiei eskatu behar genieke laguntzeko, edo bestela, gu geu arduratu, kontzientziatzen diren bitartean, eta **dauden gutxi horiei lanpostua kentzea suposatzen ez duen bitartean**, noski, emakumezko ekoizle-zuzendarienganako interesa pizten. Aukera eman diezaieten laguntzea, informatzea eta gogoraraztea emakumezkoak ere badirela.

Maila hierarkikoan behera, ekoizpen-burua dugu. Hau da filmaketako ekoizpen-taldearen koordinatzaile eta arduradun nagusia. Estatu espainiarrean emakume asko daude lanpostu horretarako, baina gurean gutxiengoa dira. Taulako 10 filmen artean, adibidez, 3 besterik ez dira emakumeak. Hau da, ia herena.

Ekoizpen-buruak, sail guztietako buruek bezala, normalki bere konfiantzazko langileak aukeratzen ditu: laguntzaileen artean, ia film guztietan bada emakumeren bat, eta mailaz jeisten garen neurrian, kopuruak gora egiten du. Horri buruz, berretsi nahi dut oso garrantzitsua dela, egitura hierarkikoa duten alorretan, ekoizpen saila kasu, **meritorio edo hasiberrien artean parekotasuna bermatzea**. Meritorioek -batik bat ekoizpen arlokoek- ez dute aurretiko esperientzia handirik behar, hura da hain juxtu ikus-entzunezkoetan lan egiten hasteko postu eskuragarriena.


“Goikoek” eskatutakoa bete behar dute, gidari bezala, catering-a antolatzen, enkarguak egiten, materialea zaintzen eta abar luze bat. **Gaurko meritorioak biharko arduradunak izango dira.**

Berriki gertatu zaidan bitxikieria batek bide onetik goazela adierazten du: ekoizpen-laguntzaileak (gizonezkoa) deitu ninduen, ea meritorio onen bat ezagutzen nuen, eta aukeran, nahiago zutela emakumea. Parekotasunaren garrantziaz aritu zitzaidan. Ze ona!

Administraria eta ekoizpen idazkariak, beti, edo ia beti, emakumezkoak dira. Bulego lana da, ordutegiak orokorrean ez dira hain luzeak, eta kontratu luzeagoak izaten dituzte, zenbait hilabetetakoak.

Lokalizazio eta materialeen zaindari guztiak gizonezkoak izaten dira. Bereziki ekoizpen handietan lan egiten dute (taulako 10. filma bezala), eta ez dira profesionalak. Ez da lan eroso, gaua filmaketa-gunean igaro behar da, eta hartarako gizonezkoak daude prest, edo inertziak gizonezkoei eskaintzen zaie. Ez du esan nahi, ordea, emakumeek gaitasunik ez dutenik. “Gizona edozer arazo, ezbehar edo ezustekori aurre egiteko gogorragoa” denaren mitoarekin hausteko, kontzientziatu egin behar ditugu, eta guk geuk ere, emakumeok, nahi izanez gero, hasi behar genuke gure burua halako lanpostuetarako eskaintzen.

ZUZENDARITZA



Irudiarri begiratu, tamalez esan dezakegu sail honetan emakumeen partaidetza ez dela igo azken hamarkadetan. Izan ere, 2008ko filmaketa batean zuzendaritzako sei langile kontratatuetatik lau emakumeak izan baginen (% 66,6), aurtengoan (2016) hamabitik hiru besterik ez gara izan emakumeak (%25).

10 filmen artean, bi besterik ez dira emakumeek zuzenduak. Zer esan nahi du horrek, ez dagoela emakumezko zuzendaririk? Ez ba. Egon badaude, baina batik bat film laburrak zuzentzen dihardute, oraingoz. Horietariko asko, gizonezko zuzendariak film laburrak egiten hasi ziren bezala etorkizunean luzeak zuzentzen ikusiko ditugu, ziur.

Zuzendaritza arloak ere egitura hierarkikoa du. Zuzendariaren azpitik lehen laguntzailea dago, bigarren laguntzailea, auxiliarrak eta meritorioak (hasiberriak).

Lehen laguntzailea, filmaketaren “motorra” da. Filmaketak berak dirauena halako bi egiten du lan eta antolamendu eta adimen maila handia eskatzen duen lan intentsiboa da berea.

Lanpostu hau gehienetan gizonetzkoek betetzen dute, tradizioz. Eta ezagutzen ditudan emakume guzti edo gehienek ez dute seme-alabarik ezta lanetik kanpoko ardura berezirik ere. Gaitasun guztiak dauzkagu hartarako, ordea. Neu ere ibili nintzen film labor batzuetan lehen laguntzaile.

Lehen laguntzailearen alboan, bulego lana egiten duen 2. laguntzailea dago. Antolamendu lan gogorra da, kontzentrazio handia eskatzen duena, eta hartarako ere badira ondo prestatutako emakumeak. Halere, gehienak gizonetzkoak dira, oraindik.


Auxiliarrek ardura gutxixeagoko lana betetzen dute. Esperientzia hartutakoan berriz, mailaz igoko dira, etorkizuneko bigarren eta lehen laguntzaileak bilakatuz. **Maila gora, ardura gora, soldata gora.**

Azkenik, meritorioak dauzkagu. Orokorrean hasiberriak, esperientzia gutxi edo batere ez duten gazteak izaten dira, aktoreak zaindu, gidariarenak egin, errepideak moztu edota isiltasuna eskatzen laguntzea da haien ardura. Lehen laguntzailearen aginduetara beti. Hain juxtu horretantxe datza parekotasuna bermatzeko bidean bereziki zaindu beharrekoa. Meritorioen artean emakumeak egotea. Behin esperientzia hartuta eta ezagutzera emateko aukera baliatuta, errazago izango zaie karguz igo eta ardura gehiagoko mailara heltzea. Oraindik bidea egiteke badago ere, beste sailetan bezala, hasiberrien artean saiatzen ari dira parekotasuna zaintzen. **Gaurko meritorioak, biharko arduradunak.**

Bada Zuzendaritzan beste postu bat, egitasmo bakoitzean bakarra eta ia beti emakumeek betetzen dutena. Hau da, *scripta*. Filmaketan zuzendariaren alboan lan egiten du eta eguneroko ekoizpen eta muntaketa parteak betetzeaz gain, aholkularia da, gidoiaren ildoak ez dadin galdu arduratzen dena. Tradizioz emakumeak izan dira,

baina bitxikeria moduan esan dezaket, gure industria txiki honetan, bizpahiru gizonetzko dabilzala horretan lanean. Skriptak zuzendariaren konfiantzazkoa izan behar du, beharrezkoa baita elkarri ulertzea. Elkarlanaren estutasunagatik, beraz, Skripta normalki zuzendariak aukeratzen du.

ARGAZKIA ETA KAMERA



Argazki zuzendaria eta kameraria bat izatea modan dago. Biak bat eginez, lanpostu bat gutxiago, kontratu bat gutxiago eta merkeago ekoizlearentzat. Ardura handiko lana da, zuzendariaren asmoa irudietan bihurtu eta filmaren alde bisuala beregan hartu behar baitu. Tradizioz askoz gizonetzko argazki-zuzendari gehiago daude, eta horiek dauden bitartean, berriak (emakume nahiz gizon) sartzera zaila izango da. Izan ere, ez da erraza ekoizle batek esperientzia gutxiko argazkilari bat deitzea. Aurrekontuaren baitan, prestijio eta maila handiagokoak aukeratuko



dituzte beti. Oso arrunta da zuzendariak berak bere ohiko argazki-zuzendaria izatea eta egiten dituen lan guztietarako berari deitzea. Horrela, ez da harritzekoa “betikoei” deitzerakoan, aukeratua gizonetzko hori bera izatea.

Lana erosoagoa izan dadin konfiantzazko taldeak osatzea normala da. Baina jakina, errepikatze horretan, beti gizonetzkoekin lan egiten dutenek gizonetzkoekin jarraituko dute, lantalde bera mantentzen saiatuko dira. Baten batek huts egiten badu, edo kamera-talde berriak eratzea suertatzen denean, ordea, garrantzitsua da emakumeengana ere jotzea.

Emakumeek zeregin handia dugu horretan. Izan ere, garrantzitsua da emakumezko argazki-zuzendarien promozioa egitea, ezagutzera ematen laguntzea, lehen aukera hori izan dezaten, aurrerantzean kontratatu ditzaten, hain zuzen. Errespetu handiz hartu beharreko lana da, bai, baina guk errespetu hori konfiantza-falta bihurtzen badugu, zaila izango zaigu merkatuan gizonetzkoen maila berean gaudela erakustea, ikusiak izatea.


Egitura guztiz hierarkikoari eutsiz, kamera laguntzaile edo fokista da hurrena. Gehienak gizonetzkoak badira ere, gero eta emakume gehiago dago postu horretan. Normalki aurretik meritorio eta auxiliarrak izandakoak dira, mailaz gora doazenak. Hartara, ezagutzen dut mailaz igo nahi ez duen emakume baten kasua. Aspaldidanik auxiliarra, bere lanpostuaren garrantzia aldarrikatzen du eta horretan jarraitu nahi du. Eroso dago, zereginak ederki menderatzen ditu, eta duen esperientzia eta ibilbide luzeagatik, maiz kontratatzen dute.

Berretsi nahi dut, meritorioak bilatzerakoan, esperientzia gutxi edo batere ez duten langile hasiberriak, emakumezkoengana jotzeak duen garrantzia. Belaunaldi berriak sartzen diren heinean, parekotasunaz ez ahanzte, kontuan izatea emakumezkoak ere badirela unibertsitatean edota LH-ko eskoletan kameragile edo argazki zuzendari izan nahi dutenak eta hartarako prestatzen ari direnak. Praktikak egitea besterik falta ez dutenak.

Zuzendariak filmatutakoa ikusteko duen monitorearen arduraduna, “bideo-asistentea”, mailaz igotzea helburu duen teknikaria da, eta

gurean, gizonetzkoak adina emakume ditugu. Eta azkenik, teknologia digitalen etorrerarekin sortu den lanpostu berria dugu: DIT (*digital imaging technician*, Irudi digital teknikaria). Hartarako prestatuta dauden emakumeak ezagutzen ditut, baina gure industria txiki honetan, “etxeko” guzti edo gehienak gizonetzkoak dira, oraindik.

SOINUA




Lehenik eta behin azpimarratu behar da guztiz bateragarria dela emakumea eta soinu teknikaria izatea. Azterketa kualitatiboan bildutako elkarrizketa-zati batean zera irakurri dut: neska batek soinu kontuetan lan egiteko, zehazki mikrofona, oztopoak izan dituela “emakumea eta gainera txikia” izateagatik. Nik ez dut berdin ikusten. Bai soinu teknikari-buru bezala eta bai mikrofona bezala diharduten emakumeekin lan egin dut. Badira batzuk ama izanik ere urte osoan zehar lan egiten dutenak. Ez dira bereziki altuak, eta gizonetzkoen artean ere, baditugu txikitxoak. Hortaz, ez dut uste hori oztopoa denik.



Ez dut bazterketarik ezagutu, baina aitortu behar dut gure industria urri honetan gehien lan egiten duten soinu teknikari-buruak beti berak direla, kasu honetan gizonetzkoak.

Arazoa sortzen da soinu teknikariak bere laguntzailea (mikrofonista) aukeratzekoan. Ahal duen bitartean konfiantzazko lankideari deituko dio, gizon ala emakumea den axola gabe. Baina zer gertatzen da konfiantzazko bi baditu, bata emakumea eta bestea gizonetzkoa? Bada gizonetzkoa aukeratzeko duela emakumeak etxean nahikoa lan baduela pentsatuz. Hor diskriminazio nabarmena gerta daiteke, baina esan bezala kasu puntualak dira. Hain juxtu horiengan jarri beharko genuke **kontzientziazte estrategia** eta ama dela edo etxeko ardurak dituela tratatzen hartu beharrean, haren lan-maila kontuan hartu eta erraztasunak eman bere jardunari ekin ahal diezaion. Argi dago ekoizleak dela erantzule nagusia, baina oso garrantzitsua da, halaber, teknikari-buruak emakume horren alde egitea.

GIROTZE-LANAK / DEKORAZIOA



Girotzeaz, dekoratuen apainketaz, atrezzoaz eta pertsonaiak ez diren filmeko elementu guztiez arduratzen dira. Gidoiaren konplexutasunaren arabera, langile multzoa zabalagoa da, batik bat garaiko istorioak direnean, zientzia fikziozkoak, etorkizunekoak... Halakoetan, denbora gutxian dekoratuak eraiki behar izaten dituztenez, edo errealak egokitu, langile gehiago behar dituzte.

Arlo hau gizonetzkoen eskutan egon da, tradizioz. Arte-zuzendariak, arlo buruak, artistak dira, sortzaileak, eta ardura handiko lana dute filmaketa batean. Oso gutxitan lan egin dut emakumezko arte-zuzendari batekin, eta ia denak Euskal Herritik kanpora. Adibidez, baloratu ditudan 10 filmetatik, ez dago bat bera ere.

Berton egindako film laburretan, aldiz, badira emakumeak lanpostu honetan. Horrek zera adierazten du: film laburretan hartutako esperientzia eta bidean ezagututako langileenganako harremana baliagarriak izango direla arte-zuzendari bezala profesionalki aritzeko. Gizonetzkoak bezain prestatuak baikaude, izatez, ardura handiko lanbide horretan jarduteko.

Zurgintzako eta eraikuntzako lanetan, adibidez, langileen % 95 gizonetzkoak dira. Zergatik ote? Ez al gaude prestatuta arotzak izateko, eraikuntza lanetan jarduteko? Atrezzoarekin berriz, gehiago nagusia gizonetzkoak izaten jarraitzen badute ere, badira emakume batzuk.

Belaunaldi berriek, meritorio bezala hasi eta lantaldean geratuko direnak, berdintasuna ekarri beharko lukete. Beste sailetan bezala, emakumezko gehiago jarri beharko genituzke laguntzaile postuetan, eta lanbide horretan jarraitzeko aukerak erraztu, etorkizunean, esperientzia hartuta, mailaz igo daitezten.


Erregidorearen kasua bitxia da. Atrezzoak, ibilgailuak eta era guztitako materialeak lortzen dituen langilea da. Antolakuntza, ordena, kontzentrazio eta ardura handia exijitzen ditu, halaber, edozer lortu beharrek dakarren zailtasuna ahaztu gabe. Zama handiko postua da. Ba gure industria txiki honetan erregidore gutxi badaude, ia guztiak emakumeak dira (10 filmetan bezala), maiz berbera izaten dela ahaztu gabe. Gizonetzkoen inguratuta lan egiten dute eta ez dut ikusi haienganako errespetu faltarik, ez gutxiespenik.



Arte-zuzendaria eta laguntzaileak, berriz, taulako ia film guztietan gizonetzkoak dira. Jakina, esperientzia eta ospe handikoak dira, eta zuzenean haiei deitzen diete. Halere, kezkarria da alor honetan emakumeek dugun presentzia eskasa.

Nire kasuan, film laburrak egiten hasi ginenean, beti ere lantalde mistoa izanik, jantziez nor arduratuko zen galdegitean beti emakumezkoren batek eskaintzen zuen bere burua ardurararako. Guztiei aukera bera ematen bagenien ere, ez zen sekula gizonetzorik "ausartu" edo ez zitzaion gizonetzko bati berari erakargarria iruditu.


JANTZIAK



Irudiak ederki adierazten duen bezala, zinemako jantzien arduradun eta joskinak ia beti emakumeak dira, eta lantaldean gizonetzoren bat badago, laguntzailea da beti. Jantziarena, tradizioz emakumeak erakartzen dituen mundua da.

Hartarako prestakuntza eskoletan ikusi besterik ez dago, ikaslegoaren gehiengo absolutua emakumezkoak baitira. Halere, joskintza ikasketak egin ez dituzten langileak badaude atal honetan. Beharbada film laburren batean pertsonaiak jantzeko deituko zituzten, eta gerora, esperientzia hartuta, lanbide bilakatu dute.

MAKILLAJEA / ILE-APAINKETA



Ikus-entzunezkoetan dagoen sail femeninoena da, dudarik gabe. Madrilen egindako hainbat filmaketetan gizonetzkoak topatu ditut, zineman espezializatutako prestijiozko makilladore eta ile-apaintzaileak, baina EAEko ekoizpenetan ez zait sekula gertatu. Berez zuzendarien aginduetara lan egin behar badute ere, horiek gehienetan gizonetzkoak direla ahanztu gabe, emakumeek euren atalaren arduraren izaten dute, eta orokorrean, ekoizleek ere haien eskutan uzten dute lanaren arduraren guztia.



ARGINDARRA EAEko ikus-entzunezkoetan bada kasu berezi bat, argindarraren atalarena. Enpresa handi bat dago, Gipuzkoan kokatua, urte osoan zehar langile talde finkoa kontratatuta daukana eta ekoizpen guztietara eramaten duena. Jakina, bere kabuz aritzen den argiztatzailerik autonomo onik badagoen arren, enpresa batek eskaintzen dituen erraztasunak, erosotasun eta praktikotasuna aproposagoak dira ekoiztetxearen beharrak asetzeko. Paketea kontratatzen da eta enpresariak ikusiko du bere lantaldea nola antolatu.

la euskal ekoizpen guztietan enpresa berak egiten du lan, monopolizatua dago, eta **langile guztiak gizonezkoak** direnez, oso oso zaila da, ia ezinezkoa, sail honetan emakumeak topatzea. Egia da lan fisiko gogorra dela, ordutegia ere ikaragarri luze eta ez-orekatua, baina emakume batzuk badira gai horretarako eta gehiagorako ere.

Horregatik, emakumeoi tarte bat egin ahal izateko, beharrezkoa litzateke **enpresa berriak** sortzea, mistoak edo gutxienez emakumeak kontratatzen dituztenak, edo, bestela, monopolio horrekin jarraituz gero, aipatu enpresa handi horri eragitea **emakumezkoak kontratatzen hasi dadin**. Tradizioz hala izan bada ere, ez du zertan “gizonen kontua” izan.

MAKINISTAK Makinisten kasua argindarrarena bera da. Bizpahiru makinista ditugu, baina enpresa bakarra dagoenez, beti lagun berak izaten dira. Bada alde bat, ordea: ez dago emakume makinistarik. Berez teknika behar da, travelling edo gruak kontu askorekin mugitzen jakitea, baina horrez gain lan fisikoa eskatzen du eta oso garrantzitsua da fisikoki indartsua izatea. Egunero ia 12 ordu zamak hartu eta makurtzen ibili beharra, ez da edonorentzat. Bestalde, hartarako gizonezko asko gai ez diren bezala (ez dira guztiak indartsuak!), badaude emakumeak lan hori betetzeko adina prestaketa fisikoa dutenak. Esan bezala, teknika menderatzea beharrezkoa da, eta teknika hori ikasi egiten da.

MUNTAKETA Muntatzaileak, nolabait esateko, egileak dira. Beti ere zuzendariaren gidaritzapean, filmaketan bildutako materialeari itxura eman eta eszenak elkarlotuz, istorioari zentzua ematen lagunduko diote zuzendariari. Muntatzailearen proposamenak oso erabakiorrak dira zuzendarientzat, eta horregatik, askok beraien muntatzaile propioa izaten dute, konfiantzazkoa.

Tradizioz, atzerrian batik bat, muntatzaile asko emakumezkoak izan dira. Gaur egun, berriz, emakume muntatzailearen batekin topo egin badut ere, ona gainera, gure industria txiki honetan ezagunenak gizonezkoak dira. Laguntzaileen artean berriz, emakumeak badaude, kasu onenean, etorkizuneko muntatzaileak izango direnak.

MUSIKA Filmari musika ipintzen diona musikaria da, egilea. Bere lana berez filma muntatutakoan hasten da, post-produkzioan, eta errodatetik pasatzekotan, bisitan etortzen da. Euskal musikagintzak emakume-musikagile interesgarriak baditu ere, tamalez, oso zuzendari gutxi aukeratzen dute emakumea euren filmak girotzeko. Ez da genero kontua, zinemarako musika egiteko prestatua dagoenik ezagutzen ez dutelako eta, batik bat, bakoitzak jadanik bere kutuna daukalako baizik. Eredutzat erabili ditudan 10 filmen artean, bi emakume-musikagile dauzkagu, eta 7. izendatu dudanaren kasuan, zinemagile beraren lan guztien musika berak egiten du beti.

Argi dago hutsune handia dagoela alor honetan emakumezkoen presentziari dagokionez. Zaharrek euren musikagileak dituztenez, zinemagile berriei, film laburretan dabiltzanei adibidez, emakume-musikagileak aurkeztu eta bilaketan laguntzea ez legoke batere gaizki.



EFEKTUAK (BEREZIAK ETA DIGITALAK) EFEKTU BEREZIAK filmaketa bitartean tokian-tokiko eta zuzenean egiten diren efektuak dira. Su eta arma kontrola, euri artifiziala, elurra, haize eta olatuak...

Hartarako ez dira langile askeak kontratatzen. Argindarra eta makinistekin egiten den bezala, ekoizleak enpresa espezializatua kontratatzen du, eta horrek bere langileak jartzen ditu. Gaur egun bada enpresa bat edo beste, eta **langile guztiak mutilak** dira. Enpresa horien jabeekin hitz egin beharko genuke emakumerik ez kontratatzearen arrazoiak azal diezazkiguten. Ez dut uste matxismo edo emakumeenganako gutxiespen kontua denik, lagun artean sortutako enpresa izanik besterik gabe emakumezko prestaturik inguruan ez izanagatik baizik.

Alorra gustoko duten emakumeak (prestatuak) bidali beharko genizkieke, lan aukera berri bat sortuz gero dei ditzaten, eta ez, inertziaz, beste gizonezko bat. Lagundu egin behar dugu, informatu, eta hartarako emakumerik badago, ezagutzera eman, promozionatu. **Guk geuk ere asko daukagu eta egiteko.**

EFEKTU DIGITALAK filmaketa bitartean aurreikusi eta prestatzen dira, gerora ordenagailu bitartez irudiei efektuak eransteke. Badirudi informatika eta ordenagailuzko lanak ez direla oso emakumeen gustokoak, eta EAEko ia film guztietako efektu digitalen arduradunak -guztiak ez badira- gizonezkoak dira. Madrilen ezagutzen ditut hartaz bizi diren emakumeak. Gurean berriz, bat bera ere ez.

5. Emakumeon presentzia bizia Egoera hobetzeko proposamenak

5.1. Ikusgaitasuna zaintzen

Emakume egileen eta euren lanen ikusgaitasuna bermatzeko, beharrezkoa da, batetik, irakasleek erreferentzi-adibideak jartzean kontuan hartzea, diru-laguntzetan emakumeen egitasmoak berdintasunez aintzat hartzea, omenaldietan adibidez emakumez gogoratzea, eta batik bat, jaialdietan erakusteko aukera eman eta promozioan laguntzea.

Film laburren aldetik, egia da, azterketa kuantitatiboak dioen modura, KIMUAK programak ikusgaitasunari ezinbesteko ekarpena egiten diola euskal film laburrak bertan eta hemendik kanpora banatzerakoan. Bestalde, urtean behin urteko uztarekin osatzen den bilduma horretatik kanpo geratzen diren beste film labur pilaren artean emakume egile askoren lanak daude, eta horiek ere, norberak bere kabuz mugitzen dituenean, hor barrena ikusgai izaten dira. Nire kasuan hala izan da.

Topaguneak herriz-herri egiten duen film laburren erakustaldi mugikorrek, eta nola ez, Lekeitioko Zine Bilerak, non film labur profesionalen alboan hasiberrienak erakusten dituzten, oso lagungarriak dira ikus-entzunezkoetan hastera doazenentzat. Egile ala teknikaria izan, hasiberri batentzat bere lana pantaila handian ikustea oso garrantzitsua da, bultzada handia emateaz gain, lan berriak egiteko motibatu egiten du. **Egiteari ekiten jarraitzeko ezinbestekoak** dira erakus-leiho horiek. Azken finean, zer da ba film bat ikusleen aurrean erakusten ez bada?

Film luzeen kasuan, berriz, zenbat eta emakumezkoen lan gehiago aurkeztu, orduan eta ikusgaitasun nabarmenagoa izango dugu. Aurtengo Donostiako Zinemaldiak, adibidez, Donostia Saria Sigourney Weaverreri eman dio eta emakumezkoek zuzendutako film dexente eskaini ditu bere sail guzti edo gehienetan (Ofiziala, Zuzendari Berriak,



Zabaltegi-Tabakalera, Perlak, Zinemira...). Egunotan Lekeition ospatu den Zine Bilerak ere aurten joan zaigun Kontxu Odriozola aktore handia omendu du.

Bestetik, badira soilik emakumezkoek zuzendutako film laburren jaialdi bereziak. Berriki Bilbon ospatu den "Festival Internacional de Cine Invisible" delakoa, adibidez, emakume egileen lanen erakus-leiho interesgarria da.

5.2. Epaimahaiaren garrantzia

Nork erabakitzen du zeintzuk diren diru-laguntza merezi duten egitasmoak? Nork aukeratzen ditu KIMUAK bezalako programetako laburrak? Eta jaialdietan, nork hautatzen ditu film partaideak?

Epaimahaiak eratzen dira hartarako. Baina, nork aukeratzen ditu epaimahaikideak, eta horiek zaintzen al dute emakumeen presentzia?

Azken finean norbaitek aukeratutako epaimahaiak erabakiko du nori eman laguntza, eta nor saritu. Hartarako, ezinbestekoa deritzot epaimahaiak eratzerakoan kontuan izatea nor aukeratzen den, eta aukeratutakoak, lanen kalitatea zainduko duela eta ez duela aurreiritzirik izango emakumezko edo gizonezkoak den aurkezturiko lan horren atzean dagoena. Esperientzia baloratu baino gehiago **kalitateari beti lehentasuna** eman, oreka eta ondorengo parekotasuna beraiek zaindu beharko dute, kasu horretan.

Epaimahaiaren beste arduragarrantzitsua iruditzen zait, lehian diren filmen artean, edo diru-laguntza eskatu duten egitasmoen artean, **emakumea gutxiesten duen istoriorik sekula ez saritzea**.

Epaimahaikide izan naizen aldietan, hirutik emakume bakarra izatea egokitu zaidan bezala, bostetik gora izan bagara gutxienez bi emakumeak izan gara. Gero eta gehiago zaintzen dela ziurtatu dezaket.

Esandakoak esanda, ez dut nire hausnarketa-lana amaitu nahi, bati baino gehiagori zer pentsatua emango dion xehetasun bat gogora ekarri gabe:

Zera, diskriminazio positiboak kasu batzuetan alde onak dituen bezala, kaltegarria da bestetan. Adibide lotsagarri bat datorkit burura: behin banuen film labur bat sari baterako hautagai. Nor zen gogoratu nahi ez dudana emakume baten deia jaso nuen. Sari hartarako epaimahaikidea zela eta nire film laburraren izenburua jakin nahi zuela. Zertarako? Bada oso argi zuela emakume bati eman behar zitzaiola saria, eta emakume zuzendari hautagai bakarra ni nintzenez, izenburua jakin nahi zuen, ez nire lana ikusteko, zuzenean saritzeko baizik. Eta halaxe esan zidan, gainera. Jarrera lotsagarri horren aurrean, ez zidala mesederik egiten eta horrela ez genuela inoiz berdintasunik lortuko erantzun nion, haserre. Aitortu behar dut ibilbide osoan aldi bakarra izan dela saririk ez jasotzeak poztu nauena.

"Emakumea naiz, ados, baina zinemagilea naizen aldetik, nire lana saritzea nahi dut, eta ez nire emakume-izaera saritzea".

III.IV. Lantaldean eztabaidatutako proposamenak

Emakumeek ikus-entzunezkoan duten presentziari buruzko lantaldearen bigarren bilkuran (2016ko azaroaren 22an izana) eztabaidatutako proposamenak bildu dira dokumentu honetan.

KEBek azterketa kuantitatiboaren gaineko txostena eginda, Miren Maniasek pertzepzioen azterketa eginda eta Ane Muñozek iritzi-artikulua idatzita, heldu da arreta emakumeek ikus-entzunezkoaren esparruan duten presentzia hobetzen lagunduko duten neurriei eskaintzeko unea. Emakumeen bizipenek erakusten eta aztertutako datuek berresten dutenez sektoreko emakumeek bizi dituzten kondizio txarrak zuzentzeko politika eta ekintza eraginkorrak planteatzea da kontua.

Planteatzen den estrategia edozein dela ere, funtsezko hiru kontu badirela azpimarratu da lantaldean:

■ Ekintza oro positiboki planteatzeko beharra, biktimismozik gabe eta azpimarratuz ekintza guztiak, emakumei ez ezik, sektore osoari eta, horren bitartez, gizarte osoari ere egingo zaizkiela onuragarri.

■ Diagnosian aurkitutako puntu kritikoak zuzentzen lagun lezaketen neurriak ikuspegi integral batetik planteatzeko beharra. Lau estrategia planteatu dira, elkarren osagarri, zeinek diru-laguntza deialdiei, laguntza- eta aholku-neurriei, sentikortze-neurriei eta ikerkuntzaren gaineko batzuei eragiten baitiete. Horiez gain, badira beste bederatzi proposamen, lantaldeak aztertu eta osatu beharko dituenak.

■ Proposatzen diren neurriei iraunkortasuna eta egonkortasuna emateko beharra, hartara horien eragina epe ertain eta luzean ebaluatu ahal izateko.

A) Diru-laguntza deialdietan ezarri beharreko ekintza positiborako neurriak

‘Ekintza positibotzat’ hartzen dira sartzeko baldintzak berdintzeko helburua duten ekimenak, hori baita profesionalizatzeko bideari ekiteko abiapuntua. Bide horretan, diru-laguntza deialdietan aplikatzeko proposamenen artean badira ekoizpenetako lantaldeetan emakumeak kontratatzekeo pizgarriak. Bestetik, ekintza positiboaren oinarrian emakumeek duten ordezkartza murrizta orekatzekeo obligazioa dagoelako ideia dago. Beraz, emaitzak lortzera bideratutakoak dira planteatzen diren neurriak, eta tresnatzat sexu-kuotak eta lehentasunezko tratua ezartzea dute, nola eta lagundu beharreko kolektiboek puntu gehiago esleituz.

Ikus-entzunezkoen alorrean, sektoreari laguntzeko EAEko politika publikoa Eusko Jaurlaritzari dagokio eta bi diru-laguntza deialdiak bidez gauzatzen da: gidoiak egiteko laguntzena eta ikus-entzunezkoak garatzeko eta ekoizteko laguntzena. Azken urteetan ekintza positiborako neurriak gehitu zaizkie bi deialdiei. Orain artean ez da aplikatu ekoizpenen lantaldeetan emakumeen parte-hartzea areagotzeko pizgarriak.

Neurri hauek proposatzen dira, besteak beste, bide horretan:

■ Gazte talentudunei laguntzeko berariazko deialdia abiaraztea, hartara aiseago txerta daitezzen zirkuitu profesionalen.

■ Ekoizpen lantaldeetan emakumeen kontratazioa pizgarrien bidez sustatzea.

■ Gaur egungo deialdietan diren laguntza neurriak mantendu. Gidoiak egiten laguntzeko deialdian xedatzen da “26.2 artikuluan xedatutakoak horretarako aukera ematen duen guztietan, diruz laguntzen diren proiektuetatik gutxienez hiru emakumeek eginak izatea berrmatuko da”, eta proiektuaren interesa baloratzeko atalean (% 30) adierazten da aintzat hartzen dela “genero-ikuspegia proiektuan txertatuta izan ala ez”. Garapenerako eta ekoizpenerako laguntzei dagokienez, “emakumeek zuzendaritzako, gidoigintzako nahiz ekoizpen exekutibo zereginetan diharduten” eta “obrak generoen proiektzio orekatu eta ez-estereotipatua izaten laguntzen duen” baloratuko da (% 5”).

B) Laguntzeko eta aholku emateko neurriak

Emakumeek zirkuitu profesionalera biltzeko dituzten oztopoei, beren karrerari iraurarazteko zailtasuna gehitzen zaie. Horri dagokionez, badira zinemagileentzako laguntza-adibide ugari, hala nola CIMA MENTORING programa, aholku pertsonalizatua eskaintzen duena, film luze, dokumental eta telebista-serieak finantzatzen eta ekoizten laguntzera bideratua dena eta ikus-entzunezkoen sektoreko ekintzaile berriak ospeko ibilbidea duten profesionalekin harremanetan jartzen dituena. Edo Suediako zinema-institutuak bultzatzen duen Mentor Movement programa, non bost emakumezko zuzendari ospetsuk film bakarra egina duten hamar hasiberriren gidari diharduten, hartara horiek estrategiako eta ahalduntzeko teknikak ikas ditzaten.

C) Sentiberatze-neurriak

Hainbat helburu dituzte sentiberatze-neurriek; hauek, besteak beste:

■ Aldeko eredu eta erreferentziak oinarritik bertatik sustatzea, hezkuntza-proiektuen bidez eta ikastetxeetan, unibertsitateetan eta eskola teknikoetan gauzatu beharreko ekintzen bidez. Garrantzizkotzat jo da kontu hau, bai ikerketa kualitatiboan egindako elkarrizketetan, bai lantaldean bertan.

■ Sektoreari egoeraren berri ematea. Ikus-entzunezkoa oso sektore maskulinoa da eta aurreikustekoa da aldaketari kontra egiteko joera izan litekeela, beraz, emakumeen potentziala balioestearren, ekoiztetxeekin eta ekintzaile pribatuekin batera informazio-programak eta proiektuak abiarazi behar lirateke.

■ Emakumezko zinemagileen lana ezagutaraztea, Suediako zinema-institutuak egiten duenaren edo Hemen Here egiten ari den lanaren antzera. Halaber Euskal Filmategia, EITB, Tabakalera eta jaialdi esanguratsuenen konpromisoa eska liteke.

■ Funtsezkotzat jo da EITBren eginkizuna aldeko ereduak sustatzeko orduan, sozializatzailerik gisa duen indarra dela eta.

■ Erabakitze-organoetan gizonen eta emakumeen ordezkaritza orekatua izatea berrmatzea: hautaketa-batzordeetan, jaialdietan, epaimahietan... Eusko Jaurlaritzaren deialdietako batzordeetan ezartzen dira dagoeneko irizpide hauek, baina halaber zabal litezke laguntza publikoak jasotzen dituzten jaialdietara eta gainontzekoei ere gomendioak egin lekizkieke.

D) Ikerkuntzarako neurriak

Datuak eta pertzepzioen azterketa aintzat hartuta zenbait galdera datoz burua, hala nola zer faktorek eragiten duten emakumeen profesionalizaziorako jauzia mugatua izan dadin, zer oztopo aurkitzen dituzten, hasiera batean behintzat, erakarri egiten dituen lanean jarduteko, ea hori dena aukerarik eza, konfiantzarik eza ala hezkuntzarik ezagatik gertatzen ote den, nola eragiten duen prekarietateak eta lan-ezgonkortasunak, zergatik den hain bazterrekoa gidoigile eta zuzendari duten presentzia ... Ez dakizkigu erantzun horiek. Arazoaren erroak ondo ezagutzera bideratutako ikerkuntzaren premia dugu.

Bide horretan ondorengoa proposatzen da:

■ Emakunderekin eta Unibertsitatearekin batera ikerketa-lerro berriak zabaltzea, horrela gaia hauen gaineko doktorego-tesiak eta ikertaldeak sustatzeko.



Emakumeen presentzia

ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura